

puntu

+

Parkinsona azkar detektatu guran dihardute

Ainhoa Nadia Douhaibiri elkarrizketa

KORONABIRUSA

Bi ume,
Eskoriatzako
Mendiola auzoko
etxean, leihotik
begira.

KALERA IRTETEKO ZAIN

Domekatik aurrera, ordubetez irten ahal izango dira 14 urtetik beherakoak, hilabete eta erdi etxetik irten barik egon ostean; Euskal Herriko haurren aldeko txalo zaparrada antolatu dute egun horretarako / 2

IGOR ETXABE

OLATZ ETXABE, ITURBIDE EGOITZAKO ZUZENDARIA

"Ez genuen pandemia honi aurre egiteko kontingentzia planik"

Arrasateko Iturbide da koronabirusak gehien kolpatu duen eskualdeko zaharren egoitza; zuzendaria "gogor" ari da lanean gaitzari aurre egiteko / 6




Olatz Etxabe. MAIALEN SANTOS

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70



Gehienez ordubetez irten ahal izango dira haurrak kalera etzitik aurrera

Gorabehera handiko egunen ostean, Espainiako Gobernuak atzo eman zuen aditzera 14 urtetik beherako haurrak kalera ze baldintzatan atera ahal izango diren domekatik aurrera; etxetik kilometro bat urrunduta ahal izango dira gehienez, eta egunean behin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azkenean, argitu da kontua. Domekatik aurrera, 14 urtetik beherako haurrak paseo bat ematera irten ahal izango dira kalera, betiere adinez nagusikoa den batekin –ez du zertan gurasoa izan–. Adinez nagusiko hori gehienez hiru umerekin atera ahal izango da kalera, irteera ordubetekoa izan ahalko da gehienez eta etxetik kilometro bat baino gertuago ibili beharko dute, 09:00etatik 21:00etara bitartean, egunean behin. Oinez

edo korrika ibiltzeko aukera izango dute hurrek, eta jostailuak ere atera ahal izango dituzte. Maskararen erabilera ez da derrigorrezkoa izango umeentzat, gomendioa baizik, eta distantzia soziala mantendu beharko dute, eskuak garbitzeaz gain. 14 urtetik gorakoek ere kalera irteteko aukera izango dute errekaduak egitera, baina gurasoen laguntzarekin.

Honekin lotuta, Oinherri herri hezitzaileen sareak egoeraren hausnarketa egin eta manifestu

bat kaleratu du. Horri atxikimendua emateko formularioa ere eskura jarri du, *Herrihezitzailea.eus* webgunean. Haurrak ikusgai bihurtzearen beharra da aldarrikapenetako bat. Horrez gain, Euskal Herriko haurren aldeko txalo zaparrada antolatu dute domekarako, apirilak 26. Ekimena *#GoraHaurtzaroa* tralarekin egingo dute eta asmoa da 12:00etan "herritarrek haurren eskubideak aldarrikatzea eta baita ere orain arte erakutsi duten jarrera zoriontzia".



Mutiko bat leihotik kalera begira. MAIDER ARREGI

HEZKUNTZA PLANA

HAINBAT IKASMAILA JARDUERA PRESENTZIALERA ITZULI DAITEZKE

Ikasturte honen amaierarako prestatu duen hezkuntza-planaren berri eman du Eusko Jaurlaritzak asteon. Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak dio datozen asteetan ezingo dela ikasgeletako erabateko normal-

Etxealditik EUSKARALDIRA

Ohitura aldaketa etxetik hasten da

@euskaraldia
 @belarripest / @ahobizi www.euskaraldia.eus/etxealdia



Ikasle Abertzaleak antolakundeak, bestalde, programa bat aurkeztu du ikasleek bizi duten egoera azaltzeko. Besteak beste, "ziurgabetasun egoeran" daudela adierazi dute, eta Hezkuntza Sailak ikasturte amaierara begira aurkeztutako neurriekin egoerak berdin jarraituko lukeela salatu.

Horrez gain, Bizikasi Eusko Jaurlaritzako Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzuak online plataformak bat jarri du martxan, "aurrez aurreko arreta zerbitzua eskaintzerik ez duenez, herritarren beharrak jasotzeko", kideen esanetan. Debagoiengan dauden formazio aukeren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzea helburu duen zerbitzua, Bergarako Miguel Altuna LHIn eta Aretxabaletako Lanbide Eskolan kokatua.

MASKARA BAKOITZAK 0,96 EURO

MASKAREN GEHIENZKO PREZIOA GAUR SARTU DA INDARREAN

Maskara kirurgikoen gehieneko prezioa 0,96 eurotan finkatu du Espainiako Gobernuak, eta gaur, egubakoitza, jarri da indarrean, BOEn argitaratutakoan. Medikamentuen eta Osasun Produktuen Prezioen Ministerio artek Batzordeak hartu du erabakia eta helburua da "neurri-gabeak" izan daitezkeen baldintza ekonomikoak saihestea.

Euskadiko Udalen Elkarteak, Eudelek, 300.000 maskara banatuko dituela jakinarazi du, batez ere, herri txikiei laguntzeko. Ondoren, udal gobernu bakoitzak izango du maskaren banaketa nola egin erabakitzeke autonomia. Gipuzkoan 107.000 banatuko dituzte, 89 udalerritarako.

Eroskik, bestalde, 100.000 maskara eman ditu dohainik adinekoen egoitzetarako, eta dendak maskaraz hornitzen hasi da, herritarrei saldu ahal izateko.

Horrez gain, asteon iritsi dira Aretxabaletan egoitza duen Mondragon Assembly enpresak Txinan eginiko makinak. Horieta hiru Etxebarriko lantegian muntatu dituzte. Dena ondo bidean, apirilaren amaieran maskara kirurgikoak ekoizten hastea da asmoa eta hilabetean ia 10 milioi inguru ekoiztea aurreikusten dute. Laugarren makina, aldiz, Defentsa Ministerioak

Burgosen duen farmazia zentrori bideratu dute.

ULMA Packaging kooperatiba osasun arloko maskarak birziklatzeko SPAIN egitasmoan parte hartzen ari da. Erabilitako maskarak hartu, garbitu, esterilizatu eta berriro erabiltzeko moduan prestatzen dituzte egitasmoan. ULMA Packaging-ek prozesuaren azken urratsean parte hartu du, makina biltzailerik bat propio egokituta.

Gelen prezioa ere finkatu du Espainiako Gobernuak gel ekoiz-

leentzat. Hori dela eta, 100 mililitro arteko ontziek 2,1 euro balioko dute gehienez eta 250 mililitro arteko ontziek, berriz, 4,5 euro gehienez.

KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN

BI KASU BERRI OÑATIN, ETA BANA ANTZUOLAN ETA ESKORIATZAN

Atzo, eguna, eguneratutako datuen arabera, COVID-19arekin

kutsatutako lau kasu berri egiaztatu dituzte Debagoiengan, eta guztira 338 dira. Arrasatek jarraitzen du kasu gehien dituen herria izaten: 204. Oñatin, 41 kasu baieztatu dituzte orain arte; Bergaran, 38; Aretxabaletan, 35; Eskoriatzan, 12; Antzuolan, lau; Aramaion eta Elgetan, bina; eta Gatzagan, bakar bat ere ez.

Hego Euskal Herrian 492 gairu berri baieztatu dituzte, eta guztira 18.430 dira koronabirusa daukatenak. Hildakoei dagokien, 1.576 dira dagoeneko.




Gure ikasleen ahotsan



“Pertsona kritiko, autonomo eta kooperatiboak izateko hezten gaituzte”

Joseba Herrera Gallego (Eskoriatza, 21 urte) Lehen Hezkuntza graduako 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Ikasketak hainbat eskola eta ikastetxetan burutu ditut. HH eta LHko etapak Luis Ezeizan, Eskoriatzan. Gero, DBHko etapa Aretxabaletako Kurtzebarri BHIn egin nuen eta batxilergoa, aldiz, Arizmendi Ikastolan (Almen). Zaletasunen artean, futbola, boxeoa, rapa eta snowboarda.

Zergatik aukeratu zenuen gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Hasieratik argi izan nuen irakaslea izan nahi nuela. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen lehenengo urtean, baina ez zitzaidan batere gustukoa iruditu eta txikitatzen nuen desioa betetzea erabaki

nuen; hots, irakasle izatea. Mondragon Unibertsitatea aukeratzearen arrazoia gertutasuna izan zen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Fakultatean bizi izandako esperientzia guztiak aberatsak izan direla esango nuke. Klasean eta fakultate osoan sortutako giroarekin gelditzen naiz.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Hasieran, bertako metodologiak harritu ninduen erabat. Ohiko ikasteko modua aldatzen da erabat, ebaluazioa bera ere oso desberdina da, gela barruko dinamikak: ez dugu ikasgairik, moduluka lan egiten dugu eta sakontzen dugu gai bakar batean aldiro.

Horri gehitu behar zaio pertsona kritiko, autonomo eta kooperatiboak izateko ere hezten gaituztela.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ikasle-irakasle edota fakultateko komunitate guztiaren giroa atsegina da.

Errealitatearekin lotura dute ikasketek?

Bai. Hori da ikastearen helburuetako bat, teoria eta praktika etengabe kontrastatzea eta konklusioak ateratzea.

Etorkizunari dagokionez, zeintzuk dira zure asmoak?

Irakasle bezala jardutea gustatuko litzateke. Geroz eta argiago daukat gizartea eta hezkuntza eskutik joan behar diren aldagaiak direla eta gure eskuetan egongo dela, neurri batean, gugana etorriko diren haurren etorkizuna.

tasuna berreskuratu. Hala ere, "kritikotzat" jotzen diren hezkuntza mailetarako balizko itzulera bat prestatu dute: DBHko 4. maila, batxilergoa eta Lanbide Heziketa, hain zuzen.

Ikasleen ebaluazioari dagokionez, Uriartek azaldu du ikastetxe bakoitzaren zeregina izango dela ikasturte amaierako ebaluazioa egiteko kontuan hartuko diren irizpideak zehaztea. Hori eginda, ikastetxeko zuzendaritza taldeak eta ikuskatzaileak maiatzeko lehen hamabostaldian bilera egingo dute, ikastetxeak proposatutako ebaluazio-irizpideak aztertu eta baloratzeko.

Horrekin batera, egoera honek errefortzua aurreikustea eskatzen duela aipatu du, eta gehitu du "arreta berezia" eskainiko zaie online prestakuntzarako aukerarik izan ez duten ikasleei, desabantailan egon ez daitezen.

Ikasleak ere ez daude geldirik. Unibertsitateko Indar Batasunak martxan jarri duen Ikasle Babes Sareak, esaterako, ikasketekin aurrera jarraitzeko samurtasunak ipini ditu, harremanetarako hainbat bide erraztuz: uib_nazionale@gmail.com helbidea eta 688 64 66 97 telefonoa. Bestalde, Twitter (@UIBnazionale) eta Instagram (@uib_nazionale) sare sozialetara ere idatz daitezke. "Ikasketetarako laguntza eskaintzen du sareak, arazoak dituztenedako, eta apunteak eskuragarri jarri", azpimarratu du sareko kide Saioa Galarraga bergararrak.

Bestalde, 9.581 pertsonak jaso dute alta. Iñaki Peña barneko medikuak adierazi duenez, jada ez dago COVID-19 gaitza duenik Debagoieneko Ospitalean.

HERRIETAKO OSOKO BILKURAK

OSOKO BILKURAK MODU TELEMATIKOAN EGITEN HASI DIRA HAINBAT HERRITAN

Ezohiko egoera hau eragina izaten ari da Debagoieneko udalako osoko bilkuretan ere.

Arrasaten, esaterako, eguaztenean egin zuten, eta, hasiera batean modu telematikoa egiteko asmoa bazuten ere, azkenean, presentziala egin zuten, baina zinegotzi kopuru mugatuarekin –talde guztietako ordezkariekin– eta idazkariarekin. *Streaming* bidez eman zuten, kazetariak eta herritarrek aretoan egoterik ez zuten Internetetik jarraitu ahal izateko.

Bergaran, alarma egoera ezarri zenetik ez da oraindik osoko bilkurarik egin. Martxoaren 30ean zen egitekoa alarma egoera ezarri osteko lehena, ohiko

deialdian, baina atzeratzea erabaki zuten. Hurrengo apirilaren 27an egingo dute, hau ere ohiko deialdian, eta telematikoki. Hasiera baten, behintzat, Bergarako udalbatza osatzen duten 17 zinegotziek hartuko dute parte eta modu publikoan zuzenean ikusteko aukera bermatuko dute. Kazetariak bilkura zuzenean jarraitu eta ondoren galdetzeko aukera izango dutela ere adierazi du Udalak.

Oñatiri dagokionez, martxoko osoko bilkura telematikoki egin zuten, bakoitzak bere etxetik. Bilkura grabatu egin zuten osorik, eta gero, plataforma batean jarri zuten ikusgai, gako batekin. Apirilekoa ere modu berean egingo dute, datorren egunean.

Aretxabaletan, bestalde, bi hilabete behin egiten dute, eta, martxoaren ostean, maiztaren 14an egin behar dute hurrengo. Seguruenik, teleferentziak egingo dute han ere.

Eskoriatzan, apirilaren 1ean egin zuten ezohiko egoera honetako lehen osoko bilkura, telematikoki, eta gero, Udalaren webgunean eman zuten onartutako puntu berri.

Antzuolan, datorren martitzenean egingo dute hurrengo osoko bilkura eta hau ere telematikoki egingo dute, zinegotzi guztiekin. Aramaion, martxoko ez zuten egin, eta, apirilekoa datorren egunean egitea tokatzen den arren, oraindik ez du ezer jakinarazi Udalak.

Elgetan ere bi hilean behin egiten dute osoko bilkura, eta, beraz, ezohiko egoera honetan ez dute oraindik egin, ezta Leintz Gatzagan ere.

AUTONOMOENDAKO LAGUNTZAK

JAURLARITZAK 30 MILIOI EURO JARRIKO DITU AUTONOMO ETA ENPRESA TXIKIENTZAT

Hasieran, alarma egoeratik jardura eten behar izan duten autonomoentzat 3.000.000 euro bideratuko zituela jakinarazi zuten Jaurlaritzak eta eskatzaile bakoitzak gehienez ere 3.000 euro jaso ahal izango zituela. Hala ere, eskaera erauntsiagatik, webgunea blokeatu egin zen epea hasi eta gutxira. Kritika asko jaso zituen ekimenak

eta Lanbideek barkamena eskatu behar izan zuten, eta gerora, Iñigo Urkullu lehendakariak eman zuen aditzera 30 milioi Jaurlaritzak euro bideratuko dituela autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei laguntzera.

HERRITARRAK ETA KONFINAMENDUA

ERTZAINZAK 149 SALAKETA JARRI DITU ALARMA EGOERA HASI ZENETIK

Martxoaren 15az geroztik Debagoienean 149 salaketa jarri ditu Ertzaintzak –eguaztenera arteko datuak dira–. Herriz herri aztertuta, Arrasaten 57 salaketa jarri dituzte orain arte; Bergaran, 45; Aretxabaletan, 19; Oñatin, hamaika; Elgetan, bederatziz; Leintz Gatzagan, lau; Eskoriatzan, hiru; Antzuolan, bakarra; eta Aramaion, bat bera ere ez.

Salaketa administratibo hauek gain, Ertzaintzak azaldu duenez, desobedientzia delitu larri bana egotzi zieten bi herritarri Arrasaten, "konfinamendua behin eta berriz ez betetzeagatik", apirilaren 14an.

Kutsatuak Debagoienean

Positiboak	100.000 biztanleko kutsatze tasa	
Arrasate	204	926,47
Oñati	41	361,71
Bergara	38	260,35
Aretxabaleta	35	500,93
Eskoriatza	12	293,61
Antzuola	4	187,27
Aramaio	2	134,86
Elgeta	2	176,21
Gatzaga	0	0
Guztira	338	528,04

ITURRIA: OSAKIDETZA

Salatzeko arrazoiak, oro har, kalean aitzakiarik gabe ibiltzea edota ezarritako neurriak ez betetzea dira. "Jendeak normalean onartzen du kalean dagoe-la paseo bat ematen, hankak luzatzen edo haizea edo eguzkia hartzen, baina badaude kasu batzuk non emandako aitzakiak sinesgarritasunik ez daukaten, argi eta garbi.

Hauek dira motiboetako batzuk: aitzakiarik gabe kalean ibili, bikoteka ibili edo erosketa egitera joan, banku baten egon eguzkia hartzen, bidegorrian paseatu, txakurra atera etxetik urrutiegi, taldeka erretzen egon, beharrik ez duen senide bategana joan...".

Horiez gain, hainbat kasu bitxi ere gaineratu ditu Ertzaintzak: "Garagardo bakar bat erosteko etxetik ateratzea; ondoko herrira ogia erostera joatea; etxe aurrean dantza egitea; egunean zehar hainbat erosketa txiki egitea, kalean ibiltzeko aprobetxatuz; garraio publikoan aitzakiarik gabe bidaiatzea; etxetik urruti dagoen supermerkatu batera ogia soilik erostera joatea etxe inguruan okindegia izanda; bebarruko eskaileretan gora eta behera ibiltzea behin eta berriro ariketa fisikoa egin nahian; jatetxe baten kasuan, zerbitzua ematea, baina bezeroak bertara joatea prestatutako janarien bila; izan ere, baimenduta dago etxez etxeko banaketa, baina, oster, ez dago baimenduta lokalera joatea bila".

"Ukitzen dugun guztia garbitzen dugu farmazian"

LEIRE ALVAREZ FARMAZIALARIA

Bergarako Mozos farmaziaren jabeetako bat da Leire Alvarez. Azaldu duenez, duela bi aste hasi ziren maskarak saltzen.

Hasieratik izan dituzue maskarak farmazian?

Hau guztia hasi zenean, eskaria handia izan zen, eta ez genuen nahiko maskara guztientzat. Beraz, zerrandak egiten hasi ginen, eta, maskarak heldu ahala, zerrandan zeuden herritarrei deitzen genien. Gero, guztientzat genituen maskarak. Hala ere, banatu egin ditugu.

Hau da, hasiera batean, eskatzen genuen guztia heltzen ez zitzaigunez, bakoitzari bat ematen hasi ginen, eta hala jarraitzen dugu. Hasierako eskari uholdearen ostean, hori ere egonkortzen ari da dagoeneko.

Zenbat maskara hartu ditzake herritar bakoitzak?

Oraingo, bat. Ez da derrigorra maskararen erabilera, eta herritar bakoitzari bat saltzen



MOZOS FARMAZIA

diogu. Baina, erabileraren edo behararen arabera, mugarik gabe salduko diegu, nahikoa egonez gero, noski.

Ze maskara mota dituzue?

Gehien daudenak eta errazen lortzen direnak, oraingo, kirurgikoak dira. Gero, badaude FFP2 maskarak, baina horiek gutxiago iritsi zaizkigu. Horiek besteengandik babesten gaituztenak dira. Hala ere, printzipioz, gomendatzen direnak eta gehien erabiltzen direnak kirurgikoak dira.

Ze prezio daukate?

Oraingo, 1,95 euro balio du maskara bakoitzak, baina gaur indarrean sartu da gehieneko prezio hori, 0,96 eurokoa, eta hori errespetatu beharko dugu guk ere. Hala ere, ordaintzen dugun prezio bera jartzen dugu guk herritarrendako. Pentsatu gura dut aurrerantzean guk ere 0,96 eurotan jasoko ditugula, prezio horretan saltzeko.

Erabilera bakarrekoeak dira?

Bai. Bost orduko eraginkortasuna dute; beraz, erabileraren arabera, irteera baten baino gehiagotan jarri ditzakegu.

Maskarek gain, ze produktu eskatzen ditu jendeak?

Gehienbat, maskarak, gelak eta eskularruak eskatzen dizkigute. Orain, adibidez, eskularruekin dugu arazoa. Binilozkoak, nitrilozkoak eta latex eskularruak saltzen ditugu, baina momentu honetan guztia gastatu zaigu.

Ze neurri hartzen dituzue?

Eskularruekin eta maskarekin egiten dugu lan. Gero, metakrilatozko babes bat ere jarrita daukagu, eta distantzia mantentzeko zinta bat ere badugu, baita EPlak ere.

Nola eragiten dizue honek?

Egiten dugun gauza bakoitza kontzienteki egin behar duzu. Ukitzen ditugun gauza guztiak garbitzen ari gara. Alerta txip horrekin gaude une oro.

Nola egiten diogu aurre COVID-19ari Gipuzkoan?

1. GIZARTE ZERBITZUAK: txoke plana

COVID-19aren harira prebentziorako zerbitzuak eta informazio-sistemak indartu dira.

Telezaintza:
900 43 43 43



- COVID-19 testuinguruan zerbitzuak jasotzeko eta orientaziorako.
- Zentroetako erabiltzaileak aldi baterako etxera itzultzeko kudeaketa lanak.

- Egoitzatako langileriari ostatu emateko zerbitzuaren informazioa eta eskabideak.
- Familiei eta langileei laguntza psikosoziala.

Herritarren arreta:



- **943 11 25 11**
- info.gizartekintza@gipuzkoa.eus
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta:
900 840 111

2. EKONOMIA SUSTAPENA: autonomoak eta enpresak



Jarduera ekonomikoen inguruko informazio guztia zure esku jarri dugu eta prozesuan laguntzeko entitate sare zabala osatu dugu.



Osasun laborala



Laguntza publikoak



Arlo laborala



Zerga arloa

3. OGASUNA: ordainketak eta datak

Autonomo eta enprezentzako neurriak.

Zergadun guztientzako neurriak.



Autonomoen PFEZaren ordainketa zatikatuak

Ez da autolikidaziorik aurkeztu behar (1. eta 2. hiruhilekoak).



Gerorapen berriak

300.000 euro arte handitzen da modu automatikoan geroratu daitekeen zorraren zenbatekoa.



1. hiruhilekoko zerga ordainketa

Lehen hiruhileko zerga ordainketak ekainaren 1era atzeratzen dira enpresa txiki, mikroenpresa eta autonomoentzat.



Errenta online


Herritar guztiek etxetik mugitu gabe aitortpena aurkezteko bideak ahalbidetu dira.

www.gipuzkoa.eus

Guztion lankidetzara eta ahaleginarekin, lortuko dugu.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN



Maialen Santos DEBAGOIENA

Gipuzkoan dauden 65 zahar etxetatik 16k dituzte koronabirus kasuak. Horietako bat da Arrasateko Iturbide, eta bertako zuzendari Olatz Etxabe "gogor" ari da lanean egunotan gaitzari aurre egiteko helburuarekin. **Iturbide adinekoen egoitzan une gogorrek bizitzen ari zarete...**

Hala da, bai. Birusak gogor jo du gurean. Baina pasatu duguna ikusita, orain hobeto gaude. **Beste egoitza batzuetan egoera ez da hain gordina...**

Gurean hasieran bi kasu susmagarri izan genituen, eta pertsona horiek isolatu egin genituen. Baina, bat-batean, lehen positiboa baieztatu genuen eta hortik lauzpabost egunera egoiliar asko hasi ziren sintomekin. Gauzak horrela, mediku berri bat etorri zen eta erabaki genuen egoiliar guztiei proba egitea, egoitzako egoera zein zen zehazki jakiteko. Probek ondorioztatu zuten egoiliarren %80 kutsatuta zeudela, nahiz eta gehienek sintomarik ez zuten.

Nolakoak izan ziren hasierako egun haiek?

Hasierako egun batzuk zoratzekoak izan ziren. Oraindik hainbeste kutsatu zeudela ez genekianean pentsatu genuen egoitzako laugarren solairua egokitzeko koronabirus kasuak artatzeko, eta larriago zeuden egoiliarrek ospitalera eramatea. Beraz, solairu hori egokitzea izan zen lehen urratsa. Hala eta guztiz ere, hurrengo egunean, test gehiago egin genituenean, ikusi genuen ez zela nahikoa, hori baino gehiago beharko genuela.

Eta orduan zer?

Planteamenduari buelta eman genion. Pentsatu genuen egoitzan tratatu behar zela gaia; eta, beraz, kutsatuak hemen geratuko zirela beste nonbaitera eraman gabe. Hala, egoitzako lehen solairua egokitu genuen negatiboentzako eta beste hirurak kutsatutako egoiliarrentzako. **Jaso duzue egoitzaz kanpoko laguntzarik?**

Zerbitzua indartu egin dugu. Osakidetzak sekulako esfortzua egin duela esan beharra daukat: hau guztia hasi zenetik hiru mediku etortzen dira egunero, eta erizaintza ere indartu dugu; bi erizain izaten ditugu goizean eta arratsaldean, eta bat gauean; orain arte ez genuen gauerako erizainik izaten.

"Pauso bat atzetik joan izanaren sentsazioa dut"

OLATZ ETXABE ITURBIDE ADINEKOEN EGOITZAKO ZUZENDARIA

Jaurlaritzak eguaztenera arte emandako datuen arabera, Arrasateko Iturbide egoitzan 30 pertsonak dute koronabirusa. 21 egoiliar hil dira orain artean; eta 30 errekuperatu



Olatz Etxabe, Iturbide egoitzako zuzendaria, lan jarduna bukatu berritan. M.S.

Izarri duzue laguntza hori?

Izugarri. Laguntza horretaz baliatuta hasi ginen gaixoak artatzen, eta esan behar da egin genuen lanak emaitzak eman dituela; egoiliar gehienak hasi dira osatzen, eta hasiera batean

kanpora joan zirenak bueltatzen. Baina egoiliar asko hil egin dira. **Eguaztenean 30 kasu positibo zeuden Iturbiden. Hildakoak 21 ziren, eta osatutakoak, beste 30.**

Hildakoak pertsona oso edade-
tuak izan dira, eta patologia

ugari zituztenak. Baina egia da koronabirusagatik izan ez balitz ziur aski ez zirela orain hilko.

Zer izan da gogorrena?

Esango nuke gogorrena ez dela heriotza izan, baizik eta gauzak nola gertatu diren. Egoiliar batzuk hemendik atera genituen eta ez dira itzuli, eta familiek ez dute haiek ikusteko aukerarik izan. Hil direnek ez dute familia agurtu. Ez zaie elizkizunik egin; hori oso gogorra da.

Iturbiden garrantzi handia ematen diezue hil aurreko azken uneei...

Bai, azken egunei garrantzi handia ematen diegu: badaukagu espresuki horretara zuzendutako gela bat, egoiliarra familiarekin egon dadin azken egunetan. Askok lantzen dugun zerbaite da. Baina, kasu honetan, ezin dugu horrelakorik egin, eta agurra oso gogorra da azkenetan dagoenarentzat.

Ohiko bisitarik ere ez duzue hartzen...

Ezin dugu. Eta hemen bizi diren gehienak ohituta zeuden familiarekin egunero egoten; beraz, oso gogorra egiten zaie aldaketa, bisitarik jaso gabe egotea. Bost aste daramatzate egoitzatik irten gabe, denbora dezente da. Eta esango nuke denok ari garela aldaketa hau pairatzen, baina umeak eta adinekoak dira okerren daramatenak.

Lehenengo positiboa baieztatu zenuenetik hartzen joan zareten neurriak egokiak izan dira?

Hasieran protokoloek esaten zutena egin genuen, baina arazoa izan zen ez genuela material nahikorik. Orduan gertatu zen asintomatikoak zirenak gainontzekoak kutsatuz joan zirela, konturatu gabe. Martxoaren 26an lehen kasua baieztatu genuenetik apirilaren 3ra 40 positibo inguru izan genituen. Bat-batean, sekulako igoera izan zen.

Zein da egungo egoera?

Egoiliar asko osatu egin dira, eta beste batzuek alta jaso dute. Hala ere, azken horiek oraindik egun batzuk pasa beharko dituzte isolatuta, beste batzuk kutsatzeko arriskua dutelako. Gaitza normaltasunez pasa dutenak ere badaude. Azken egunei dagokienez, koronabirusa pasa dutenak orain hasi dira egoitzan nolabait bizitza normala egiten; izan ere, orain arte ezin izan dira geletatik irten; isolatuta egon dira. Bestetik, esan beharra daukat oso mediku talde ona izan dugula. Beraiek emandako irizpideak jarraitu ditugu eta horri esker oso ondo daude asko.

Estatu mailako beste egoitza batzuetan ere gogor jo du koronabirusak...

Hala da. Gure kasuan, badaukagu prebentzio plana uholdeak edota suteak egon daitezkeenerako, baina gisa honetako pandemia batek kontingentzia planik gabe harrapatu gaitu. Pauso bat atzetik ibili izanaren sentsazioa eduki dugu. Pandemia bat-batean etorri zaigu, eta protokoloak ere etengabe joan dira aldatzen.

Egoera honek zer irakatsi dizue?

Askok ikasi dugu, eta etorkizunean antzeko zerbaite gertatuko balitz hobeto egingo genuke. Baina errealitate da koronabirusaren pandemiak ondorio batzuk izan dituela: pertsona asko bidean geratu dira, eta hori da tristee-na. Batzuentzat berandu izan da, alegia, eta pena handia da.

ELA sindikatuak salaketa jarri du Iturbide kudeatzen dutenen aurka: Servicios Sociales Aita Menni.

Beraien eskubidea da. Egia da hasieran material gabe lan egin genuela: ez gure erabaki propioz, baizik eta ez zegoelako materialik. Alde guztietatik saiatu ginen materiala eskatzen; hornitzaileei eta baita Aldundian eta Osakidetzan ere; baina alferrik. Arrazoi horregatik egin genuen lan hain material gutxiarekin.

Noiz jaso zenuten beharrezko materiala?

Lehen positiboa atzeman zenetik hasi zen materiala iristen eta orduan bai hasi ginen materiala jasotzen eta prebentzio neurri guztiekin lan egiten. Kontingentzia plana ez zegoela ere egia da; esan moduan, orain egin dugu. Garesti ordaindu dugu. **Iturbideko langile asko ez datoz bat salaketa horrekin...**

Lehen ere eduki genuen beste gatazka bat eta istorioa berriz errepikatzen da. Pena da momentu honetan egoera aprobe txatzea norberaren interesen alde egiteko. Gauzak, agian, ez dira guztiz ondo egin, hobeto egin zitezkeen, baina guk ahalik eta ondoen egin ditugu. Eta airtortu behar dugu emaitza ez dela ona izan. Langile eta egoiliar asintomatiko asko izan ditugu, eta horrek ez du lagundu; izan ere, sintomak zituztenak tratatu ditugu guk. Materiala eduki izan bagenu, kutsadura hori ez zan gertatuko.

Inoiz baino lan gehiago duzuen honetan, langile asko baja hartuta daude...

Bai, baina egoiliarren kopurua asko murriztu dela ikusita –hildakoak eta kanpoan egon direnak aintzat hartuta–, nahiz eta langileen kopurua murriztu egin den, ondo eraman dugu. Garrantzia hartu dutenak osasun langileak dira, eta horiek hor egon dira; oso ondo hornituta, gainera. Ospidonek –etxeko ospitalizazioa– ere lagundu digu.

Lanean ari direnak nola daude?

Egoitza berrantolatu genuenean, egun kaotikoak izan genituen. Hala ere, lanean ari diren langileek sekulako meritua dute, izugarritzko lana egin dute eta. Beldur handia zuten, eta, hala eta guztiz ere, prestutasun handia izan dute.

"EGOILIAR ASKO ETXEKOAK AGURTU GABE HIL DIRA"

"KONTINGENTZIA PLANIK EZ GENUEN; ORAIN EGIN DUGU"

"EGOITZAKO LANGILE GUZTIEK SEKULAKO LANA EGIN DUTE"

Lan bikaina egin dute; bai garbitzaileek, baita zaintzaileek eta erizainek ere.

Egoiliarrez gain, familiak ere kudeatu behar izan dituzue?

Arlo honetan ere ez ditugu eduki behar genituen baliabideak. Egin ditugu bideokonferentziak, eta telefono deiak ere etengabe koak izan dira. Normala da familiakoek jakin gura izatea nola dagoen euren senidea. Eta egia da familien erantzuna oso ona izan dela, animoak eman dizkigute une zailetan.

Gizartearen presioa igarri duzue?

Komunikabideetan eman diren datuak une oro txarrak izan dira, oso zaila da hori kudeatzea. Jendeak komunikabideetan entzuten duenari jarraiki galdezteko deitzen du, eta guretzat oso gogorra izan da; ia-ia hemen bizi izan gara dena ahalik eta ondoen kudeatu ahal izateko.

Nolakoa izan da familiekin izandako tratua?

Oso gogorra da telefonoa hartu eta senideei deitzea esateko euren senideak positibo eman duela, gaizki dagoela edota hil egin dela. Batzuei abisatu diegu eta aukera izan dute agur esateko, nahiz eta momentu bat bakarrik izan den. Beste batzuek ez dute aukera hori izan; izan ere, gaitzak duena da nahiko ondo egotetik hiltzera momentu batean pasa zaitzkeela; egoera azkar aldatzen da. Gainera, egoiliar asko urte askoan egon dira gurekin eta guretzako aitona-amonak moduan izan dira.

Bizitako esperientzia inflexio puntu bat izango dela uste duzue?

Bai. Esan moduan, kontingentzia plana egiteaz bestalde, beste hausnarketa batzuk ere egin beharko lirake. Gaur egun, egoitzak dira zentro sozio-sanitarioak. Lehen, jendea etortzen zen bizitzako azken urteak hemen pasatzera, ondo bizitzera, baina gaur egun, etortzen direnak sarri dira etxean egon ezin direnak: arazo fisikoak edo osasun arazo larriak dituztenak. Gauzak asko aldatu dira, beraz.

Eta zer ekarriko du aldaketa horrek?

Nik uste dut ekarriko duela hausnarketa sakona: erabaki beharko da egoitzak zer izan behar diren, eta zein baliabide izan behar dituzten. Agian, beste zerbitzu espezializatuago batzuk eskaini beharko lituzkete. Argi dagoena da aldaketara egokitu beharko dugula.

Bailarako egoitzetan 23 hildako

Koronabirusaren krisiak gogor astindu ditu zaharren egoitzak. Gipuzkoako Foru Aldundiak eguaztenean aditzera emandako datuen arabera, Gipuzkoan dauden 65 egoitzetatik 16k dituzte koronabirus kasu positiboak. Egoitza horietako 259 lagunek jarraitzen dute COVID-19 gaitzean positibo izaten, eta 148 egoiliar hil dira eguaztenera arte. Aldiz, 127 adineko pertsona ere osatu dira.

Debagoienara etorrira, Arrasateko Iturbide, Aretxabaletako GSR Debagoiena eta Eskoriatzako Jose Arana dira gaitza sufritzen ari diren egoitzak. Iturbiden 105 egoiliarrentzako lekua dute, eta eguaztenean 30 pertsona ziren positiboak. Lehen kasua baieztatu zutenetik 21 pertsona hil dira ordura arte, gainera, eta 30 errekueratu dira. GSRn 144 plaza dituzte, eta bertan bizi diren 17 lagunek zuten koronabirusa eguaztenean. Bi pertsona ere hil dira gaitzaren eraginez. Azkenik, Jose Aranan 32 adinekorentzako tokia dute; eguaztenean positibo bakararra zuten, eta ordura arte beste pertsona bat hil da. Jaurlaritzatik adierazi dutenez, bailarako gainontzeko adinekoen egoitzetan egun berera arte ez dute kasu positiborik baieztatu.

ELAren salaketa Iturbideri

Joan den astean, Iturbide egoitzaren kudeaketaren ardura duen enpresaren –Servicios Sociales Aita Menni– eta Foru Aldundiaren aurkako salaketa jarri zuten ELA sindikatuak, egoiliarrek hil izana "kudeaketa txarraren ondorioa" dela iritzita. ELAko Deba eskualdeko egoitzetako arduradun Janire Diazek GOIENari azaldu dionez, "sekulako sarraskia" izan da gertatu dena, eta, hori gutxi balitz, azaldu du bertako langileek "ez dutela izan euren burua babesteko maskararik", eta jantzi duten ekipamendua "eskasa" izan dela. Jarritako salaketak jasotzen du testak egiten ere oso berandu hasi direla: "Sintomak agertzen



Suhiltzaileak Arrasateko Iturbide egoitza desinfektatzen. GOIENA

zituzten langileei testak 10 egunera egin zaizkie eta ez da inolaz ere bermatu ez langileen ezta egoiliarren osasuna". Gaineratu dutenez, ELAtik argi dute "egoera saihestu zitekeela", protokoloak zuzenki beteta eta materiala eta testak "hasieratik" izanda. Iturbide egoitzako zenbait langilek, berriz, azaldu dute ez datozela bat ELAK jarritako salaketarekin. Horietako batzuek GOIENARI jakinarazi diote egoera honek "ustekabea" hartu dituela baina guztiak egon direla prest "ahal den guztia egiteko eta egoera konpontzen laguntzeko". Era berean, onartu dute lehenengo egunetan materiala urria zela eta ez zela behin bakarrik erabiltzekoa, baina egunek aurrera egin ahala baliabideak "nabarmen" handitu direla. Horretaz gain, Iturbide egoitzako erabiltzaileek zein langileek "nahikoa material" badutela egoerari aurre egiteko

ELA SINDIKATUAK SALAKETA JARRI DU ITURBIDEKO KUDEATZAILEEN AURKA

ARRASATEKO OPOSIZIOKO ALDERDIEK ZENBAIT NEURRI HARTZEKO ESKATU DUTE

azpimarratu dute: "Eta are garrantzitsuagoa dena, gehienok badakigula une honetan beharrezkoak garena eta prest egon behar dugula".

Oposizioa, neurri eske

Arrasateko Ahal Dugutik joan den astean adierazi zuten "oso kezkatuta" daudela Iturbide egoitzako egoerarekin, eta "eskumena dutenen immobilismoa" salatu zuten. Horretaz gain, azaldu zuten "oposizioko alderdiek gaixotasunaz kutsatutako pertsonak isolatu eta beharrezko tratamendua emateko erakine publiko edo pribatu bat egokitzea aztertzea" proposatu zutela, eta oraindik erantzunik ez zutela jaso.

Arrasateko EH Bilduk, bestalde, "sortutako krisia uzten ari den ondorio sozialak eta ekonomikoak ikusita", hainbat neurri hartzeko eskatu zion Maria Ubarretxena alkateari. Horien artean, krisi mahai bat eratzeko eskaera jasotzen zen –mahai tekniko bat osatuz–; osasun krisiaren ondorioei "egoki aurre egin ahal izateko". Izan ere, datu zehatzak izatea "ezinbesteko baldintza" dela uste dute alderditik.

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Kulturagintza alorra da COVID-19ak eten duen lehenengo jardueretako bat, eta, informazio zehatzik ez badago ere, berriz ere abiatzeko denbora beharko da oraindik.

Kultur ekosistema osatzen dutenak –sortzaileak, sektoreko bestelako langileak eta eragileak– "arduratuta" daude, lehenago ere "egoera prekarioan zegoen kulturagintzari etorkizun beltza" iragartzen diotelako, eta, gogoeta eta eztabaida soziala eragiteko helburuarekin, *Ikusi gaitzazuen desagertuko gara, entzun gaitzazuen isilduko gara* lelopean greba digitala egin dute martitzenean eta eguaztenean.

Hiru hartzailei zuzenduta

Herritarrei, erakundeei eta, orokorrean, euskal kulturagintzaren ekosistema osoari sektorearen egoerari buruz hausnartzeko dei egin diete; hala azaldu du ekimenaren sustatzailetako batek, Gotzon Barandiaranek, *Hemen Debagoiena* saioan: "Itxialdian argi ikusi da kultura beharrezkoa eta oso baliagarria dela halako egoera zailak arintzeko edo goxatzeko, eta asmo horrekin sortzaile askok euren ekarpenak egin dituzte sare sozialean kontzertuak edo bestelako emanaldi edo lanak musu-truk plazaratzeko; eta, horregatik, herritarrei eskatu gura diegu hausnartzeko kulturak egiten duen edo egiten dien ekarpenari buruz. Hau da, zer kulturagintza eredu nahi dugun, ze balio ematen diogun gure kulturagintzari, ze ekarpen egiten dion kulturagintzak gure gizarteari eta baita sortzaileen lan baldintza prekarioei buruz ere".

Koronabirusaren eraginez kalte ekonomikoak handiak dira, eta, horregatik, erakundeei ere zuzendu zatzaizkie ekimenaren sustatzaileak: "Martxoaren 13tik etenda daude zuzeneko emanaldi guztiak, eta ez dakigu horiek aurrerago egiteko modurik izango den, eta, egiten badira ere, ekitaldien pilaketa sortzeko arriskua ere badago; horregatik,

"EZ DAKIGU JAIRIK EGONGO DEN, BAINA ANTOLATZEN ARI GARA, BADA EZPADA"

HARITZ ZUBIATE
BIDEAN PRODUKZIOAK



Areto askotan moduan, Amaia antzokian ere soinu mahaia gelditu dago azkenaldian. IMANOL BELOKI

Kulturaren amarauneko zuloak handitzen doaz pandemiaren eraginez

Ekitaldiak etenda daude eta uda sasoiak ere kolokan, baina arloko profesionalak lanean ari dira, gehienak musu-truk eta babes gutxirekin eta gastuen kopurua pilatuz

euskal erakunde guztiei eskatu gura diegu proposatzeko gabezia horiei aurre egiteko neurriak guri eta elkarrekin adostu ditzaugun zeintzuk diren neurri aproposenak".

Hirugarren hartzailea euskal kulturagintzaren ekosistema osoa dela gaineratu du Barandiaranek: "Hau da, sortzaileetatik hasita, antolatzaileak –herri mugimenduetakoak eta erakunde publikoetakoak–, enpresa moduan lan egiten dutenak –argitaletxeak, diskoetxeak, soinu enpresak, elkarteak, komunikabideak, hezkuntza arautua eta ez arau-

"EUSKAL HERRI OSOARENTZAKO KULTUR ESTRATEGIA BEHARREZKOA DA"

GOZON BARANDIARAN
SORTZAILEA ETA KULTUR ERAGILEA

Kulturagintzan, egotetik egitera

Egiteko molde berriak asmatu beharko dira, luzeegi doa-eta euskal kulturagintzarentzat. Etxetik ari gara kulturagileen lanaz gozatzen, doan. Eta kobratu barik dabilta kulturagileak beraien onena ematen. Eskatzen digute kulturagintza zentsatzea bai herritarrei, bai udal zein bestelako erakundeei, eta kultur ekosistema osoari.

Alde egotetik alde egitera pasatzeko unea da orain. Goienaren zerbitzuak eskaini nahi dizkiegu Debagoieneko erakundeei kultura hel dadin kalitatez etxe barruraino.

Eta, Debagoieneko kultura aretoak "itxita eta gelditu" egotetik "itxita baina martxan" jartzera pasako bagina? Aukera daukagu kulturaren seinalea balkoietatik etxe bakoitzeko egongeletaraino sartzeko. Gertuko kulturagileak lehenetsiz eta euskal kulturagileak programatuz. Herri edo eskualdeko kulturagileak kontratatzea erabakiz eta horiek herritarrenganaino helarazi. Ez egonez, bai eginez.

Goiena telebistaren eta herrietako zein kulturagileen webguneen bidez egin ahal izango genuke zabalkundea. Gertuko edukia mimatuta eta bertako baliabideekin. Beharbada, tokatzen da denon diruetatik apustuak egitea egoera honetan ere euskal kulturagintza beharrezkoa dutelako herritarrek, ogia bezainbeste.

Iban Arantzabal Arrieta, Goienako zuzendari nagusia

tua...–. Gure deia zera da: elkartuko gara larrialdi egoerak ahalbidetzen digunean bakoitzaren proposamenak mahai gainean jarri eta adosteko, eta egingo dugu Euskal Herri osoarentzako den kulturagintza estrategia?".

Debagoiendarren sinadurak

1.100 atxikimendu baino gehiago lortu ditu ekimenak, eta horien artean badaude Debagoieneko sinadurak ere. Andoni Urzelai Aretxabaletako idazleak hauxe dio: "Zerbitzu-alorrarekin batera, infernutik gertuen dagoen sektorea da kulturarena, prekarioena, eta erabat ahaztua eta abandonatua dago". Horregatik egin duela bat grebarekin. Eta zera gaineratu du: "Kultura herri baten hezurdura da. Hori barik, kuriositate eta norabiderik gabeko jende-saldoa ginateke. Eta jana eta dirua bezain garrantzitsua, berriz, norbana-koentzat, zombi existenzial huts izatetik libratzen gaituen arma-zoia da".

Aritz Alustiza Bergarako musikariak ere bat egin du: "Kulturaz ideiarik ere ez daukaten politikariak dauzkagu, sentsi-

"KULTURA DA ZONBI EXISTENZIAL HUTS IZATETIK LIBRATZEN GAITUEN ARMAZIOIA"

ANDONI URZELAI
IDAZLEA

bilitate oso gutxikoak. Komunikabide publikoen jarrera kulturarekiko negargarria da, eta kontsumitzaileak ere kultura balioan jarri beharko luke. Egunotan ikusten ari gara kultur-gileak gizarteari egiten ari diren eskaintza, eta gai sozialetan hor gaude laguntzen, baina sortzaileak nork zaintzen ditu?"

Josu Zubia –Potx pailazoa eta Irazan Antzerki Guneko kidea– ere greba digitalera batu da, eta hauxe dio: "Egoera honen aurrean agerian geratu da erakundeek –Debagoieneko udalak baita ere– kulturarekiko duten ikuspegia oso murrizta dela. Ustedut kulturarena esparru zabala dela eta erantzunak ere halakoak izango beharko luketela; esango nuke aro baten amaiera daterrela eta egoera hau birpentsatzen hasi beharko dugula". Ane Zuazubiskar Arrasateko bertsoariak berretsi egin ditu Zubiak esandakoak: "Ikuspegi aldaketa egon beharko litzateke erakundeen aldetik; kulturari merezi duen garrantzia ematea beharrezkoa da".

Egoerak ikusarazi du kultur-gintzaren sarean askotariko profesionalak daudela, horien artean soinu eta argi teknikariak, eta horretan jarduten du bergarako Iñigo Herrerosek: "Kultur-gintzako parte garrantzitsua gara, gu gabe ez dago ekitaldirik". Kontzertuak, jaiak eta askotariko ekitaldiak antolatzen eta hainbat musika talderen manager lanak egiten ditu Haritz Zubiak arrasatearrak beste kide batekin duen Bidean Produzioak-ek: "Gure artean saretzea eta eztabaida soziala sortzea ezinbestekoa da egoerari buelta eman nahi badiogu".

Laguntza jasotzeko zailtasunak Herrialde guztietan ez da egoera bera; Frantzia, esaterako, lan kopuru zehatz bat egiteagatik langabezia moduko laguntza jasotzen dute sortzaileek. "Taldea ezberdinen *management* lanak eta kontzertu, jai eta jaialdi askoren produkzio lanak egiten ditugu; horrez gain, furgoneta

"KULTURGILEAK BETI GAUDE LAGUNTZEKO PREST; GURI NORK LAGUNDUKO DIGU?"

ARITZ ALUSTIZA
MUSIKARIA

batzuk ere baditugu eta talde batzuekin birak egiten ditugu. Martxoaren 13tik maiatz bukarrera bitartean, bertan behera geratu da dena eta guk epe horretan 60 bat emanaldi genituen lotuta eta inongo irabazi barik geratu gara, baina gastuak berdinak dira; eta gurekin lan egiten duten sortzaileei egoerak sortu dien galera ekonomikoa eta sentimentalak ere ikaragarria da. Ez da gauza erraza ikustea nola jausten ari den dena...", dio Zubiak, eta hauxe gaineratu du: "Autonomoak gara bazkidea eta biok; hortaz, autonomo kuota ez ordaintzeko laguntza eskatu dugu, eta eman digute; alarma egoerak irauten duen bitartean jasoko dugu, baina gero ikusi egin behar nola egingo diogun aurre... Alokairuarekin lotuta beste dirulaguntza bat ere bazegoen, baina, horrenbeste filtro eta baldintza daudenez, ezin izan genuen horretarako eskaera aurkeztu".

Iñigo Herrerosen enpresaren egoera bestelakoa da, ERTEa eskatu eta onartu egin dietela kontatu du: "ERTEak nominan gauden hiru langileei bakarrik eragiten digu".

Aurreko astean Eusko Jaur-laritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak aurkeztu zuen kultura arloko profesionalen laguntzen inguruan ez dute esperantza handirik adierazi Zubiak eta Herrerosek: "Oraingoz, ez dute ezer argitaratu BOEn; beraz, ez dakigu aurkezteko aukerarik ere izango dugun".

Egoera antzerakoa da sortzaileen kasuan ere; hala dio Andoni Urzelai idazleak: "Ni neu, iaz nobela bat garatzeko jasotako beka batekin, eta tarteka han eta hemen egindako lantxoekin –gidoiak, iragarkiak– bizi naiz, beste hainbat eta hainbat autonomo prekario lez. Eta guztiz txarto ere ez, gutxienik urte erdia salbatzeko aukera eman dit bekatxo horrek"; eta hauxe gaineratu du Alustizak: "Lerro hauen irakurleari eskatuko nioke hausnartzeko euskal sortzaileen egoeraz. Bejondeigula!".

"ERAKUNDEEK IKUSPEGIA ALDATU BEHARKO LUKETE KULTURA ZAINTEKO"

ANE ZUAZUBISKAR
BERTSOLARIA

"Zailtasun handiak izan ditugu ERTEa lortzeko, baina, azkenean, badugu"

IÑIGO HERREROS
R. SOUND ENPRESAKO KIDEA

R. Sound enpresako jabea da Iñigo Herrerros bergararra. Soinu eta argiztapen lanak egiten dituzte Euskal Herriko toki askotan.

Zelan zaude?

Osasunez ondo nago, eta egunerokotasunean lasai, baina, denon moduan, arduratuta, zer etorriko den jakin barik.

Nolako enpresa da zuena?

Hiru langile gara nominan, baina guretako eta beste enpresa batzuekiko lan egiten duten langile autonomoak ere baditugu urte osoan zehar. Udan, guztira, hamabi langile izaten gara, eta neguan bospasei. Sonorizazio eta argiztapen lanak egiten ditugu, kontzertuetan, batik bat, baina baita antzerkia eta dantza emanaldiak, bertso saioak... ere.


Zein da zuen egoera orain?

Orain dela astebete, ERTEan sartu ginen. Zailtasun handiak izan ditugu ERTEa lortzeko, dekretuak ez zuelako gure lana onartzen, eta paper pila aurkeztu behar izan ditugu lotuta zeuden kontzertu eta ekitaldiak COVID-19agatik egin ezin izan ditugula ziurtatzeko. Azkenean, onartu digute, eta, momentuz, hala gaude.

Horrekin, enpresako langileen onurak jasotzen ditugu, gu hiruronak, baina enpresarendako, berriz, ezer ez dugu jaso. Ikusiko dugu dirulaguntzak lortzeko zelako baldintzak jartzen dizkiguten... Enpresa *standby* puntuan geratu da; hala ere, hilean 800 eta 1.000 euro arteko gastu minimoa dugu; alarma egoera altxatzen denean ikusiko dugu...

Eta zuen langile autonomoen egoera zein da?

Egoera txarragoan daude horiek; izan ere, gehienek maiatzean ematen dute alta uda sasoko lanak egiteko. Une honetan alta emanda dutenek kotizatzen dutenaren araberako laguntza izango dute, baina autonomo ez



IÑIGO HERRERROS

direnak une honetan, maiatzean hasiko zirelako lanean, bada, langabezia kobratzeko aukera badute hori jasoko dute, eta bestela, bat ere ez.

Zenbat saio galdu dituzue?

Martxoaren 13tik gaur arte, 25 bat inguru, baina asteburu honetan hastekoak ginen gogorrago; hortaz, apirileko azken asteburu eta maiatza kontuan hartuta, beste 30 emanaldi genituen.

Eta kalte-ordainik edo beste konponbiderik jaso duzue?

Ezer ez dugu jaso. Nahi eta nahi ez, bertan behera geratu da dena; hortaz, ez daukate ezer ordaindu beharrik. Egoera normalean egonez gero, adibidez, euria egiten badu eta euriagatik ekitaldia bertan behera geratzen bada, erdia kobratzen dugu, edo aurretik, astebete lehenago-edo abisatzen badigute, gauza bera, hau da, erdia kobratzen dugu, eta ekitaldiko tokira bertara joaten bagara eta ekipoa

"ENPRESA 'STANDBY' DAGO, BAINA, HALA ERE, HILEKO 800 ETA 1.000 EURO ARTEKO GASTUAK DITUGU"

deskargatzen badugu, hitzartutako kopuru osoa; baina kasu honetan nahi eta nahiez izan denez, ez dugu ezer jasoko.

Alarma egoeraren aurretik Zaldibarko erraustegiko istripuaren ondorioak ere izan zenituzten, ezta?

Bai, hala da; hainbat kontzertu genituen Eibarko Inauterietan, baina orduan ere nahitaez bertan behera utzi zuten, horientatik ere ez genuen ordainik jaso.

Uda sasoiari izaten duzue lan kopuru handiena. Zer gertatuko da lan horiekin?

Urtean, gutxi gorabehera, azkeneko urteetako datuak oinarri, 300 emanaldi inguru egiten ditugu; horietatik 200 bat inguru uda sasoiari eta urte osoan zehar gainontzekoak; hortaz, udako irabaziak ezinbestekoa ditugu urtea aurrera atera ahal izateko.

Zein zen enpresaren egoera alarma ezarri aurretik?

Nahiko ona. 2008ko krisialdia gertatu zenean, gorantz gindoazen, eta, enpresa handiek krisia bizi izan bazuten ere, gure kasuan ez zen horrenbestekoa izan, hasten ari ginelako. 2008tik 2013ra mantendu egin ginen; hau da, ez genuen pikorik jo, baina bai da egia 2015etik aurrera salto garrantzitsua bat egin dugula urteko emanaldien kopuruan. Azkeneko bi edo hiru urteetan pasatu gara urtean 100 ekitaldi egiteko 300 egitera. Hor dago, alde batetik, guk egindako lanaren fruitua, baina, bestetik, esango nuke igoera izan zela antolatutako ekitaldien kopuruan ere. Aurrekontuak igo egin dira, gauza gehiago antolatzen dira.

Aurrekontuak igo diozu?

Baietz esango nuke; esaterako, azkeneko urteetan, kontzertu gehiago egin izan dira... Bezero berriak ere baditugu, baina ohiko bezeroekin egiten dugu lan, bereziki, eta, azkeneko hiru urteetan, bezero horiekin igo gara 150 ekitalditik 300era.

Harremanik baduzue beste espreekin? Zer diote?

Antzera gaude, ERTEan, eta denok dugun kezka da noiz hasiko garen; izan ere, garai honetan tresnerian inbertsioak egiten ditugu; adibidez, guk dirutza gastatu dugu argiztapen ekipoa berria... Eta orain zer?



Euskaraldiaren koloretako puntua Bergarako balkoi batean. EUSKARALDIA

Konfinamendutik, arnasa euskarari

Koronabirusak eragindako itxialditik hasi gura dute udazkeneko Euskaraldia prestatzen. Horretarako, askotariko ekintzak proposatu dituzte. Hasteko, koloretako borobila balkoian ipintzea, 'Etxealditik Euskaraldira' kanpainarekin bat egiteko

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
Elkar ikustea, besarkatzea eta ukitzea ia ezinezkoa den garai honetan, elkar komunikatzeko erabiltzen den hizkuntzari, euskarari, balioa eman nahi diote Euskaraldiaren antolatzaileek. "Inoiz baino gehiago dihardugu hitz egiten elkarrekin", diote. Hala, komunikatzeko erabiltzen den euskararen gaineko hausnarketa egiteko proposamena ipini dute martxan: *Etxealditik Euskaraldira* kanpaina, hain justu ere. "Etxealdian erabiltzen ditugun hizkuntza-ohiturak zeintzuk diren eta ohitura horien zergatien erreparatzea da proposatzen dugun ekimenaren helburu nagusia", esan du Euskaltzaleek Topaguneko presidente Kike Amonarrizek.

Hizkuntza-ohiturak euskararen alde aldatzeko hausnarketa pizteaz gain, Euskaraldiaren eta

hizkuntza-ohituen aldaketaren pedagogia soziala sortu eta etxean eta etxetik egiten diren harremanetan euskararen erabilera sustatu gura dituzte. Itxialdia aprobetxatu gura izan dute ekimena martxan ipintzeko, eguneroko harremanak "mugatua goak" direlako, eta, "erritmo pausatuagoan, hausnartzeko tartea hartzeko aukera handiagoak" egon daitezkeelako.

Dena den, antolatzaileek garbi azaldu dute iraupen mugatua izango duen kanpaina dela honako hau. "Egingarria, ez itogarria eta parte hartzeko aukerak

ETXEAN EGIN DAITEZKEEN ARIKETA GUZTIAK EUSKARAZ EGITEA PROPOSATZEN DUTE ANTOLATZAILEEK

zabaltzen dituen kanpaina izango da, eta Euskaraldia prestatzeko lagungarri. Partidu bat izango balitz moduan: etxealdian beroketa ariketak egin eta jokalariak entseatuko ditugu, entrenamenduetan egiten den bezala", diote antolatzaileek.

Bost fasetan

Eta nola egingo da kanpaina hori? Dagoeneko martxan dago. Bost fase ditu, eta gaur, apirilak 24, hasiko da laugarren fasea. Hain zuzen, *Proposamen fasea*. Horren baitan, aste batez, hilaren 30era arte, egunero ekintza-proposamen bat zabalduko dute antolatzaileek. Zerbait, herritarrek ordena jakin dezaten. "Egunerokotasuneko egoerei lotutako proposamenak izango dira: Whatsapp taldeetan euskaraz egitea, euskaraz afaltzea, euskaraz telebista ikustea..."

"Aldatzeko zailenak izaten dira etxeko hizkuntza-ohiturak"

RITA ALDABALDETRERU EUSKARALDIAREN KOORDINATZAILEA

Etxean egon behar den garai honetan, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko asmoarekin, gaurtik, astebetetz, ekintza ezberdinak egingo dituzte.

Planteatutako ekintza horiek praktikara eramango dituzue gero?

Bai. Lehenengo, gura dugu ikusi zeintzuk diren ohitura horiek. Proposatutako ekintzak etxean egiteko oso errazak dira: jolasak, bideo-deiak, jarduetan egitekoak... Ikusi behar dugu zein hizkuntza erabiltzen dugun horietan guztietan. Horiek barneratu, eta ostean, besteei erakutsi.



EUSKARALDIA

Edozein ohitura aldatzea oso zaila. Akaso, etxe barrukoak dira zailenak?

Ordu asko pasatzen gabilta etxe barruan, eta hausnartzeko une polita izan daiteke. Etxeko bakoitzarekin zer-nola komunikatzen garen ikusteko. Ze ohitura ditugun. Akaso, etxean lau pertsona bizi dira.

Guztiak dira euskal hiztunak, baina mahaiaren bueltan gaztelegaz egiten dute berba. Ohitura hori aldatzea oso zaila da. Baina hori lortu ahal izateko ipini dugu martxan ariketa kanpaina hau.

Kanpainaren baitan egiten dituzuen guztiak sare sozialen bidez partekatuko dituzue. Birtualki guztiengana heltzeko modua da hori.

Lehenengo Euskaraldira ateratzen gure ondoan bat izan zen mundu birtualetik ere eragile izan gaitzkeela. Horregatik, oraingo ariketa sare sozialen bidez partekatuko ditugu. Konfinamenduan kontaktu birtualak ditugu egunero. Ez daukagu beste modurik. Hortaz, gure ariketak ere erakutsi ditzagun Interneten.

Koronabirusak eraginik eduki du aurten Euskaraldian?

Bai, bereziki lan egiteko moduan. Egoera berrira ohitzen goaz. Hori bai, Euskaraldiaren data ez dira aldatu.


Koloretako puntua

Proposamen Fasea deigarriagoa egite aldera, Hausnarketa Fasean –hirugarrena–, kanpaina parte hartzen dihardutenek koloretako borobila ipini dute balkoietan. Eta eurena izango da azken fasea. Bosgarrena. Maiatzaren 3an egiteko asmoa dute, kanpainari borobiltasuna emateko, parte-hartzaileek sortutako zerbaiten bidez, komunitateari ikusgarritasuna emateko.

Azaroaren 20tik

Oraingo kanpaina egindako ariketa guztiek balioko dute udazkenean egingo den bigarren Euskaraldirako. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte. Entitateei eta horko kideei ariketan parte hartzeko gonbidapena egingo zaie, euren hizkuntza-ohiturak aldatzeko urratsak egiten has daitezten.

EUSKARALDIRAKO SORTUTAKO SARE SOZIALEN BIDEZ PARTEKATZEKO ESKAERA EGIN DUTE



Joseba Erostege, emaztearekin eta anai-arrebekin, kartzelatik irten berri. GOIENA

"Neurriak gaizki eta berandu hartu dituzte funtzionarioek"

Gure Artera-Sarek salatu du euskal presoek espetxeetan bizi duten egoera: inkomunikatuta, babesgarri barik eta kutsatzeko arriskuarekin. Konfinamendua etxeetan pasatzeko egindako gomendioarekin bat egiten du elkarteak

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE Koronabirusaren pandemia hasi zenean, Gure Artera-Sarek bere kezka plazaratu zuen COVID-19ak espetxeetan sortu ahal zituen ondorioen eta arazoengatik. Horren harira, Europako hainbat erakundek, besteak beste, Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak, hainbat neurri hartzeko gomendioak helarazi zituzten. Gomendioak ziren: adineko presoak, gaixotasun larriak dituztenak edo kondena zutenak aske uztea, espetxeak mota honetako pandemia bati aurre egiteko lekuri egokiena ez direla iritzia. "Sarek irmo salatzen du Espainiako Gobernuak eta bere justizia administrazioak ez dituztela aintzat hartu gomendio horiek. Erresuma Batuak eta Kataluniako preso asko libre utzi dituzte,

konfinamendua etxean pasa dezaten", esan du Sareko Bego Atxak. "Estatu frantziarra, espainiarra eta Turkia dira preso politikoei ate guztiak itxi dizkieten estatuak. Neurri hau erabat bidegabea, arbitrarioa eta zigortzailea da, eta garbi erakusten du hiru estatuen izaera ez aurrerakoa eta mendekaria", gaineratu dute.

Birusa espetxeetan

Sare Herritarrak, bestalde, salatu du Espainiako Gobernuak ez dituela espetxeetako kutsatuen datuak ematen. "Baditugu datuak

GOBERNUAK DATUAK EMATEN EZ DITUEN ARREN, COVID-19A KARTZELETARA HELDU DELA DIO SAREK

esateko birusa gogor sartu dela kartzelatarara, eta espetxe askotan COVID-19a dutela bizikide. Besteak beste, Picassenten, Briecan, Kordoban eta Estremeran, Horrietan guztietan, euskal preso asko daude", dio Atxak. "Funtzionarioek neurriak gaizki eta berandu hartu dituzte, egoeraren larritasunaz jabetu barik edo ardura barik. Neurri oso gutxi hartu dira. Presoendako ez dago segurtasun babesgarririk, eta egoera horrek urduritasuna eta kezka piztu ditu presoengan. Kasu askotan, presoaren arteko liskarrak egon dira", gehitu dute.

Alarma egoeraren ondorioz konfinatuta dagoen gizarteak bizi duen egoerak kartzelatan daudenek bizi dutenarekin zeharrik ez duela azpimarratu dute Saretik. "Mundutik erabat isolatuta daude. Ez daukate komunikazio arruntik ez aparte-

korik. Euskal presoek, gainera, ez dute bideo-deirik egiteko aukerarik. Hori horrela, kezka eta larritasuna areagotu ditu barrukoaren eta senideen artean".

'Ume motxiladun'-ak

"Isolatuta" egote horrek eragin zuzena dauka senideengan, eta *ume motxiladun*-engan. "Aita, ama edo biak etxetik oso urrun dituzten 100 umek baino gehiago ez daukate komunikaziorik gurasoekin. Umezurtz daude. Alferrikako krudelkeria da, eta konfinamendu bikoitza dakarkie alde biei", esan du Bego Atxak.

Bailarako zortzi

Debagoieneko zortzi preso daude egun: Alizia Saez de la Cuesta gatzagarra; Marixol Iparra-girre eskoriatzarra; Garikoitz Garcia aretxabaletarra; Unai Parot eta Josu Arkauz arrasatearrak; eta Angel Telleria, Xabin Usandizaga eta Joseba Arregi oñatiarrak. Joseba Erostege *Eltzikorta* martxoaren 15ean aske geratu zenetik, ez dago gaixotasun larriarik duen bailarako presorik. "Angel proba

batzuen emaitzen zain dago. Besteak ondo daude osasunez, baina kondena luzeak eta gogorak betetzen. Horrek eragina dauka egunerokotasunean", esan du Debagoieneko Sarek.

Pandemiarekin, 60 urtetik gorakoak arrisku taldean sartzen dira. Adin tarte horretan daude Arregi, Telleria, Parot, Arkauz eta Usandizaga.

Bestalde, hiru laurdenak beteta, kalean beharko lukete Usandizagak, Arregik, Parotek eta Arkauzek. "Unairen kasua azpimarratzekoa da. 30 urteko kondena osoa bete arren, berriro zigortu eta beste 11 urte betetzea falta zaizkiola erabaki zuten. Bestalde, Josebari eta Josuri beste estatu batean betetako zigorra ez diete aintzat hartu. Neurri hori aplikatuta, kalean beharko lukete".

Martxoaren 15a ezkerre ez dute senideen aurrez aurreko bisitarik jaso, eta ez dakite noiz arte luzatuko den debeku hori. "Bailarako presoaren gurasoak adinean aurrera doaz eta bidaiatzeko arazoak dituzte. Orain, telefonoz ere ezin dute euren seme-alabekin berba egin", diote.

"Kartzelak masifikatuta daude"

Euskal Herriko, Palestinako eta Kolonbiako presoek COVID-19ak eragindako osasun krisia nola bizi duten kontatzeko mintegia egin zuten hilaren 17an, Bakea Eta Duintasuna elkarteak deituta, sare sozialen bidez. Bergarako Txapa Irratiak zuzenean eman zuen mintegia, eta han elkartu ziren euskal preso politikoen eskubideen aldeko hainbat elkartetako ordezkariak. Bakea Eta Duintasuna elkarteak kide Eneko Callek zuzendu zuen mintegia. "Munduko kartzela guztiak daude masifikatuta, eta halako pandemia baten aurrean hartu beharreko lehen neurria da masifikazioa bukatzea. Bada, gobernu askok ez dute hori egin. Ez dute inolako neurririk hartu kutsatzeak ekiditeko. Are gehiago, preso horietako askok oraindik kartzelan jarraitzea tortura mota bat dela esango nuke. Funtzionarioek sartu dute birusa kartzelatan", esan du.

Beste justizia eredu bat

Mintegian, bereziki, Espainiako, Frantziako, Turkiako, Kolonbiako eta Palestinako kartzelatan dauden preso politikoen gainean egin zuten berba. "Herrialde ezberdinak dira, baina errepresio mota berbera erabiltzen dute. Preso politikoen aldeko kolektiboek aldarrikapen berbera dute: preso guztiei eskubide berak aitortzea eta bermatzea. Are gehiago, preso politikoen kasua. Eta hori da zabaldu behar dugun mezua".

Mintegian parte hartu zutenek amesten dute kartzela bako gizarteak. Beste justizia eredu baten aldeko gizarteak. "Justizia politikoa oinarritzen ez den eredu aipatu genuen mintegian. Kolonbian, adibidez, indigenen justizia erabiltzen dute. Euskal Herrian justizia feminista landu da azken hilabeteotan. Beste eredu batzuk topatu behar ditugu, eta posible dira, gainera. Baina, bien bitartean, neurri batzuk hartu behar dira presoaren adina, betetako zigorra eta duten gaixotasuna kontuan hartuta".



ZABALIK

VALEN MOÑUX

Gogoetarako denbora

Krisi izugarri honen ondorioak ezin dira kalkulatu gure gizarteko sektore guzti-guztientzat.

Arrazoi pertsonalengatik, bereziki sentikorra naiz kultur sektorean, bereziki musikan, sortu den gertakariarekiko.

Ehunka jarduera daude, eta, denbora gutxian, kutsatzeak saihesteko neurri egokiak hartuz berriz hasiko direnak "distantzia soziala" gordez.

Baina noiz ikusiko ditugu berriz esparru eszenikoen besaulkiak okupatuta? Eserleku bakoitzak berrogeita hamar zentimetroko zabalera izaten du, eta eserleku baten eta aurrekoaren arteko ohiko distantzia metro bat baino gutxiagokoa da.

Baldintza horietan, plazen ehuneko hogeitaz baina ezingo lirateke okupatu.

Adibidez, gehienez ehun eta hogeitaz pertsona Udal Pilotalekuko kantxako besaulkietan edo berrogei ikusle baino gutxiago Seminarixean.

Tokiko adibide hau milaka jarduera eszenikotara eramateak, horien biziraupena ikusleen erantzunaren arabera izanik, hotzikara ematen du.

NOIZ IKUSIKO DITUGU BERRIZ ESPARRU ESZENIKOEN BESALKIAK OKUPATUTA?

Hala eta guztiz ere, uste dut badela beste sektore bat bereziki larritzen gaituena guztiok; izan ere, egunez egun, gure bizitzek izan duten iraulketa izugarria jasaten dugu, saltokiak eta ostalaritza-establezimenduak itxi direlako. Testuinguru

horretan, Udalak *Herriko komertzioa Bergararekin, Bergara herriko komertzioarekin* kanpaina jarri du martxan. Bertan, erabateko protagonismoa ematen zaie merkatariei, eta haiek beren irudia eta ahotsa eskaintzen dituzte etxeko bideo txikiekin. Kanpaina sinplea bezain eraginkorra da, eta ni, pertsonalki, zeharo hunkitu nau. Hain da horrela, ezen erabaki pertsonala hartu baitut: *Amazon, Zalando, online* erosketak, hiriburuetak frankizia handietan erosketak... ahaztea, gutxienez urtebetez, berriro irekitzen denetik.

Artikulu apal honetan argitara ematen dudan jarrera da, eta nire herrikideak animatzen ditut aipatutako kanpainari arreta jartzera.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Lasterka dabilen oiloa

BLANCA URGELL

[HTTPS://LABUR.EUS/HKXGO](https://labur.eus/hkxgo)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Kultura hitzak beti dakarkit burura *goldea*, Schuchardtek euskarazko *golde* latinezko *culter* hitzetik (oker) azaldu eta nik jakintzat eman bainuen (oker) erromatarrek *culter* delakoarekin goldatzen zutela lurra.

Gaur ikasi dut, zutabe honi esker, *culter* aitzoaren izena zela, eta *kutxilloa* beraren txikigarritik datorrela.

Dena den, *kultura* etorri badator latinez goldatzearekin zerikusia zuen hitz familiarrik: *colere* "lurra lantzea"

infinetiboa, *cultus* partizipioa, eta abar.

Metaforarik metafora, kulturarik kultura ere bai, adiera asko batu ditu kulturak: "lantzea" izatetik "gogo ahalmenak lantzea" izatera –Euskaltzaindiaren hiztegiak lagundu dit–, handik nazio bati egozten zaizkion ezaugarrien bildumara, XIX. mendetik aurrera batik bat, eta XX.ean naturak gizarteari eman ez dion gainerako guztiaren adiera zabalagora.

Halere, "kultura greban dago" entzuterakoan, adierak ez, baizik eta aurpegi jakinak datozkigu burura, sortzaileak aurrenik apika, baina doi bat pentsatuz gero antolatzaile eta teknikariak, bitartekari,

zaintzaile, saltzaileak, baita hezleak ere (noski). [...]

Adituek luze eta sakon azaldu dute nola heldu garen honetara, baina, benetan: nola demontre heldu gara honetara? XIX. mendeko agintari bibotedun haiek itxurak egiten zituzten, behintzat.

Gaurkoak, aldiz, nola atera guggenheim, bisita gidatu eta lehoi erregeetatik?

Dirutan neurtzen ez diren irabaziak eta berehalako etekina ematen ez dutenak aintzat hartzen ez dituen gizartea bururik gabe lasterka egiten duen oiloaren antzekoa da.

Lasterka habil bai, baina nora hoa?

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Begarako Udala



Oñatiako Udala



Arexabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Debagoieneko Ospitalean ez da koronabirus kasurik"

IÑAKI PEÑA DEBAGOIENENKO OSPITALEKO MEDIKUA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Debagoieneko Ospitaleko barneko medikuak egungo egoeraren gainean dihardu. Dio beste ospitale batzuetan ez bezala Arrasatekoan egoera ez dela horren kaotikoa izan. **Osakidetzak aurreratu du beste egoera baten gaudela: koronabirusak kutsatutako pazienterik bako egoera baterantz goazela.**

Arrasaten astelehenetik gaude egoera honetan. Trantsizio egoeran gaude. Esan genezake une honetan [atzo, eguna] Debagoieneko Ospitalean ez dagoela koronabirusak kutsatutako pazienterik. Ez da positibo kasurik. Hemendik aurrera, koronabirusa izateko susmoa izan dezaketen eta larrialdietara etorriko diren pazienteak bideratuko dira Gasteizera. Normaltasunera itzultzen hasi gara.

Entzun da Debagoieneko Ospitalean badirela kasu bi. Ez, une honetan ez da koronabirus kasurik



Iñaki Peña Debagoieneko ospitalearen aurrean, egunean. IBAI ZABALA

Debagoieneko Ospitalean. Badaude paziente batzuk ingesatuta, baina une honetan negatibo eman dute. **Ospitaleko langileok ere normaltasuna berreskuratu duzue?**

Trantsizio une batean gaude. Poliki-poliki joango gara berreskuratzen, esaterako, ebakuntza-geletan aktibitatea. Astelehenetik aurrera nahiko genuke ebakuntzekin hastea. Eta gauza bera kontsultekin

ere. Ez da izango egun batetik bestera, era progresiboan izango da. Koronabirusik bako ospitalea izatetik gertuago izango gara.

Egon daitezke oraindik ere gorakadak edo koronabirus kasu berriak?

Toki guztietan joera da beherakoa. Ez dugu aurreikusten pasa dugun egoera horretara itzultzea. Ez zaigu hori burutik ere pasatzen.

Baduzue protokolorik zehaztuta? Koronabirus kasu berriak hara edo bestera bideratzea?

Gasteizeko ospitaleetara bideratuko ditugu, bai. Gerta daiteke, dena den, kasu batzuetan, gaixo kronikoak edo adindunak Gurutze Gorrira, Donostiara edota Eibarko ospitalera bideratzea. Larrialdietara heltzen diren kasu susmagarriak Gasteizera bideratuko dira.

Debagoieneko Ospitalean koronabirus kasurik ez egoteak ez du esan nahi, ordea, etxeetan eta ez dagoenik, ezta?

Etxeko ospitalizatzeak jarraitzen du eta etxean gaixo daudenen artean koronabirus kasu positiboak badaude. Hortaz, esandako moduan, horiek ingesatzeko beharra balego, hasieran, Gasteizera bideratuko lirarteke.

Madrilen, bereziki, baina baita beste ospitale batzuetan ere egoera gogorrek eta kaotikoak izan direla entzun da. Halako egoeran izan zarete Debagoieneko Ospitalean?

Hori hemen ez da gertatu. Gipuzkoan koronabirus kasu gehien izan den ospitaleetako bat izan da Arrasatekoa, baina Gipuzkoan eta Arrasaten ez da kaos egoerarik sumatu. Gasteizen, akaso, baina, betiere, Madrilen gertatutakotik urruti. Madrilen, Pergamon eta halakoetan gertatutakoak ez ditugu hemen ezagutu. **Ospitaleko langile guztiei egin dizuete testak?**

Orain hasi dira profesional guztioi egiten. Egunotan ari gara.

Barneko mediku moduan esperientzia handia duzu. Halako egoera gogorrik bizi izan duzu?

Bizi izan ditugu, denbora laburrean eta egunero, kezka handia, ziurgabetasuna, albiste txarrak... Hori gogorra izan da. Horren debora luzean, ziurgabetasuna ez dut ezagutu, eta bizi izan ditugu une latzak ere. Aurten bertan, urtarrilean eta otsailan, aktibitate gogorra izan dugu. Urtero izaten da horrela sasoi horretan. Aurten, koronabirusagatik, baita martxoan ere.

ITURRI ONETIK

Kultura zuzenean, publiko bako aretoetatik

Goiena Komunikazio Taldea harremanetan da BBK Aretoak ekimeneko arduradunekin, haien Interneteko plataforman eta Bilboko telebista lokal baten publiko barik eskaintzen diharduten kultur ekitaldiak Goiena telebistan ere emateko. Kultura Etxeraino izenpean, Belako, Benito Lertzundi, Kukai... ikus ahal izan dira. Bestetik, horrelako ekimen bat abian jartzeko harremanetan ari da Goiena bertako udalekin. Bertako kultur gileei eta herritarrei aukera bat ematea da asmoa.

ALBISTE IZAN ZEN

2015-04-19

Arizmendarrieta jaio zela 100 urte bete ziren

On Jose Maria Arizmendarrietaren jaiotzaren mendeurrena ospatu zuten Markinan eta Arrasaten. 1915eko apirilaren 15ean jaio zen Arrasateko kooperatiba mugimenduaren sortzailea, eta Mondragon taldeko buruek -garai ezberdinetakoak- eta harekin batera aritu zirenek bereziki gogoratu zuten. Iñigo Urkullu lehendakariak -Jose Maria Ormaetxea eta Alfonso Gorroño goitiarekin- ere hartu zuten parte ospakizunetan.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Greba digitala, nabaria sare sozialetan

Martitzenean eta eguaztenean kultur gintza arloan egindako greba digitalak oihartzuna izan du sare sozialetan:

@reperkusionfem: "Gure danborrek ez dute zaratarik egingo. Gure buruak ez dira ikusgai. Baina #Feminismo eta #Kultur gintza-tik aldarrikatzen jarraitzen dugu".

@uxueberexi: "Sorkuntzak salbatuko gaitu. #kultur gintza #grebadigitala".

@borobilteatroa: "Ikus gaitzazuen desagertuko gara, entzun gaitzazuen isilduko gara".

@artefaktua: "Atzo eta gaur, guk ere #GrebaDigitala".



NAIARA GOIA

MONDRAGON TALDEKO NEGOZIO ETA GIZARTE ERALDAKETARAKO BERRIKUNTZA ARDURADUNA

Ausardia eta lidergoa

Mundua hankaz gora jarri du pandemia honek, edo, agian, hobeto esanda, dagoeneko hankaz gora zegoen mundu hura zuzentzeko bidean jarri du, momentuan distopiatik gertuago den mundu arrotz bati bidea emanez. Azaleratu ditu egungo sistemaren gabeziak eta zuloak, are hauskorrago egin ditu egoera zaurgarrian dauden gizataldeak, agerian jarri ditu egungo globalizazioaren testuinguruko botere-talkak. Bestalde, ordea, balioan jarri ditu gure indarguneak ere: osasun-sistema publikoaren gaitasuna, gizarte-zibilaren solidaritatea eta elkartasunerako bokazioa, auzolana, zientzia alorrean ikerketaren garrantzia eta ikertzaile-sareen lana, komunitatearen indartzea, batzuk aipatzearen.

"Ez gara normaltasunera itzuliko", diote egunotan sare sozialetako lerroburu nagusiek. Egunero informazioa eta datu berriak andanan sartzen ari zaizkigun honetan zaila da aurreikuspenik egitea, ezer berdina

izango ez den etorkizun hori irudikatzeko ariketa egitea.

Hala ere, baikor izateko motiborik ere badugu: ia aurrekaririk gabeko krisi baten aurrean erreakzionatzeko, eta mundua gelditzera eramanez erabakiak hartzeko gai bagarela ere erakutsi dugu. Egin al dezakegu antzekorik ate joka ditugun eta erantzun azkarra eskatzen duten beste larrialdiek? Klima larrialdiaz ari naiz, adibidez; eta, zentzu horretan, aste honetan Europan aliantza handi bat sortu da koronabirusaren ekonomia-krisiari irtenbide berdea emateko. Hainbat ordezkari politikok, enpresa-zuzendarik, sindikatuk eta gobernu kanpoko erakundek Europako

GUREAK BAINO EZ DIREN BALIOAK OINARRI HARTUTA ATERA BEHARKO DUGU KRISITIK: ELKARTASUNA, KULTURA PROPIOA...

Batasunari eskatu diote atzeraldi hau gaintzeko klima-aldaketaren aurkako borrokaren eskutik joateko, printzipio ekologikoetan oinarritutako neurriak hartuta. Hain zuzen, ziurgabetasunez betetako egoera berri honek hori eskatzen du, krisi berriei eta aurreikusitako ezin ditugun disrupzioei ausardiaz eta determinazioz erantzuteko gaitasuna izatea, eta lankidetzan oinarrituz beharrezko sinergiak sortzea, Europako ekonomia berreraikitze bidean.

Edonola ere, pandemia osteko krisiari heltzea tokatzen zaigu orain. Nik guretik begiratu nahiko nioke COVID-19 osteko mundu horri, euskal gizartetik. Guri dagokigulako gure indarguneetatik erantzun eraginkorra ematea eta izan nahi dugun mundu horren baldintzak sortzea. Izango dira krisiak gehien kolpatuko dituen sektoreak, eta urgentziaz hartutako neurriak eta erabaki sendoak beharko dira krisiaren eragina gutxitu eta sektore ezberdinak berrabiarazteko edo suspertzeko. Egitura sozial eta

ekonomikoetan ez ezik, COVID-19aren krisiak eremu ezberdinetan utziko ditu ondorioak: arlo zibilean, politikoan, kulturen, euskalgintzan, eta baita herri-egitasmoetan ere. Arlo horietan guztietan datozen erronka konplexuei aurre egiteko erantzun bateratuak behar ditugu, apustu sendoak eta ausartak egiteko gai diren lidergoak, norbanakoaren interes partikularrak albo batera utzi eta eragile ezberdinen artean adostutako joko-arauak plaza berrian.

Eta baditugu horretarako gureak baino ez diren balioak, eta haiek oinarri hartuta atera beharko dugu krisitik: elkartasuna, komunitate-zentzua eta egiteko modu komunitarioak, kultura propioa, berdintasuna... Egin diezaiozun aurre krisi honi hauek aldarri hartuta, momentu sortzaile berri bati bide eman, kultura demokratikoan sakonduz, komunitatea ahaldunduz eta gobernantza eredu berriei bide emanez. Hori eskatzen duten tamainako erronkak ditugu aurrez aurre, eta orain arte erabilitako egiteko moduak ez dira aski. Bada horretarako borondaterik?



ESTEBAN UMEZ

ABOKATUA

Beldurrak eta itxaropenak

Goienak artikulu hau idazteko gonbidapena luzatu zidanean, ezezkoa izan zen nire lehendabiziko pentsamendua. Gaia: pandemia honen ostean, ze ikasi dugu? Nik zer dakit, ba. Hilabete eta lau egun daramat etxe barruan sartuta, kalea zapaldu gabe, osasun krisia ez da oraindik amaitu eta ez dut nire burua galdera horri erantzuteko gai ikusten. Tira, Sergio sekulako tipo majoa da eta ez diozu, ba, muzin egingo. Asma ezazu zer edo zer, Umerez.

Etxe barrura begira, bai, dagoeneko zerbait ikasi dut.

Arlo materialean: eskuko ordenagailua, telefonoa eta Internet konexioa bakarrik behar ditudala bulegoan bezainbesteko lana egiteko, eta gusturago.

Arlo garrantzitsuagoan: familian nola moldatzen ari garen ikustea. Emazteak, seme-alabek eta euren etxeetan bakarrik dauden ama eta amaginarrebak nolako indarra erakutsi duten ere ikasi dut.

Baina etxeko leihotatik kanpora, auskalo, etorkizunari eta munduari begira, zer pentsatu ez dakit. Oraindik ez, behintzat. Eta denbora luzean jakingo ez dugula iruditzen zait. Une honetan, beldurrak eta itxaropenak ikusten ditut, nazioarteko osasun krisi hau laster krisi sozial, politikoa eta ekonomiko bihurtuko delako. Edo dagoeneko bihurtu delako.

Beldurra zerk ematen dit? Demokrazia liberalen krisi sakonak, gehien. Populismo eta nazionalismo handi zein txikiak aspaldi ari dira kausetik probetxua atera nahian, eta pandemia honek aukera berriak sortu ditu dagoeneko nahiko ahul dauden erakunde eta printzipio demokratikoak areago erasotzeko, harik eta eraitsi eta boterea populisten esku utzi arte. Eta kasu, populistak ez dira hura edo bestea. Populistik zu eta biok ere bagara. Demokraziak sekretu bakarra dauka: guztion arteko oreka eta muga. Historian inon eta inoiz lortutako askatasun maila handiena

erdietsi dugu, baina askatasun hori nahitaez da mugatua. Eskubideak nahi beste aldarrika ditzakegu, baina badakigu horiek betebeharrak dakartzatela, eta gure askatasunak ondokoaren askatasunean aurkitzen duela muga. Komunitatearen tamaina edozein delarik ere, urrezko araua berbera da: gehiengoaren nahiak agintzen du, baldin eta gutxiengoaren funtsezko eskubideak bermatzen baditu. Oreka horri esker bizi gara, hainbestean, munduak sekula ezagutu duen garai oparoenean. Oreka hori apurtzen hasten garenean, gure nahiak gauzatzeko eskubide mugagabea dugula sinesten dugun unean, orduan bilakatzen gara populista, eta norbaitek bere onurarako erabiliko duen kaosaren iturburu.

Badugu dagoeneko hainbat ordezkari politiko, ezker zein eskuin, gure behar, amets edo gurari oro asebetetzeko eskubide mugagabea dugula xuxurlatzen diguna eta, okerrago,

berak hori bermatzeko gaitasuna duela agintzen diguna. Arrakero oportunistak, besterik ez.

Baina gure bihotzen barrenean jakin badakigu herriak, gizarteak, estatuak ezingo digula sekula nahi dugun guztia eman. Ezingo gaituela sekula gaitz guztietatik babestu. Gure ahalmenak, eskubideak, askatasunak, guztion arteko orekan gauzatzen ditugula.

Egun hauetan zer ari gara ikasten? Guztiok dugula guztion beharra, eta ezer eskatu gabe, bakoitzak bere apurra eskainita egiten garela erraldoi.

Berdin dio komunitatearen tamainak: auzo, herri, Herri, Estatu, kontinente edo planeta. Guztiok bat garela ari gara ikasten. Eta horrek itxaropena ematen dit.

GURE BIHOTZEN BARRENEAN JAKIN BADA KIGU HERRIAK, GIZARTEAK, ESTATUAK EZINGO DIGULA SEKULA NAHI DUGUN GUZTIA EMAN

**IÑAKI GOITIA**
FILOSOFOA ETA IDAZLEA

Askatasuna vs segurtasuna

Gizakia omen da harri berean bi aldiz estropezu egiten duen animalia bakarra. Edo George Santayana filosofoaren arabera: "Iragana gogoratu ezin dutenak errepikatzen kondentatuak daude". Albert Camus filosofoak *La peste* eleberrian idatzita utzi zuen beste esaldi hau, nahiago baduzue: "Historian zehar izurrite eta gerrak zenbatezinak izan dira, eta hala ere, beti aho zabalik uzten dute gizakia".

Ez du hutsik egiten; behin eta berriro itzultzen gara esaldi honen magalera –funtsean hiru esaldiek gauza bera baitiote–, esate hutsak nolabait akatsetik aterako bagintu bezala. Baita bete-betean harrapatu gaituen COVID-19 delako pandemia honetan ere.

Batek baino gehiagok salatu du jakinaren gainean geundela, adituek urteak zeramatzatela pandemia bat etortzekoa zela ohartarazten. Eta ez geundela prest horrelako hondamendi bati aurre egiteko.

Bi kasuetan asmatu dute; hemen dugu, eta argi geratu da pandemia hau kudeatzeko modua ez dela egokiena izan.

Byung-Chul Han filosofo hegokorearraren esanetan, Asiako herrialdeek, Txinak, Japoniak, Koreaa, Hong Kongek, Taiwanek edo Singapurrek, esaterako, krisia hobeto kudeatzen jakin dute. Herrialde hauek zaintza digitala eta *big data* erabiltzen dute biztanleria kontrolpean izateko. Txinan, batez ere, disidente gutxi batzuen kritika izan ezik, bizitza pribatuaren urraketa honen kontrako ahotsik ez da nabarmentzen. Txinan gobernu diktatoriala dagoela esango didazue, baina egoera ez da askorik

PREST GAUDE URREZKO KAIOLA BATEN BIZITZEKO? GIZAKIA DELA PANDEMIARIK KONTROLAGAITZENA AITORTZEKO?

aldatzen Japonia edo Hego Korea bezalako estatu liberaletan. Konfuzianismoaren tradizio kulturaletik eratorriak izaki, pentsamolde autoritarioa dute, oso esanekoak eta zorrotzak dira, eta Estatuarengan fede itsua dute. Gauzak horrela, normalizat dute Estatu polizial digital hori, eta ez dute arazorik beraien pribatutasuna segurtasunaren mesedetan jartzeko.

Hau guztia pentsaezina da Europan. Hemen, Asian ez bezala, gizataldea gizabanakoaren zerbitzura dago. Europaren erantzuna konfinamendua eta mugen itxiera izan da. Neurri kamutsak, antza. Izan ere, ez genuke inoiz onartuko gure datu eta pribatutasunaren urraketarik. Edo bai?

Neurri batean, dagoeneko antzeko zerbait jasaten ari gara, egungo egun. Mugikorren bitartez gure bizitza pribatuaren nondik norakoak ez du sekreturik. Algoritmo bat besterik ez gara.

Orduan? Asiako herrialdeetako Estatu polizial digital horretara bideraturik al gaude?

George Orwellek *1984* eleberrian horren modu zehatzean aurreikusi zuen distopia antzeko batera, agian? Non dago muga, inon izatekotan?

Egia da pribatutasun horren ordainetan bizitza errazagoa daramagula zentzu askotan, agian askatasun galtze hori jasagarriago egite aldera edo.

Egia da ere delitu bati aurre egiteko orduan oso lagungarri suerta dakigukeela, eta pandemia baten kasuan bizitza asko salbatuko lituzkeela.

Baliteke Jean Paul Sartrearen esaldiaren ifrentzuan gizakia aske ez izatera kondenatua dagoela idatzia egotea. Prest al gaude hori onartzeko? Urrezko kaiola baten bizitzeko? Gizakia bera dela pandemiarik kontrolagaitzena aitortzeko?

Mikel Laboak txoria maite zuen, guk askatasuna maite dugun bezala. Eta txoria hegoak behar ditu txori izateko; askatasunak pribatutasuna aske izateko.

**MIREN JOSU ARRAZOLA**
ETB-KO KAZETARIA

Aro aldaketa dator

Irailaren 11ko atentatuak New Yorken. Hegazkinak arma bihurtuta. Baina horrek ez gintuen atzera egitera bultzatu eta ia 20 urte geroago hirukoiztu baino gehiago egin dira hegazkin bidaiariak mundu osoan. Nork esango zuen 2001eko egun haietan! COVID-19aren ondoren ere batek daki nora joko duen munduak.

Ia bi hilabete dira gaixotasun berria Euskal Herrira iritsi zela. Aretxabaletara, hain zuzen, lehenengo bi kasuetako bat. Indar guztiak osasun larrialdiari aurre egiteko jarri dira, baina jarduera ekonomikoa eta bizimodu berri bat berreskuratu beharko ditugu. Eta nolako eredu nahi dugun erabakitzeke unea da: egoera honetara ekarri gaituen berbera?

Birusa bereziki arriskutsua da adinekoentzat, eta zaharren egoitzetan bizi direnak jo ditu gogorren. Hildakoen erdiak erresidentzietako egoiliarrek dira. Denbora beharko da tragediaren benetako neurria

argitzeke. Baina sakoneko aldaketa behar du adinekoen zainketa instituzionalizatuak. COVID-19aren aurretik ere sektorea krisian zegoen, lan gatazkan murgilduta aspaldi. Urtetan langileak lan baldintzak salatzen ari dira eta baliabide gehiago eskatzen dituzte egoiliarrei arreta, denbora eta zainketa duina emateko. Zerbitzua gehienetan publikoa izanik ere, kudeaketa pribatua da. Enpresek kontratua eskuratzeko eskaintza ekonomiko baxua egiten diote administrazioari eta, ondoren, etekina ateratzeko zerbitzua eta lan baldintzak estutzen dituzte. Zainketa eta negozioa ez dira ondo uztartzen. Eta koronabirusak oso gordin azaleratu du hori.

COVID-19aren beste foku handia ospitaleak dira. Harro egon ohi gara gure osasun ereduaz eta harro egoteko da. Eta eskertuta gaude langile guztiekin. Izugarria da osasun larrialdiari ematen ari diren erantzuna, ezinbestekoak diren

prebentzio neurririk gabe, euren osasuna arriskuan jarrita ere. Izan ere, babes ekipamendu, diagnostiko eta tratamendurako tresnen gabezia larria daukagu osasun krisia hasi zenetik.

Globalizazioaren akatsak argitara atera dira. Maskarak, arnagailuak eta testak hil ala biziko gaiak dira eta gehienak Txinan egiten dira. Orain, munduko herrialde guztiek aldi berean behar dituzte eta ezin da behar hori ase. Eta lotsagarria da gai horiek erosteko dagoen espekulazioa eta amarrua.

Europako agintariak jabetu dira produkzio ahalmena berreskuratu behar duela Europako Batasunak.

Izan ere, adituek argi daukate horrelako birus gehiago etorririko zaizkigula. Zientziak ohartarazi du ekosistemak suntsitzen ditugunean bidea irekitzen dizkiegula birusei animalietatik gizakiarengana salto egiteko, eta zoonosi berriak gertatuko direla zalantzarik ez dago.

Baina aurrena, honetatik irten behar dugu.

Hondamen handia datorkigu eta inbertsio publikoa indartu behar da guztion bizi baldintzak bermatzeko. Politika munduan ikusten ari gara ez da oso lasaigarria, eta gizarteari egokitu zaio agintariak estutzea inor atzean ez uzteko. Mundu osoan autoritarismoa indartzen ari den honetan, krisian dagoen aro baten bukaera sumatzen da. Aro berriaren oinarriak ezartzeko garaian gutako bakoitzak, herriek, ez genituzke zokoratu behar munduak dituen erronka garrantzitsuak. Irakurri duzue? Kutsadura murriztu dela eta, Indian, Himalaiako gailurrak ikusten dira berriro 160 kilometrorra dagoen Jalandhar hiritik. 30 urtetan lehenengo aldiz.

HONDAMEN HANDIA DATORKIGU ETA INBERTSIO PUBLIKOA INDARTU BEHAR DA GUZTION BIZI BALDINTZAK BERMATZEKO

29 urte espetxean!

GARAZI AZKARATE ARRIZABALAGA

SARE ARRASATE

ARRASATE

1991n sartu zuten Iosu Arkauz espetxean; barruan hiru urte zeramala jaio nintzen ni. Gaur egun, oraindik bertan jarraitzen du. Ai, ama! 29 urte, nire bizi guztia baino gehiago. Nahiz eta ez ezagutu, denbora honetan guztian zenbat gauza egin ditudan eta bitartean bera ziega zuloan egon dela eta dagoela pentsatzeak ikara ematen dit.

Denbora gehiegi bakardadean, baldintza gogorretan eta, nola ez, etxeoengandik urrun.

Familiak eta maite duten ingurukoek bisita labor bat egiteko milaka kilometro egiten dituzte, istripuak, urduritasunak, gastuak, nekea, sufrimendua... eraginez. Zein da politika anker honen helburua? Nor da zigortua?

Badira hamar urte ETAK armak alde batera utzi zituela, baina horrek ez duela axola ematen du, beste aldean ez baita ezer aldatu. Horretarako, orain dela gutxi jakin berri dudana adibide bat jarriko dizuet. Iosu Murtziako espetxean dago. Saillapenaz arduratzen den organoak, Murtziako Tratamendu Juntak –espetxean bertan lanean dauden juristak, hezitzaileak, psikologoak, asistente sozialak, funtzionarioak...– Iosu bigarren graduaren saillatzea proposatu du. Baina Madrilen dagoen Espetxeetako idazkari orokorrek ez du onartu,

ETAkoa izanik arriskutsua dela argudiatuz. Nola da posible espetxean bere zaintzaz arduratzen direnak gradu progresioa egoki ikustea eta Madrildik garbi adieraztea ez dutela inolako asmorik aldaketa hauek bultzatzeko? Gainera, Frantzia eta Espainian egindako urteak kontuan hartuz gero, 2015ean kalean egon beharko luke. Hala eta guztiz ere, barruan mantentzen dute.

Honi guztiari, gaur egun bizi dugun COVID-19aren egoera gehitu behar diogu. Gu gure etxeetan gauden bitartean, berak ziega zuloan jarraitzen du. Bertako baldintzak ez dituzte aldatu, patiora guztiak batera ateratzen dira... kutsatzeko aukerak areagotuz. Gainera, bisitak kendu dizkiote, noski.

Beraz, orain, inoiz baino gehiago eskertuko ditu gure eskutitzak. Hartu tartetxo bat eta idatzi Iosuri eta gainontzeko presoiei.

Lanean jarraitu behar dugu kalean ikusi arte!

Bateratasuna dela eta

XABIER ORMAETXEA 'TXERREN'

ARAMAIO

Mikel Irizarri Goienan irakurri nion eta Euskadi Irratian entzun zer bait Aberri Eguna dela eta.

Hasteko, esan zuen hitz horrekin adierazi nahi dela inor baztertu gabe denon artean komunitatea eginez goazela eta batasun horrek denok eta dena hartzen dituela eta komunitatea zabalduz

azkenean mundu guztia ere sar litekeela horren barruan.

Aspalditik bera ez dela joaten Aberri Egunera, komunitatearen zatiketa bat ikusten duela eta.

Aurtengoa nahiko ederra ikusi duela denok batera – gutxi gorabehera– ospatu dugulako.

Hasteko, gogoratu nahi diot ia egunero txalotzen ditugula leihoretatik Osakidetzako langileak, egiten ari diren lan miresgarria eskertzeko, eta hori nik ere senti dezaket bateratasun hori.

Baina gogoratu nahi diot igandean Aberri Eguna zela. Eta, dudarik gabe, abertzaleok ospatu eta ospatzearekin batera gure herriak duen askatasun gabezia salatzen. Bide batez, aprobetxatu genuen Osakidetzako langileei eta beste hainbat herritarri egiten ari diren lana eskertzeko.

Nik ez dakit zer gertatu zen zure inguruan, baina gurean, ikurrinak, Nafarroako (Euskal Herriko) eta presoak etxeratzen ikurrinak ziren etxe edo balkoietan zegoen jende gehien. Eta hau ez dugu egunero egiten, nahiz eta bai sentitu.

Badakit ere horren kontra gure komunitatean bizi edo dauden asko egongo zirela, Sufritu ditugun batzuk ere tartean.

Askok garbi daukagu zein den gure aberria, eta, gainera, denok errepublikazaleak gara.

Akaso, beste kontu bat izango da, baina uste dut batzuk *Euskadi* hitzarekin asko nahastu nahian

dabiltzala, zeren ez dakit *Comunidad Autonoma Vasca* edo zer esan nahi duten, baina ziur nago ez dutela erabiltzen *Txiki*-k fusilatutakoz "Gora Euskadi askatuta!" esan zuenaren zentzua emateko.

Horregatik, "Gora Euskal Herria askatuta!" nahiago dut.

Euskal presoak Euskal Herrira.

Ni baikorra naiz

ION ALBIZU GONZALEZ

ARETXABALETA

Ni baikorra naiz; baikorra, bizi dugun eta biziko dugun egoeran ere.

Testuinguruan jarriko zaituztet.

Iazko irailean –orain dela 7 hilabete eskas–, Aretxabaletako Udalak larrialdi klimatikoaren deklaratu zuen.

Martxoaren 11ko osoko bilkuran, Gipuzkoako nagusien erresidentzien inguruko mozio bat onartu genuen.

Krisi klimatikoaren zainza-krisia.

Martxoaren 15ean, alarma egoera ezarri zen.

Osasun krisia eta krisi ekonomikoa –beste bat edo zegoena bera–.

Hau da egoera: zazpi hilabetetan lau krisi adibide. Gure gizartearen sostengatzen den zutabeetako krisia, tamalez.

Eta orain zer?

Bere garaian, familia terapian ibili nintzenez, *lehen mailako* aldaketa deitzen genion aldatzen denari ezer ez

aldatzeko. Errekurritua da, baina...

Aukera bat da hori. Egoera honetatik ahal dugun moduan atera –sufrituko dugula, noski– eta hurrenkeran etorri daitezkeen krisiei –seguru nago etorriko direla– estoikotasunez aurre egin munduak iraun arte: jaiak, bidaiak, kontsumoa...

Eta badago beste aukera bat –honetan ere sufritzeari ez diogu uko egingo, e!–, ez du zertan aspergarria izan.

Aukera honetan, gure ingurumenarekin dugun harremana eraldatu beharko genuke, baina baita ere gure zaintza sistema eta gure osasunarekin dugun harremana. Eta funtsean, ekonomia gizatiarragoa ezartzeko gai izan beharko genuke.

Jaiekin, bidaiekin eta kontsumoarekin, baina beste modu batean eginda. Zuetako askok duzuen sentsazioari eutsiz, hau da, lasaitasun gehiagorekin, elkartasun handiagorekin eta beste lehentasun batzuekin.

Urtxintxa bat ikusi ahal izatea gure herrian zehar korrika bizilagunarekin balkoitik hitz egiten dugun bitartean, herrian bertan erosten, gutxiago mugitzen eta arnasa gehiago hartzen.

Egiten ari garena, azken finean: Herria eta Komunitatea egiten jarraitu. Eta hori ingurumena errespetatzea, lan duina eta osasuna edukitzea eta zainduta sentitzea da.

Hori da ideia, eta probatuko bagenu?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



#GuEtxean

Konfinamendua arintzeko asmoarekin, GOIENAK Arrasate Bidaiak-ekin batera #GuEtxean lehiaketa abiatu zuen apirilaren 3an. 50 familiak hartu dute parte lehiaketan, argazkia edo bideoa bidalita. Eskerrik asko guztioi mozorroak jantzi eta konfinamenduan guztioi irribarre bat ateratzera animatzearren.

Zozketaren irabazlea Mirari Letek eta alaba Leire Maiztegik Oñatitik bidalitako argazkia izan da.

Arrasate Bidaiak-iesker, Sendavivan lau lagunendako asteburua irabazi duzue. Zorionak, familia!



Jasotako argazki eta bideo guztiak hemen ikusgai edo Goiena.eus webguneko #GuEtxean atalean



BABESLEA: ARRASATE BIDAIAK



goiena

Zu hemen zaude.

Bere aurkako mezuak argitu ditu San Felipek

San Felipe Elkarlaguntza eta Ojanguren Hileta Zerbitzuak erakundeek koronabirusagatik hildako kasu batzuekin ustez egindako kudeaketa salatuz mezu anonimo bat zabaldu da asteon, sare sozialen bidez. Bi erakundeek oharra atera dute akusazio horiek argitzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Berriki, Whatsapp eta Twitter sare sozialetan mezu anonimo bat zabaldu da, San Felipe Elkarlaguntza eta Ojanguren Hileta Zerbitzuak erakundeek koronabirusagatik hildako kasu batzuetan ustez egindako kudeaketa salatzen. Aipatzen diren kasu horietan ezinezkoa izan da gorpuak zuzenean hilerrira eramatea –errausteko edo hobiratze–, hura itxita egon delako, eta, ondorioz, gorpuak hotz-ganberetan gorde dituzte, hilerrira berriro zabaldu eta bertara eraman arte. Hauek dira egin dizkieten akusazioak: gorpuak zuzenean hilerrira eraman ezin diren kasuetan bezeroei 181,50 euro kobratzea –hitz-ganberetan gordetzeagatik–; bezeroek gorpuak non eduki dituzten galde-tututenean informazioarik ez ematea; eta hotz-ganbera horiek Elkano kaleko 21. eta 23. atarreetan duten biltegian edukitzea, ustez "bertako bizilagunen osasuna arriskuan jarritz".

Argibideak emateko oharra

Akusazio anonimo horien aurrean, hainbat gauza argitu nahi izan dituzte San Felipe Elkarlaguntza eta Ojanguren Hileta Zerbitzuak erakundeek. Lehenik eta behin, adierazi dute



Lagun batzuk hilkutxa bat garraiatzen. PIXABAY

"une oro eta zehatz-mehatz" bete dituztela COVID-19agatik hildakoak artatzeko Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako araudiak, hiru pauso hauek jarraituz: lehena, hildakoaren senideekin lehenbailehen batzarra egitea, errausteko edo hobiratze baimenak jasotzeko; bigarrena, hildakoa dagoen lekura bertaratzea legeak ezartzen dituen norbera babesteko ekipamenduekin eta gorpua garraiatzeko poltsa sanitario iragazgaitzarekin. Ostean, poltsa hori desinfektatu eta hilobian

sartu, balizko kutsatze kasurik egon ez dadin. Aipatzen dutenez, Osasun Ministerioaren dokumentu teknikoarekin laugarren azpi-sarrerak dio behin poltsa hori desinfektatu ostean hura manipulatzeko ez duela osasun arriskurik eragiten. Hilkutxa normal batean sartu daitezke, hori egiteko neurri berezirik hartu gabe; eta hirugarrena, behin senideen baimena eta Udalaren lizentzia jasota, gorpuak lehenbailehen hilerrira eramatea, ehorzteko edo errausteko.

Oharrean diotenez, heriotza gertatu den egun berean gorpuak hilerrira eramatea ezinezkoa izan den kasuetan soilik erabili dituzte hotz-ganberak. Hori gertatu denean, Arrasateko tanatorioan eduki dituzte ganbera, ez Elkano kaleko biltegian, eta kasu horietan hotz-ganberak erabiltzearen zerbitzua kobratu diete bezeroei. Azkenik, egoera delikatu honetan bezeroak "sentsibilitatez" artatu dituztela adierazi dute, "une oro" gorpuak non eduki dituzten informatuz.

Tanatorio bat, bi ehorztetxe

Herrian bi ehorztetxe daude, elkarren artean kompetentzia direnak: Ojanguren Hileta Zerbitzuak eta Arrasate Hileta Berria. Bi hauek dira Arrasateko Tanatorioaren jabeak: %50 Ojanguren Hileta Zerbitzuak, %50 Arrasate Hileta Berria. Sare sozialetan hedatutako mezu anonimo horretan aipatzen zenez, tanatorioko jabeek diote ezin dela bertara koronabirusagatik hildako gorpurik eraman, "zahartuta" dagoen tanatorioa delako. Ojangurenek dio hori ez dela egia, gorpuak gor-

detzeko poltsak desinfektatu gero hilkutxek ez dutelako kutsatze arriskurik. Arrasate Hileta Berriatik GOIENARI adierazi diotenez, euren Aretxabaletako tanatoriora eraman dituzte koronabirusagatik hildakoak, bi arrazoi argudiatuz: "Arrasateko tanatorioa zahar-kituta dago eta ez dauka ganbera hermetikorik. Aretxabaletakoak, ordea, bai. Horrez gain, Arrasateko tanatoriora gorpuak sartzeko senideak dauden guneetatik pasatu behar dugu kutzekin. Aretxabaletan ez dugu jendea dagoen tokietatik pasatu behar". Aipatu dute legeak ez duela espresuki debekatzen gorpu horiek Arrasatekoa moduko tanatorio batera eramatea, baina euren kasuan Aretxabaletakoaren alde egin dute, aukera "seguruagoa" dela iritzita.

SARE SOZIALETAKO MEZU ANONIMO BATEK HERRIKO EHORZTETXE BATEN KUDEAKETA ZALANTZAN JARRI DU

Gobernua, "zorpetzeko prest", koronabirusaren krisia arintzeko

2019ko soberakinari buruzko eztabaidan hori eman zuten aditzera, asteazkeneko ezohiko osoko bilkuran

X.G. ARRASATE

Aurreko astean egindako Ogasun batzordean, Gobernuak soberakin modura dauden 2.908.142,88 euroak bideratzeko proposamena aurkeztu zuen: 930.000 euro COVID-19ak eragindako egoera

laguntzera bideratzea, 1.557.000 euro Gipuzkoako Foru Funtsetik krisiaren ondorioz jasotzeari utziko zaion diru-partida osatzera eta 522.000 euro hainbat ekimen aurrera ateratzera. Asteazkeneko bilkuran, soberaki-

nari kreditu aldaketak egiteko espedientea onartu zuten, eta puntu horren eztabaidan, EAJ-ko bozeramaileak "Udala zorpetzeko prest" dagoela adierazi zuen. Ostean, zera adierazi zuen horri buruz Maria Ubarretxena alkateak: "Badakigu krisi hau oso zaila izaten ari dela herriko komertzioentzat, ostalarientzat eta autonomoentzat. Lehen laguntza batzuk iragarri ditugu, baina gehiago hartu beharko dira, eta gu zorpetzeko prest gaude".



+ 1.200
bezero baino gehiago

Liderrak zuri esker

24 orduko zerbitzua
Pieza guztiak barne
Euskarazko zerbitzu profesionala

OROTARIKO ZERBITZUA 100€ /hileko

ARRASATE Garaia Berrikuntza Gunea
943 903 450 www.bertako.eus

LKSren ardura "estaltzea" leporatu diote Gobernuari

Musika etxeko obra zuzendaritza LKSk egin du eta lanen kontrol-ziurtagiriak gaizki egin dituztela salatu du oposizioak. Likidazio txostenak dio Lurgoienek 60.680 euro jaso dituela egin gabe dauden lanengatik, eta diote Gobernuak ez duela "LKSren aurka egin nahi"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Apirileko ezohiko osoko bilkura berezia izan zen. Larrialdi egoeragatik zinegotzi kopuru murriztu batekin egin zuten -21en orde, zazpi-, kazetaririk gabe -nahiz eta bat egon zen-, eta *streaming* bidez emitituz. Egunekeo puntu nagusia Juan Arzamendi Musika Etxearekin lotutakoa zen. Puntu hauek ziren onartzeoak: Udalak eta Lurgoien enpresak eraikina birgaitzeko zuten kontratua suntsitzeko prozesua hastea, obren behin-behineko likidazioa aurkeztea eta kontratu suntsitzearen jarraipen lanen eskumena osoko bilkuratik Tokiko Gobernu Batzarrera eskuordetzea.



Juan Arzamendi Musika Eskolaren lanen itxura, asteazkenean. JOKIN BEREZIARTUA

"Irregularitasunak" ordainketetan

EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek irmoki salatu zuten obraren ordainketetan eta obraren kontrol lanetan "irregularitasunak" ikusi dituztela. Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantentze Lan eta Auzoak batzordeak (OZMA) sinatutako obraren likidazio txostena hartu zuten oinarri, eta, azaldu zuten, Udalak 60.680 euro ordaindu dizkio Lurgoien enpresari: "Egin gabe dauden lanengatik". Adibide gisa, EH Bilduko Kepa Urteagak adierazi zuen eraikineko

leihoengatik "70.000 euro" ordaindu dituela Udalak: "Eta eraikin kanpotik paseatzean argi eta garbi ikusten da ez dagoela leihorik jarrita". Oposizioa bi alderdiek adierazi zuten, era horretan "Udalak Lurgoien enpresa finantzatu du, lanak egin aurretik diru publikoa emanez".

Lehenik eta behin, azaldu behar da era honetako obrak ez direla ordainketa bakarrean egiten. Obrako lanak desglosatu egiten dira, eta, behin hauek egin direla ziurtatzean, Udala desglosatutako lanak ordaintzen joaten

da. Kontrol-lan horiek egiteko ardura obra zuzendaritzarena da; kasu honetan, LKSrena. Ziurtagiriak sinatzen dituzte lanak bukatu direla frogatzeko, eta ostean ordainketak egiteko.

Oposizioak salatu zuenez, "2019ko urtarriletik urrira arte egindako ziurtagirietan -hila-bete horretakoa da azken ziurtagiria- irregularitasunak daude, sinatu dena eta benetan amaitu dena ez datozelako bat". Ziurtagiri horiek eskatu dituzte, baina diote Gobernuak ez dizkiela horiek helarazten. Elka-

rrekin Arrasateko Igor Urizarrek adierazi zuen obren likidazio txostenean OZMA batzordeko teknikari batek onartzen duela, besteak beste, "zuhurtzia falta eta gehiegizko konfiantza" egon dela lanak kontrolatzeko orduan.

LKSrekiko jarrera

Oposiziotik azaldu zuten, Gobernutik "behin eta berriz" eskatu diete "diskrezioa" gai honetan, baina diote Udalak ez duela berdin jokatzeko bi inplikatuak: Lurgoienekin eta LKSrekin. "Lurgoien aurka neurri legalak hartu dituzte, ez duelako bere lana egin. Baina zergatik ez duzue gauza bera egiten LKSrekin?", galdetu zuten behin baino gehiagotan, baina Gobernuak ez zuen erantzun. EH Bilduko Kepa Urteagak zera adierazi zuen Gobernuak LKSrekiko duen tratuan inguruan: "Behin-behinean OZMA batzordeko buru den Ibon Arrupek testualki eskatu digu LKS ez kaltetzeko: herriko enpresa bat delako, eta Musika Etxea eurentzat proiektu berezia delako. Baina ezin dezakegu beste aldera begiratu, hemen kaltetuak arrasatearrak dira eta". Igor Urizarren arabera, Arrupek adierazi die "obra berriz esleitez honen zuzendaritza LKSren esku egon dadin" ahalegin-duko direla.

Gobernuaren erantzuna

PSE-EEK ez zuen adierazpenik egin; bai, ordea, EAJko bozera-maile Anuska Ezkurrak. Adierazi zuen musika etxearen proiektua euren esker egingo dela, eta zera esan zuen oposizioak salatutako "irregularitasunei" buruz: "Aski da akusazio faltsuez. Frogarik baduzue, joan zaitezte epaitegietara".

Kontratua eteteko estrategia

Jakina denez, Musika Etxeko birgaitze lanak gelditu daude urtarriletik, Lurgoien enpresak ez omen duelako dirurik bere hornitzaileei ordaintzeko. Hala, Gobernuak neurri legalak iragarri zituen otsailen Lurgoien aurka. Hasieran iragarritakoaren arabera, Udalak ekainera arte itxaron behar zuen Lurgoienekin zuten kontratua eteteko, inongo kalte-ordainik ordaindu beharrik gabe. Sinatutako kontratuan arabera, lanek amaituta egon behar zuten otsailaren 24rako; beraz, atzerapen egun natural bakoitzeko enpresak 2.417 euro ordaindu beharko zizkion Udalari. Kalte-ordain metatu hori esleipen prezioaren %5era heltzerakoan -ekainaren 17 inguruan-, Udalak kontratua bertan behera utzi ahaliko zuen; bermea kobratuz, eta kalte-ordainik ordaindu gabe.

Baina estrategia aldatzea erabaki du Gobernuak. Ekainera arte itxaronez gero, arriskua ikusi dute Lurgoienek obra has-teko jarritako 241.716 euroko bermea kobratzeko. Ekaina heldu bitartean enpresa hartzeko-dunen lehiaketan sartuz gero, Udalak ez luke aukerarik izango berme hori kobratzeko; beraz, ezohiko bilkuran onartu egin zuten kontratua apirilean etetea. EAJren eta PSE-EEren aldeko hiru botoekin onartu zuten, eta EH Bildu estrategia aldatzearen alde agertu zen, nahiz eta puntuaren aurka botatu.

LANAK KONTROLATZEKO ETA ORDAINTZEKO "IRREGULARITASUNAK" EGON DIRELA SALATU DU OPOSIZIOAK



NIRE USTEZ

IANA SANCHEZ

Bertan behera

Pantaila zuriaren aurrean gaia debateratzen saiatzen naiz, baina nire pentsamenduak egoeraren preso daude. Haiek ere bertan behera geratu dira, honen guztiaren aurrean. Hitz madarikatuak, bertan behera: sagardotegiak, jaiak, besarkadak edo lagun artean hartzen dugun domekako *marianito* berezia. Gai hau gure buruetan


zer-nolako mina egiten ari den kalkula ezina da; are gehiago, gure aisialdiari egiten dion hondamendia.

Batetik, gizartearekiko deskonexioa, inoiz ez birtuala. Bestetik, gure planetari egiten dion debaldeko faborea, suntsitzearen derrigorrezko etenaldia. *Ying*-aren eta *Yang*-aren, bizitzaren filosofia hutsa. *Yang*-etako bat irudimena

lantzeko aukera litzateke. Egoerara moldatzeko abilezia sutsua ikusi dugu: zuzeneko emanaldiak, Youtube bidezko jaiak eta *online* lehiaketak. Internet konexio edota bozgorailu indartsu bat duen auzokidea edukitzearen onurak ezagutzen ari gara. Beraz, geratu zaigun kaiolaren barroteak estu oratu, bertan behera egin eta gozoz dantzatu!

Errenta aitortpena euskaraz egiteko dei egin dute Udalak

Online bidez egiteko epea uztailaren 29ra artekoa da. Aurrez aurreko tramiteetarako bulegoak itxia daude, COVID-19 gaitzaren eraginez epe berriak ezarri arte. Arrasatearren %18k egin zuten iaz errenta aitortpena euskaraz. Azken urteetako bilakaera positiboa izan arren, datu hori hobetu egin daitekeela uste dute udal arduradunek.



Lagun bat, mugikorrarekin, Ibai-arte kupoia erosteko gertu. XABI GOROSTIDI

Kupoia, zabaldu aurretik diru-sarrerak edukitzeko

Ibai-arte 'Zuzaraguretxertoa.eus' plataforma sortu du, eta bertan eskura daitezke elkarte denda, zerbitzu eta establezimenduetan erabiltzeko kupoia. Hartutako kupoia kopuruaren arabera, 5, 10 edo 15 euro oparitzen dituzte kupoia bakoitzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Zu zara gure txertoa ekimenarekin, asmoa da Ibai-arte merkatariek diru-sarrerak izatea ateak itxita dituzten bitartean; ateak irekitzen dituztenean erabili ahal izango dituzte bezeroek kupoia. Sektore guztietako saltokiak daude ekimenean: bisuteria eta osagarriak, bitxitegiak, dekorazioa, ehuna, estetikak, etxea, haurrentzako arropa, ile-apaindegiak, jatetxeak, kirola, loradenda, lurrindegia, mertzariak, moda dendak, oinetakoak, paper dendak, tabernak... eta ondorengo egunetan saltoki gehiago batuko dira. Orokorrean, 50, 80 eta 100 euroko kupoia daude eskura, eta, horiek hautatuta, 5,10 eta 15 euro gehigarri oparitzen dituzte, hurrenez hurren. Ostalarien kasuan, berri, menuak edo bestelako jatekoak eskuratzeko aukera ematen dute. Erregistratzen direnek, gainera, Ibai-arte saltokietan trukatzeko 100 euroko bonu baten zozketan parte hartuko dute.

Laguntzei buruzko iritzia

Gobernuak komertzioei laguntzeko iragarritako neurri buruzko iritzia galdetu dio GOIENAK Ibai-arte presidenteari, Jon Apraizi, eta dio ez dutela euren behar handiena estaltzeko balio: "Unerik kritikoena hau da; dendak itxita ditugu, inongo sarrerarik gabe, eta gastuek ez dute barkatzen: alokairuak, langileen soldatak, gastu finakoak... gure bonuak ateratzearena horretarako da, une kritiko honetan sarrerak edukitzeko. Hondarribian eta Azpeitian, adibidez, 1.000 euroko dirulaguntzak onartu dituzte itxita dauden komertzioentzat; horrelako laguntzak dira behar ditugunak. Udalak iragarritako

DENDAK ZABALTZEN DITUZTENEAN ERABILI AHALKO DIRA ESKURATUTAKO EROSKETA BONUAK

30 euroko bonuekin herritarren erosteko gaitasuna handitzen da, baina gudan ez du inpaktu handirik edukiko". Herriko komertzioetan erosteko 25.000 euroko kanpainari buruz zera dio: "Sentsibilizazio kanpainak gure kabuz ere egin ditugu, eta uste dugu diru hori laguntza eraginkorrageotara bideratu daitekeela".



SUXE SANTIN / ARTGAZKI

'EtxeanGeratu'-k badu irabazlea

Suxe Santinek ateratako argazki hori izan da Artgazkiren lehiaketa berriko irabazlea. Konfinamendua arintzeko eta herriko komertzioei keinu egiteko antolatu zuten *EtxeanGeratu* izeneko lehiaketa, non etxe barruan edo etxetik kalera ateratako argazkiak soilik aurkeztu ahal ziren. Irudian katu bat ageri da kalera begira, atzean norbait txalo egiten ari dela.

Musakolako San Isidro jaiak ez egitea erabaki dute

Jai batzordeak ez du beste aukerarik izan, eta, "pena handiz" bada ere, 2020ko sanisidroak ez egitea erabaki dute. Olinpiar Jokoak, sanferminak, Apirileko Feria eta Musakolako BTT Irteera ere atzeratu egingo dira, edo, txarreanean, bertan behera utzi. "Jai batzordeak lanean segituko duen zalantzarik ez izan. Denon artean lortuko dugu Musakolako kaleak berri alaitasunez betetzea", adierazi dute.

Mikel San Miguel auzo alkate berriak adierazi zuen maiatzean ezinezkoa balitz uda ostean egitea aztertzen ari zirela, baina gaur-gaurkoz ezin dute horrelakorik erabaki; egoera argitu arte, behintzat.

EH Bilduk krisiari aurre egiteko neurri berriak proposatu ditu

Arlo ekonomikoan, besteak beste, neurri hauek proposatu dituzte: jarduera etenda duten dendari, ostalariei, nekazari eta enpresa txikiei hileko 500 euroko dirulaguntza zuzena ematea; komertzio txikia eta azoka sustatzeko kanpaina egitea; Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko baldintzak malgutzea etxebizitzaren alokairua edo hipoteka eta oinarrizko hornidurak "ordaintzen laguntzeko"; edo etxebizitza arriskuan dutenen batu-basea osatzea kaleratzeak saihesteko Osalanekin batera, lantoki eta udal zerbitzuetan beharrezko neurriak hartzen ari diren ikuskatzea ere eskatu dute.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

29 urteko ibilbideari begirada, aurrera begira jartzeko eta hauspotzeko

Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak (AGAKO) 29 urte bete berri ditu apirilean. Egoera bereziak baldintzatuta ezin izan dute nahieran ospatu, baina, distantziatik bada ere, errepasso grafikoa egin diote orain arteko ibilbideari

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Asanbladatik kide asko eta askotarikoak pasatu gara urte hauetan guztietan, eta horrek berezi egin gaitu. Batzuk musikazaleak dira; beste batzuk, parrandazaleak; bada mendia gustatzen zaionik ere; eta baita gitarra hartu eta gaztetxea behin eta berriz alaitzen ibiltzen denik ere. Bakoitzak modu batera bizi du gaztetxea, eta horrek ere berezi egiten du. Bertan ikasi dugu konpromisoa eta leialtasuna zer diren. Bertan ikasi dugu eztabaidatzen eta maite dugun hori zaintzen. Bertan ikasi dugu gaurik ilunenak ere bere egunsentia duela. Bertan ikasi dugu kolektiboak duen indarra. Sistema biolento honen aurrean beste era batera komunikatzen, sortzen, eraikitzen eta pentsatzen ikasi dugu; AGAKOk dirauen bitartean, ikasten jarraituko dugu oraindik",

adierazi dute urteurrenaren harira kaleratutako ikus-entzunezko baten.

Argazki bilduma

Konfinamendu egoeratik ezin izan dute AGAKO eguna ospatu. Hala ere, nahiz eta karro-poteorik eta kontzerturik ez egin, *29 urte, 29 argazki* izeneko bilduma egin dute, eta pixkanakako dosi txikietan zabaldu dituzte argazkiak sare sozialen bidez. "Kide ohiengana jo dugu eta haiekin batera AGAKOren memoria kolektibo-politikoak eraikitzen aritu gara. Atzera begira jarri

AGAKO-KO KIDE OHIEN LAGUNTZA IZAN DUTE '29 URTE, 29 ARGAZKI' IZENEN BILDUMA OSATZEKO

gara, indarrak bildu eta aurrera egin ahal izateko. Izan garena hertsiki lotuta dagoelako garenarekin eta izango garenarekin". Esker hitzak ere izan dituzte: "Batetik, aurrez aipatu ditugun Asanbladako kide ohiei; baita, bestetik, gaztetxea une latz zein gozoetan babestu duzuen guztiei ere; kontziente baikara gaur hemen bagaude zuek egingadako lanagatik dela".

Aurrera begira

"Datorren urtean AGAKOren historian mugarri garrantzitsua izango den ekintza bat datorkigu, 30. urteurrena. 2021ean, beraz, parada izango dugu, apiril hasieran, genioen bezala, argazkietako uneak errepikatze eta elkarrekin momentu berriak sortzeko. Orain arte bizitakoak bezain berezi direlako bizitzeke ditugunak".



La Furiaren kontzertuan gaztetxea jendez lepo, 2019ko urtarrilean egindako *Ishotu* jaialdian. IMANOL SORIANO

'29 urte, 29 argazki'-ko irudiak



Gurea zinemako gaztetxea, guztietan lehen. AGAKO

Gurea zinemako gaztetxea 1987ko apirilean izan zen okupatua eta 1989ra arte izan zan Arrasateko gaztetxea. Bertan ekitaldi asko antolatu ziren eta Sorgiña irrati librea jarri zuten martxan, herriko norbanako eta eragileei ahotsa ematen ziena.



Gaur egun Kulturateko areto nagusia dena gaztetxea zen lehen. AGAKO

Ospitale zaharreko gaztetxea 1991ko udaberriko oportetan, herriko hainbat gazte ohitura hartu zuten San Frantziskoko klaustroetatik ospitale zaharrera sartzeko. Poliki-poliki, gazteen topaleku bihurtu zen, eta hamaika urtez izan zen herriko gaztetxe.



Gaur egungo gaztetxearen inaugurazioa, 2003ko ekainaren 7an. AGAKO

Uarkapeko gaztetxea Inaugurazioko argazkia. Hainbat hilabetez gaztetxe barik egon ostean, 2003ko ekainaren 7an inauguratu zuten. Ekimen ugariaren estalpe izan da ordutik: Kooltur Ostegunak, serigrafia, liburutegia, Itxungi Irratia, *Trikili-trakala* fanzinea...



Abesbatzakoek egin duten bideoko irudia. PAPARGORRI

Negua ahantzazten laguntzeko, Papargorri

Egungo egoera zaila ere pasako dela eta, mezu baikorra eman guran Zea Maysen kantua interpretatu dute abesbatzako kideek. Bakoitzak bere etxean grabatutakoa batu eta emaitza ederra izan da: "Oso harro gaude", dio Larraitz Arriolabengoak

Julen Iriondo ARAMAIO

Abesbatzako zuzendaria, egoera dela-eta, goibel zegoen une batean sortutakoa da talde bizkaitarren kantu ezagunarekin bideoa egiteko ideia, baina ez berari, berarekin batera Papargorriren arduraren beste kideei baizik, Arriolabengoak aitortzen duenez. "Kontaktuan nengoen Maria Izagarekin eta Idoia Asurmendirekin, eta, izugarriak direnez... Nik komentatzen nien ez nekiela nola planteatu abesbatzako entseguak; proiektu pila bat genituen, bertan behera geratu dira denak, eta pixka bat galduta nabilela. Eta eurek esan zidaten: 'Abesti bat egingo dugu, zu lasai'. Ni lasai, eta egin dute gauza zoragarri hau", dio, esker onez.

Azken finean, talde lana izan arren, emaitza abesbatzako kideek bakarka egindakoaren batura izan da, ezinbestean: "Idoia grabatu zituen abestiaren base ezberdinak, bera eta Mariaren artean sortutakoak.

Ahots horiek banatu egin nitfuen nik umeen artean; pista errazena, txikientzat. Ume bakoitzak bere pista grabatu du, eta oso-oso ondo funtzionatu du". Taldeko beste kide batek, Miren Aretxagak, egin ditu gero ahots eta irudi guztiak elkartzeko lanak, bideo muntaketa -Goienaren Aramaioko webgunean ikus daiteke-.

Idea izanda, lantxoia egiteko Zea Maysen *Negua joan da ta* kantua aukeratu izana ez da kasualitatea izan: "Gure konbertsazioak horren inguruan ziren: 'Hau bukatuko ote da...'. Eta Zea Maysen abestia izan zitekeela otu zitzaigunean, argi ikusi genuen: 'Bai, negua bukatuko da eta etorriko dira mo-

**BASEAK PRESTATU
ETA UMEEI BANATU
ZIZKIETEN. BAKOITZAK
BEREA GRABATU ETA
DENAK BATU DITUZTE**

mentu hobeak, eta... Eta, gero, egia da abestia oso ezaguna dela, eta txikientzako gauzak erraztu egin ditu horrek, ezin diezulako, bestela, kantu berri bat erakutsi horrela, audio batekin; izan behar du zerbait eurentzako ezaguna dena. Eta izugarri ondo egin dute".

Talde kideen laguntzarekin, beraz, horra, zuzendariaren aldartea goxatzen lagundu duen ekimena: "Papargorri duen gauza positiboena hori da, familia bat garela eta, momentu askotan, denon artean gauzak ateratzen ditugula".

Musika eskolak

Herriko musika irakaslea ere bada Larraitz Arriolabengoak. Musika eskolak egiteko ere nola-hala moldatu behar izan du egoera berezi honetan: "Badut blog bat aspaldian gelditu nuena -Anbotokodoinuak.blogspot.com-, eta orain hura erabiltzen dut eskolak emateko, elikatzen hasi naiz eta...".



Pamela Palencianoren bideo konferentziaren une bat. YOUTUBE

'Laia plazara', emakumeen topaleku konfinamenduan

Laia Eskolak ere Internetera egin du jauzi halabeharrez, eta hainbat aukera eta zerbitzu eskaintzen ditu bertan

Julen Iriondo ARAMAIO

Emakumeek ere, uneotan, elkartzeko plaza fisikorik eduki ezin, eta, gutxien-gutxienik, plaza birtual bat sortzea erabaki dute Arabako Foru Aldundiak eta Kuadrilletako eta Udaletako Berdintasun Teknikarien Sareak. Laia Eskola azken urteetan katean egiten ari den lanari jarraituz emanaz, sarea bihurtu dute orain topaleku, osasun krisiak irauten duen denborarako, behintzat. "Batzeko, elkartzeko, pentsatzeko, sentitzeko, zaintzeko, eta erantzuteko plaza bat", adierazi dute.

Eta galdera hauek eginez hasi nahi izan dute: "Emakume bezala, nola ari zarete konfinamendua bizitzen? Zerk kezkatzen zaituzte konfinamenduan?". Emakumeen ekarpenak jaso nahi dituzte. "Bidali zure bideoak, marrazkiak, audioak, abestiak, mezuak, testuak, argazkiak, go-

mendioak, testigantzak...", eskatu dute, eta *Laiaplazara.eus* helbidean postontzia ere jarri dute horretarako.

Webgunean, horrez gain, marrazki lehiaketa ere jarri dute martxan, eta irakurgaiak eta bestelako baliabideetarako loturak ere badaude eskura. Laia Eskola Birtuala atalean, berriz, askotariko saioak joango dira jartzen: hasteko, ikusgai dago astelehenean Pamela Palencianorekin indarkeria matxistari buruz bideo konferentzia bidez egindako saioa.

Irakurle Klub Feminista

Bestetik, Irakurle Klub Feministak ere Internet bidezko saioak egingo ditu aurrerantzean. Maiatzaren 25ean egingo dute hurrengoa: Mariama Ba idazlearen *Hain gutun luzea* liburua aztertuko dute. Parte hartzeko, *berdintasuna@gorbeialdea.eus*.

Hainbat lehiaketatan parte har daiteke maiatzaren 4ra arte

Jaietako lelo lehiaketa da bat, eta kartel lehiaketa bestea; lehenengoan 50 euroko saria dago, eta 60, 150 eta 60 eurokoak bigarrenaren, ume, heldu eta nagusien kategorietarako: *itxasokultura@gorbeialdea.eus* helbidera aurkeztu behar dira. Hara, baita ere, errezeta lehiaketakoak: 50 euroko sariak daude, ume eta nagusietan, herrian gatzatzeko.

Berrerabil daitezkeen maskarak eskatuko dituzte ekonomatutik

Nafarroan egiten dituzte, eta Portugalgo osasun sistemak onetsiak ditu. Berrerabilgarriak dira, garbitu eta berriz jartzeko aukera ematen dute, behin eta berriz, ekonomatutik diotenez. Interesa dutenek *aramailurkt@gmail.com* helbidera idatzi behar dute, eta eskariaren arabera kopurua ekarriko dute. Umeen eta helduen neurriak daude.

COVID-19 GAITZA

BURUKO MINA

FLEMAK

OXIGENO FALTA

SUKARRA

HOTZIKARAK

ZER EGIN DEZAKET EZ KUTSATZEKO?



EZ IRTEN
ETXETIK



MUKIZAPIAK ERABILI,
ERABILI ETA BOTATZEKOAK



ESKUAK
GARBITU



JENDEAREKIN
KONTAKTUA EKIDIN

ZER EGIN DEZAKET ETXEAN EZ ASPERTZEKO?



'GOIENA' ALDIZKARIA IRAKURRI



GOIENA TELEBISTA IKUSI



'GOIENA.EUS'



'PUNTUA' ALDIZKARIA



'TTAP' ALDIZKARI DIGITALA



'ZUT' ALDIZKARI DIGITALA

GUREKIN KOLABORATU, BIDALI ZUEN BIDEOAK:

'BERRIAK@GOIENA.EUS' EDO WHATSAPP ETA TELEGRAM: 688690007

Elkarteen babesaren eredu 'Hemengaz!'-ek

Aretxabaleako 40 elkarteek baino gehiagok eman diote atxikimendua AZ Taldeak Udalarekin batera abian jarritako ekimenari; merkatariak, ostalariak eta autonomoak babestea helburu izanik, herritarren babes osoa ere jaso du

Mirari Altube ARETXABALETA

AZ Taldeak abian jarritako ekimena babesak jasotzen dabil hain eta hemen. Lehenengoa Udalarena izan zen, eta ondoren, herritarrena. Orain, ostera, herriko elkarteek egin dute bat. 40 taldek baino gehiagok –gizarte, kirol zein kultur elkarteak– babesaren adierazi gura izan diete herriko merkatariari eta ostalariari, "gu be hemengaz" esanaz.

"Merkatari eta tabernariak, kultur eragileak, hainbat eratako zerbitzuek, nekazari zein abeltzainek, ikastetxeak, enpresa txikiak eta handiak... Gutako bakoitzak, guztiok, osatzen dugun sare zabal horren emaitza da Aretxabaleako herria. Eta une berezi honetan denon artean sarea indartu eta herria bizibizirik dagoela erakusteko beharra daukagu", adierazi dute elkarteek *Hemengaz!* ekimenari atxikimendua emateko egindako idatzian, eta gaineratu dute: "Egiteko asko dago. Orain, has-



Hainbat herritar, balkoietan, ekimenari babesaren adierazten. MIRARI ALTUBE

teko, herriko merkatari eta negozio txikiak laguntzeko ekimen hau bultzatuko dugu". Hala, herriko denda eta zerbitzuetan kontsumitzera animatu dituzte aretxabalearrak, horretarako sortu duten plataformaren bidez.

35 kide inguru

Erosketak eta erreserbak aldeztu aurretik egiteko aukera ematen duen plataforma sortu du AZ Taldeak: *Hemengaz.eus*, Orain egindako gastu hori herritarrek trukatu egingo dute gero, esta-

Oinarrizko elikagai sorta eskaintzen dabil Hankabeltz

Hiru egunetan 25na kilo arroz eta pasta banatu ditu, 24 litro esne, 15 dozena arrautza eta bost litro oliba-olio

Imanol Beloki ARETXABALETA

Kilo erdi pasta, kilo erdi arroza, 250 mililitro oliba-olio, dozena erdi arrautza eta litro bat esne dituen poltsak osatu ditu Antonio Tamayok, Hankabeltz urdaitegiko ugazabak, "egoerarik zailenean" dauden herritarrei debalde emateko. Sare sozialen bitartez horren berri eman, eta martitzenean jarri zuen abian ekimena. "Martitzenean bertan hainbat eskaera jaso genituen; eta lehenengo hiru egunetan hogeitabi bat lagun etorri zaizkigu egunero".




Tamayok elikagaiekin. I.B.

Elikagai barik

Hainbat ekimen solidario dau dela abian jakinik, Tamayok ere lagundu beharra sentitu du. Hala, diruz larri dabilzanean eskaini die oinarrizko produktuekin osatutako sorta: "Ez genekien nolako harrera izango zuen, eta izugarria izan da". Eguenerako elikagairik gabe geratu zen; horregatik, beste era batera antolatzeko asmoa agertu du: "Herritar gehiagorengana iritsi ahal izateko ekimen handiago batean pentsatzen hasita gaude, jende gehiagok parte hartuta".

Lehen egunetan ere jaso du hainbat herritarren laguntza Tamayok: "Era anonimoan ekarri didate zenbait elikagai dendara. Horiei eta lagundu didaten beste hainbati eskerrak eman nahi dizkiet".

Pozik ekimenak sortutakoarekin?



IDOIA ELEMPURU
MERKATARIA

"Herritarren zerbait piztu du ekimenak, eta argi geratu zaigu guztion artean zaindu behar dugula herria. Noiz arte iraungo duen su honek... Guk igarri dugu babesaren, bai ekonomikoa, bai berba bidezkoa. Herritar askok oraindik ez dakite zelan lagundu, gerturatu daitezela gutako edonorengana".



BAKARNE URRUTIA
OSTALARIA

"Ideia bikaina da, diru-sarrerak izateko modu bat. Kalte handia egin digu ostalariari egoerak, eta nire kasuan pribilegiatua sentitzen naiz, lantegietako gertatutako bazkari batzuk eramaten dizkiegulako. Noiz eta zein baldintzatan zabaldu ahal izango dugun ez dakigu, eta kezka handia da hori ere".

blezimenduek atea berriz zabalduz dituztenean.

Dagoeneko 35 bat saltoki, ostalaritza zerbitzu eta autonomo daude hor, eta poliki-poliki hazten joango dela uste dute ekimenaren sustatzaileek, AZ Taldeko kideek: "Merkatariak harrera beroa egin diote eta gero eta gehiago ari dira batzen", adierazi du Mikel Alberdik. Hain zuzen, egunotan, plataforma bera osatzen eta egokitzen dabilta. Onartu du hainbat herritar gerturatu zaizkiela esanaz Internet –transferentziak eta

bizum– ez dutela erabiltzen ordaintzeko egiteko eta ez dakitela zelan lagundu: "Merkatariarekin zein ostalariarekin zuzenean berba egin daiteke, plataforma horretan kontaktatu ere badaudela telefonotik deitzeko. Eta horrela, haiekin adostu laguntza".

Aurrera begira, elkarteek ere lekua izango dutela hor uste du: "Herrigintzarako erreminta garrantzitsua izan daiteke, merkatariaren, elkartearen eta herriko eragileen arteko sarea osatzeko, eta hala, herritarrek kontaktu zuzena izateko horiekin".



NIRE USTEZ

IKER CARRASCO MENDEZ

Barrealdi egoera

Martxoaren 10aren inguruan, gurasoek lehengusinarekin topo egin eta haren besarkadari uko egin ziotenean, hura harritu egin zen. Askotan, aitzindariak lekuz kanpo dirudite.

Ez zaigu gustatzen gobernuak askatasun indibidualak murriztea, baina honaino iritsi izanaren erantzukizunik ez dugu aitortuko; zerbait berandu egin bada, politikarien errua, noski! Otsail amaieran, Nazioarteko Osasun Erakundeak distantziak mantentzea eta eskuak garbitzea gomendatzen zuenean, ez zigen Sanchezek etxeetara xaboa bidali eta!

Luzerako krisia daukagu. Klimarena, aldiz, ez da hainbesteko. Jada gobernuak eta udal larkalariaren aitopanak hitzartu dituzte eta. Ama lurra gaixotu dugu, baina nor geratuko da aste bukaeran etxean, hura zaintzeko, kotxea hartu eta edonora joateko debeku barik? Nork egingo dio uko hegazkinez bidaiatzeari? Debekatu arte, inork ez.

Hori bai, halako eskubideak galtzera iristen bagara, errua politikariena izango da berriz.

Eskola itxita, lanak egiteko aprobetxatzen

Santa Kurtz kaleko bidegorriaren lanetan ari dira egunotan, eta 278 metro egokitze lanek hamaika aste iraungo dute. Horrekin batera, udal aurrekontua eguneratu egingo dute, eta, horregatik, zenbait lanen hasierak atzeratu beharrean daude

Imanol Beloki ARETXABALETA

Herri barrutik pasatzen den bidegorri tartea hobetzeko lanei ekin zieten apirilaren 14an Pro-bisa Vias y Obras enpresako langileek. Santakurtz kaleari dagokion –Basabe eta Sarasate kaleen artean dagoen zatia– lanen barruan daude, eta Iturri-gorri pilotalekutik Kurtzabarri eskolarainoko tartea birmoldatzen ari dira egunotan.

278 metro egokitze lan guztiek hamaika aste iraungo dute, eta, hain zuzen, ikastetxe pareko zati honekin ekin diote, eskola itxita dagoela aprobetxatuta. Lanek iraun bitartean ezingo da aparkatu 21. zenbakidun atarte alboan eta pilotalekuaren aurrealdean. Autoak eta oinezkoak pasatu ahal izateko, ostera, tartea utziko dituzte.

Lanen hasierak, atzeratuta

Aretxabaleako Udalaren 2019ko likidazioak bi milioi eta erdi eurotik gorako diruzaintzako gerakina utzi du, eta hori "funtsezko zerbitzuei" eusteko baliagarria izango dela adierazi du Unai Elkorok alkateak, bereziki "diru-sarreraren jaitsiera" aurreikusten dutelako. Hori horrela, 2020ko aurrekontua egokitu beharrean izango direla gaineratu du, eta, hala, zenbait

lanen hasierak atzeratu beharrean daude.

2019ko aurrekontuen likidazioak guztira, 3,3 milioi euro baino gehiagoko gerakina utzi duela adierazi dute Udaletik, eta horietatik 738.840 euro dagoeneko "lotuta" daude martxan edo gauzatzeko dauden proiektuekin; besteak beste, Deba ibaiaren ezker aldeko pasealekuaren lanekin eta Santakurtzko bidegorriarekin.

Gainerako 2.594.322 euroak tamaina handiko bi proiektutara bideratzea aurreikusita zuten:

Santakurtz kalea berrurbanizatzeko lanetara eta komentu zaharra adinekoentzako zentro sozial bihurtzeko proiektura. Obra horiek atzerapena izango dutela adierazi du Elkorok: "Santakurtz berrurbanizatzeko lanak ez dira aurten hasiko, eta, komentuaren proiektuaren kasuan, Osasun Sailak anbulatorio berriaren inguruan hartzen dituen neurrien arabera izango da". Udalak eskaintzen dituen "funtsezko zerbitzuei, ostera, ez die eragingo" aurrekontuan egingo dituzten aldaketek.



Santa Kurtz kaleko lanak ari dira egiten egunotan. MIRARI ALTUBE

Zerbitzu publikoei eustearen alde agertu da EH Bildu

2020ko udal aurrekontua egokitzerakoan taldearen "printzipioak" zeintzuk izango diren adierazi dute

I.B. ARETXABALETA

"Une delikatu" honetan jendea babestea eta enplegu duina sortzea izan behar direla lehentasunak uste du EH Bilduk. Eta "herritarren zaintza iparrorratz hartuta", Udalaren aurrekontua egokitzerakoan zeintzuk izango diren taldearen "printzipioak" zehaztu dute: lau, hain zuzen ere.

"Bizitzen ari garen momentua delikatu da, bai osasunari dagokionez eta baita ekonomiari dagokionez ere", diote EH Bildu taldekoek, eta gaineratu dute: "Herritarrak babestea eta enplegu duina sortzea izan behar dira gure lehentasunak". Hori argi izanik, hurrengo hilabetetarako oinarriak zehaztu dituzte egunotan online egin duten bileran: "Eta seguru gaude guztiok bide berean arraun egingo dugula".

EH Bilduren "zutabeak"

Aurrekontua egokitzerakoan EH Bilduren "zutabeak" zeintzuk diren adierazi dute: batetik, aurrekontuari eutsi; horretarako, proposatu dute "Udal Gobernuak aurreratatu duen ildotik", Udalak aurreratuta duen dirua sarrerengalerak konpentsatzeko erabiltzea: "Gure gastuei aurre egiteko baldintzetan gaudela uste dugu: enpleguari eutsi, eta beharrezko ez diren gastuetan zorrotz jokatu". Bestetik, "estrategikoak diren inbertsioei" eutsi gura diete, eta ezinbestean mantendu beharrezkoak aldaketa klimatikoari aurre egiteko direnak eta zaintzarekin zerikusia dutenak direla esan dute. Hirugarrenik, egoerari aurre egiteko funts bat bideratu gura dute, gizarte zerbitzuen kasuan eta enpleguari dagokionez. Eta azkenik, inbertsio batzuk atzeratzea proposatu dute.

Skate parkea konpondu eta margotu egin dute

Ibarra kiroldegi pareko skate parkean konponketa-lan batzuk egin dituzte. Hain zuzen ere, 523 metro koadroko azalera guztia margotu dute, estetika aldetik haratago pista hobetzeko eta irristakorreragoa izateko helburuarekin. Udalak 3.745 euro –gehi BEZa– ordaindu ditu Getxoko skate eskolako Borja Aginagak egingo dituzten lanengatik.



Skate parkea margotuta. MIRARI ALTUBE

Aurrez telefonoz deituta, larrialdiak artatzen ditugu
09:00etatik
13:00etara.

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

"Xehetasun txikiek handi egiten dituzte pertsonak"

NEREA GORDEXOLA MEDIKUNTZAKO IKASLEA

Eskoriatzarra medikuntzako bosgarren mailako ikaslea da Donostian, EHU, eta pandemiak sortutako egoerari kolore argiagoa eman gura izan dio

Imanol Beloki ESKORIATZA

XXI. mendeko pandemia sortu duen birusaren egoera larri honi buelta eman behar zaiola adierazi gura izan du Gordexolak. Praktikotasunari garrantzia ematean dagoela gako eta positiboki pentsatu behar dela azpimarratu du, egin diren elkartasun ekintza guztiei balioa emanez.

Egoera kezkatzekoa da?

Badirudi hizketarako gai bakar bilakatu dela, egunerokotasuna ziurgabetasunak jota biziz. Telebistak eta irratiak piztuta, eta horiek entzunez, leiho eta balkoietatik agurtzen ditugun bizilagunen artean zer gertatuko ote den galdetuz aurkezten gara egunero. Ezjakintasunean bizi-tzeak, zer nolako inpaktua izan dezakeen deskubritzen ari gara poliki-poliki. Hala ere, bide one-tik, gauzak ondo egiten ari gara-rela uste dut, eta oraingoz tratamendu espezifikorik ez dagoen arren, txerto eta tratamendu farmakologikoen ikerketan dihardute, gaixotasuna prebenitzeko eta tratatzeko helburuaz.

Nola eragin dezake egoerak orokorrean?

Jakina da epidemia orok alterazio eta arrisku desberdinak dituela biologikoki, sozialki eta psikologikoki. Hainbat profesionalen hitzetan, COVID-19aren eta historian izan diren beste pandemia batzuen arteko desberdintasun nagusi bat osagai psikologiko eta sozialen pisua eta hauen influentzia azkarra da, gizakiarentzat egoera honetan kutsakorrena, birusaz gain, emozioak ere izanik. Gaur egun, eskura ditugun baliabideen bidez ahalmen hori esponenzialki biderkatu da, egunetik egunera etxean sartuta, bizi ditugun sentsazio horiek guztiak globalizatuz. Ikaragarria da munduaren beste puntan bizi den indibiduo hura orain bakoitza bizitzen ari den emozio antzekoak



Nerea Gordexola, etxeko balkoian. NEREA GORDEXOLA

"ZORIONEZ, BELDURRA EZ DA GOBERNATU AHAL GAITUEN EMOZIO BAKARRA"

esperimentatzen ari dela pentsatzea, hori izanik guztiok berdin egiten gaituena. Zorionez, beldurra ez da gobernatu ahal gaituen emozio bakarra eta hori argi geratu da jendearen ahaleginetan. Alteredatuta hasi baginen ere, elkartasuna da nagusi. Hungigarria eta baloratzekoa da laguntasuna, xehetasun txikiek handi egiten baitituzte pertsonak. Burutu diren ekintza guztien artean aipatzea gure nagusi eta etxeko txikitxoan zaintza, material falta dela-eta etxeetan josten diren maskarak, 3D inprimagailuekin burutu diren aurpegi babesak, egun gutxitan sortu diren test azkarrak, eman diren snorkel maskarak, egunak alaitzen dizkiguten kontzertuak, herritarrek etxeetatik antolatutako jaiak, eta beste mila. Zuen-tzat ere txalo zaparrada, biba zuek!

Medikuntzako ikasle bezala, nola harrapatu zaitu egoerak?

Ezustean harrapatu gaitu, inork espero ez zuen bidaia batean murgilduz. Hala ere, azpimarratu beharra daukat ez gara umezurtz geratu. Gaur, etxetik beraiengandik ikastea tokatu zaigun arren, jo eta ke lanean diharduten eta gure eredu diren heroi horiekin batera gaude, pantaila batek bereizten bagaitu ere, harrotasun osoz merezitako indarrak bidaliz.

Egoera honek zein alde positibo ditu?

Kaleak mamuz moztortuta dauden arren, Lurrak arnasteko aprobetxatu du. Animaliek hiriak bisitatu dituzte eta urak osasun kolorea berreskuratu du, hainbat tokitan. Praktikoak izan behar dugu, eta, noski, positiboki pentsatu beti. Horregatik, gustatuko litzaidake *histeria, izu, asperraldi, hasperen...* eta halako hitzak ideia sortzaile, deskubritzeke ditugun liburu, pentsamendu edota amets baikorrek inordekatzea, limoi tanta horiei azukre pixka bat gehituz, segundoak, orduak eta egunak gozatzea. Gutxienez, etxean igarotzen dugun denbora.

Bertan behera geratu dira maiatzeko jaiak eta ekitaldiak

Urteko egitarauari buelta bat eman, eta ideia berriak pentsatzen ari dira Atxorrotx Kultura Elkarteak

I.B. ESKORIATZA

Maiatzaren lehenengo domekan Atxorrotx mendiko eguna ospatzen da, eta hortik aurrera ia astebururo izaten dira beste zenbait jai eta ekitaldi Eskoriatzan. Hala ere, koronabirusaren krisiaren ondorioz, "maiatzeko jaiak eta ekitaldiak bertan behera geratzen direla, oraingoz" adierazi dute Eskoriatzako Udaketik, "pandemiak izan dezakeen bilakaeraren zain".

Horrekin batera, maiatzaren 9an zen egitekoa Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna ere ber-

tan behera gelditu da, antolatzailleek aditzera eman dutenez. Maiatzaren 9ko asterako, bi hitzaldi zituzten lotuta, ikasleendako kontzertu bat eguneko Inkernu tabernan eta jai-eguna zapatarako. Hala ere, horiek bertan behera utzi dituzte eta egoera aldatu ahala joango direla jakinarazten zer eta noiz egingo duten adierazi dute kultura elkarteak. Hala ere, urtean zehar egiten dituzten zenbait ekintza batzea izan daitekeela aukeretako bat gaineratu dute.

OHARRAK

Egubakoitzetako azoka Santa Marinan

Gaur, apirilak 24, egubakoitzetan egiten den azokak bere ohiko jarduerari ekingo dio. Azoka ohiko ordutegian egingo da, baina, plazan beharrean, Santa Marina plazan izango da.

'Eskoriatza bizirik' kanala

Eskoriatzako Udalak Youtubeko kanal bat sortu du *Eskoriatza bizirik* izenpean. Herriko zenbait sortzailearen bideoak eta bestelakoak batzen ditu.

Telefono bidezko arreta zerbitzua luzatu dute

Astelehenetik egubakoitzera bitartean, 09:00etatik 14:30era izango da Eskoriatzako Udaleko arreta zerbitzua. -943 71 44 07-.

GORA ETA BEHERA




Egokienako elikagaiak, zaharren egoitzara

Iraungi aurretik biltegi zizuten zenbait produktu Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzara eramatea erabaki dute Egokiena elkarteak. Hori horrela, guztira, 44 litro esne, 32 patata pakete eta beste zenbait produktu eraman dizkiete laguntza gisa.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Mexikoko doinuak zapatuko hitzordurako

Alarma egoera ezarri zenetik musika da nagusi San Pedro auzoan. 20:00etako txaloen ostean, Andoni Moto eskoriatzarra lau kanta jartzen ari da egunero, bozgorailuak leihora aterata. Zapatu honetako ere egin dute plana, poteo ordurako

Imanol Beloki ESKORIATZA

Larrialdi krisian, eskoriatzarrak une latzari umore ona jartzen saiatzen dira, eta horren adierazgarri da, bereziki, San Pedro auzoan egunotan bizi dena. Izan ere, alarma egoera hasi zenetik, iluntzeroko ohitura bihurtu da osasun langileen lana eskertzea eta aitortzea, eta, Eskoriatzako kasuan, 20:00etako txalo zaparradaren ostean, egunero irteten da Andoni Moto eskoriatzarra leihora zenbait musika pieza bozgorailuetatik jartzera. Hala, une batez, auzoa girotzen du horrela, eta bizilagunen erantzuna "positiboa" dela adierazi gura izan du. Asteburuetan, berriz, luzatu egiten du musika saioa, eta zapatu honetan, poteo ordurako hitzordua ere antolatuta dute. Hain zuzen, 12:30etik 14:30era bitartean, kanta mexikarrak jarriko ditu Motok, eta herritarrei balkoietara ateratzeko dei egin gura izan die.

Jai gogoz, bi hitzordu nagusi

"Egunero lau kanta jartzen ditut eta estilo ezberdinetakoak jartzen saiatzen naiz. Musikaz haratago, Apirileko Azoka ere ospatu dugu auzoan; Sevillako azoka islatzen saiatu gara, hitzordurako balkoi eta leihoak apainduz. Horrekin batera, gure



Andoni Moto etxeko leihoan musika jartzeko prest. ANDONI MOTO

ZAPATUAN, 12:30ETIK 14:30ERA, KANTA MEXIKARRAK IZANGO DIRA ENTZUNGAI SAN PEDRO AUZOAN

auzoaz gain, herri guztira zabaldu den *Euskal Konfinamendu Jaia* ere egin da, Euskal Herriko beste zenbait herritan moduan. Baserritar jantzita irten ziren herritarrek balkoietara eta trikiti doinuak entzun

ahal izan ziren... giro bikaina izan zen", adierazi du Andoni Moto eskoriatzarrak.

Bereziki nagusientzat

Zapatu honetarako hitzordua bereziki etxeetan konfinatuta dauden pertsona heldu eta nagusientzat prestatu dutela adierazi du Andoni Motok: "Oso gustuko dituzte kanta mexikarrak herriko nagusiek, eta zapatu eguerdian aukera izango da horiez gozatzeko. Musika gertutik entzuteko, gainera, Youtuben kanala irekiko dut...".



Autodefentsa feminista tailer teorikoa egin zutenekoa. AINHOA BARANDIARAN

Online egitea baztertuta, autodefentsa tailerra atzeratuta

Sorginak Emakume Taldekoek indarkeria matxistaren gaineko informazioa banatu dute herritarren artean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Asteburu honetara begira autodefentsako tailerra zuten antolatuta Leintz Gatzagako Sorgiñak Emakume Taldeko kideek. Asteon, bi proposamen landu dituzte: tailerra online egitea, batetik, edo data aldatzea eta saioa atzeratzea, bestetik. Online egiteak erantzun handirik jaso ez duenez, zehaztu barik utzi dute, baina aurrerago egitea erabaki dute antolatzaileek.

"Gogoz geunden tailerra egiteko, baina egoera zaila da, eta online egitearen proposamena baztertu egin dugu, parte-har-

tzaile batzuek hala gura izan dutelako. Ez dakigu noiz egingo dugun-; hala ere, indarkeria matxistaren aurkako kanpaina dela-eta informazioa bideratu diegu herritarrei", adierazi du Garazi Orobengoa Ogasun zinegotziak.

Eskuorri informatiboak

Ez zaitez lotsatu! Amaitu isiltasunarekin! lelopean, genero indarkeriaren informazioa eta harremanetan jartzeko zein orientazio, aholkularitza eta gizarte laguntza kontaktuak banatu dituzte herritarren artean.



GARAZI OROBENGOA

Euskal giroa nagusi Eskoriatzan

Apirilaren 11n, *Euskal Konfinamendu Jaia* izan zen, eta herritarrek baserritar jantzita atera ziren balkoietara.

Behar den bezala ospatuz

Basokada sagardo banarekin irten zen balkoira asko; Aitor Aiastuik eta Iraitz Prietok, berriz, haratago joan, eta taloak egin zituzten, baita bizilagunei balkoi batetik bestera pasa ere.



Aitor Aiastui eta Iraitz Prieto, taloak eskuetan dituztela. AITOR AIASTUI

Karapaixoak egiten telematikoki

17 etxetako gatzagarrek bideo-dei bidez egin dute karapaixoa, eta ekimenarekin pozik agertu dira parte-hartzaileak. Nork bere modura egin du karapaixoa, eta gero, emaitzak partekatu dituzte, gainera. Ekintzak arrakasta izanda, ez dute baztertzen mota horretako beste egitasmo bat berri ere egitea.

Lanean lehenago hasita, kalteak arintzeko asmoz

Ibargarai kaleko 4. eta 14. atarreen arteko zatia berriro urbanizatzeko lanak hilabete aurreratzea erabaki du Udal Gobernuak, alarma egoeran lanak lehenago bukatu eta kalteak arinduko direlakoan; bizilagunek, dendariak eta Ikastolak begi onez hartu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Koronabirusak jarduera eta ekitaldi publikoak bertan behera uztea edo atzeratzea ohiko albiste bihurtu den egunotan, badago COVID-19ak aurreratu duen obra esanguratsu bat: Ibargarai kaleko 4. eta 14. atarreen arteko kale zatia berriro urbanizatzeko lanak. Atari horien artean egin beharreko

instalazioak eta urbanizazioa berritzeko lanak maiatz bukaeran ziren hastekoak eta lanak esleituta eta konprometitu zauden alarma egoera aurretik.

Hala ere, obrak hilabete aurreratzea erabaki du Udal Gobernuak, dendariei, Aranzadi Ikastolako ikasleei eta bizilagunei ahalik eta kalte gutxien eragiteko asmoz.

Konfinamendua, aukera bezala

Honela azaldu du erabakia Gorka Artola alkateak: "Ikusten genuen egungo egoerak aukera ematen zuela obra hori modu errazagoan eta azkarragoan exekutatzeko. Bestetik, konfinamendu egoeratik bueltan exekuzioarekin hasteak eragingo zituen kalteak handiagoak zirela ikusten genuen. Kalte horiek

murrizte aldera, egokia iruditu zitzaigun konfinamendu sasoia aprobetxatzea lehenago hasi eta mugimendu fluxuak askoz txikiagoak direla baliatzea obra ahalik eta gehien aurreratzeke". Hain zuzen, obraren exekuzioa adjudikatu zenean sei hilabeteko epea zehazten zen kontratuan, baina Udalak espero du lanak lehenago bukatzea, mugimendurik ezean lanak garatzeko erraztasun gehiago izango delako enpresa eraikitzaileak.

Aurrekontu osoa, 450.000 euro

Hain zuzen ere, Construcciones Artzamendi enpresari adjudikatu zitzaion obraren exekuzioa, 308.849 eurotan, BEZa barne. Obraren zuzendaritza BEB Arkitektoak enpresaren ardura da eta lanen exekuzio materialaren zuzendaritza Iñaki Arregi Garitanok darama; hau da, aurrekontu osoa 450.000 euro ingurukoa da, eta ez dago inongo dirulaguntzari lotuta.

Inplikatuak ados daude, oro har

Erabakia hartu aurretik, inguruko merkatariekin, Aranzadi Ikastolako ordezkariarekin eta bizilagunekin elkartu dira Udal Gobernuko ordezkariak, eta, diotenez, begi onez ikusi dute erabakia, "orokorrean".

Obra aurreratzeko erabakiari dagokionez, bizilagunak dira kezka nagusia: "Egoera dela-eta bizilagunekin ezin izango du bilera modu presentzialean egin, proiektuaren aurkezpenean egin genuen moduan. Atari bakoitzeko ordezkariak deitu genien eta azaldu genien zein zen egoera. Uste dugu kalteak denboran murriztu egingo direla, alde batetik, eta hori positibotzat hartzen dugu. Egia da, aldi berean, konfinamendu sasoian

batzuek etxean denbora gehiago pasatu beharko dutela eta horrek eragin negatiboa ere baduela. Baina alde onak eta txarrak baloratuta erabaki dugu obra aurreratzea", argitu du Artolak.

Matxura batetik datorren obra

Lanon helburu nagusia da eremu osoa berriro urbanizatzeko. Hala ere, atzera egin beharra dago obraren testuinguru osoa ulertzeko; izan ere, obra gauzatzeko beharra sortu zen 2019ko udan ur-hoditerian ezustean izandako matxura batek eraginda. Abuztuan, behin-behineko irtenbidea eman zitzaion, eta aurten, maiatzean ziren hastekoak behin betiko soluzioa emateko lanak; esandako moduan, hilabete inguru aurreratu da exekuzioa. Lanen artean dago ur-hornidura eta kanalizazioa erabat berritzearena eta euri-urak jasotzeko sistema eraberritzearena. Lan horiek guztiak egingo dira erai-kinen aldean, eta interbentzioak izango dira etxebizitzaren ondoan, aparkalekuan eta galtzada zati batean. Gainera, espaloien jatorrizko neurria 15 zentimetro zabalduko da, besteak beste.

Obrek irauten duten bitartean, kaleko zati horretako aparkalekuak hustu egin dituzte eta asmoa da seminarioko patioa zati bat aparkaleku moduan erabiltzea; betiere, alarma egoerak irauten duen bitartean. Hortaz, gaur egun etxeen aldean dauden aparkalekuak, hogei inguru, desagertu egingo dira.

CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI ARI DA LANOK EXEKUTATZEN; AURREKONTU OSOA 450.000 EURO DA



Eguazten goizean hasi ziren Ibargarai kaleko 4. eta 14. atarreen arteko zatia berriro urbanizatzeko lanak. JOKIN BEREZIARTUA

Apirilaren 27an jakingo da jaiak atzeratu edo suspenditzen diren

Maiatzaren 29tik ekainaren 2ra ez dira ohi moduan egingo; asteleheneko osoko bilkuran azalduko da zein den plana

J.B. BERGARA

Erramu zapatua ezin izan zen ohi moduan ospatu eta halaxe gertatuko da Pentekosteekin ere. Bergarako jai nagusiak ere *kutsatuko* ditu COVID-19ak. Pentekosteak ez dira orain arte

ezagutu diren modukoak izango aurten; maiatzaren 29tik ekainaren 2ra ziren ospatzekoak eta data horietan ezingo dira ohiko jai ereduarekin ospatu. Erabaki ofizialaren berri ez du eman Udalak eta aurreratu dutenez

apirilaren 27an egingo den osoko bilkura telematikoa azalduko dute zer erabaki duten. Atzo iluntzean egindako kultura batzordean hizpide izan zuten gaietako bat izan zen.

Sanmartinak luzeagoak egitea?

Bolo-bolo dabilen gaia da, eta festazaleenak atzeratzearen alde daude; aurreikustekoa da San Martzial ere ezingo dela ospatu eta askok sanmartin luzeagoak nahi dituzte. Ziurra den bakarra da COVID-19ak aginduko duela.



Bitorianatxoren jaitsiera egiten bada ere, ziur ez duela iazko irudirik utziko. I. SORIANO



TAO izan da erabat eten duten azpikontratutako zerbitzuetako bat; irudian, Oxirondoko TAO gunea eguaztanean. ANDONI GOITI

Azpikontratazioak etetera edo moldatzera behartuta

Alarma egoeraren prebentzio neurrien artean hainbat zerbitzu eta hornidura bertan behera geratu ostean, Udalak azpikontratutakoak eten edo moldatu behar izan ditu; TAO, Seminarixoko zinema, kirol zerbitzua, gaztelekua eta ludotekak dira horren adibide

Jokin Bereziartua BERGARA

Alarma egoerak administrazio publikoek kontratatutako hainbat zerbitzu eta hornidura bertan behera uztea ere ekarri zuen. Langileen soldatak bermatzeko asmoz, martxoaren 18an Espainiako Gobernuak ezagutzera emandako dekretu batek azaltzen du administrazio publikoek barne kalte-ordainak eman beharko dituztela etendako azpikontratuetan, honako kontzeptu hauek: langileen soldatak, aseguru-primen kudeaketa, bermea gordezegatik izaten diren gastuak, eta ekipo, tresneria eta bestelakoen alokairua. BEZa, gastu orokorrak eta onura industrialak dira kalte-ordainen konpentsazioa jasotzeki salbu geratzen direnak.

Udal Gobernuak arloz arlo aztertu du zein den Udalaren egoera: "Indarrean dauden kontratu guztiak aztertu eta udal teknikarien iritzia tekniko jaso ostean, alkateak izenpetutako zirkular bat bidali zitzaizen zerbitzua emateko zailtasunak ziztuzten adjudikazio-hartzaileei, euren eskaera aurkeztu eta kalte-ordainak jasotzeko prozesua errazteko".

"Konpromisoa" ERTEen aurrean

Enplegua aldi baterako erregulatze espedienteen bueltan (ERTE), Estatuak ordainduko ez duen zatia ordainduko Udalak: "Espediente horrekin, langileari kotizazio-oinarriaren %70 ordaintzen dio Estatuak; Udaltik adjudikazio-hartzaileei jakinarazi zitzaizen ERTEa tramitatuz gero, eta soldata %100ean bermatzeko, Udalak soldataren gainontzeko zatia ordaintzeko konpromisoa hartu duela".

Zerbitzu batzuetako adibideak

Udalak erabaki zuen zerbitzu batzuk osorik etetea, beste batzuk partzialki eta beste batzuk birmoldatzea. Erabat eten dira, adibidez, TAO zerbitzua eta Seminarixoko zinema emanaldiak. Partzialki eten diren zerbitzuen artean dago kirol zerbitzua, ikastaroak online ere eskaintzen dira eta. Eta moldatu behar izan diren zerbitzuen artean daude gaztelekua eta ludotekak, besteak beste; lehenean hezitzaile birtualaren figura indartu dute eta ludoteketan hezitzaileek sare sozialen bidez helarazten dizkiete jolasak umei.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conef.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com



Elikagai postua Oxirondoko azokan, apirilaren 11n; alarma egoerako zapatu guztietan egon da bertan erosteko aukera. OIHANA ELORZA

Komertzioa herritarrekin lotzera, eta alderantziz

Alarma egoerak herriko merkataritzari eragingo dion kaltea arindu nahian, 'Herriko komertzioa Bergararekin, Bergara herriko komertzioarekin' kanpaina abiatu du Udalak; dendariak, berreskuratuko ez den oraina galduta ere, "gogotsu" daude lanera itzultzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko komertzioa Bergararekin, Bergara herriko komertzioarekin. Horixe da alarma egoera barruan herriko komertzioaren alde Udalak abiatu duen kanpainaren leloa. Halaxe azaldu du Udalak zertarako abiatu duten azken kanpaina hau: "Helburua da Udalak eta herriak herriko komertzioari merezi duen esker ona eta balioa ematea, COVID-19 gaitza gehiago ez hedatzeko egindako ahaleginagatik eta egunerokoan herriari ematen dioten guztiagatik". Kanpainaren barruan Udalak komertzioetako arduradunei gonbidapena egin die bergararrei zuzendutako mezuak bidaltzeko. Mezu horiek guztiak zabaltzen hasiak dira dagoeneko sare sozialen bitartez; orain arte, herriko 20 negozio animatu dira.

Dendari batzuen testigantzak

Oxirondoko azokan denetariko jaki izoztuak saltzen dituen Izotz dendako Asier Latorrek honako

hau dio, azokako dendari guztien izenean: "Beti hor egon garen moduan, egoera honetan ere gure zerbitzua ari gara eskaintzen. Etorbizunen horrela izatea gustatuko litzaiguke. Jarri balioan daukaguna, jarri balioan aberasten gaituena". Era berean, herritarrek erosketak herrian egitearen garrantzia nabarmendu du Igaro lurrindegiko Jone Igartuak: "Garaiotan gure buruak eta ingurukoak zaintzea tokatu zaigu, eta hau guztia bukatzean herria zaintzea tokatu zaigu. Horretarako, herritarrek ezinbestekoak izango zarete. Gu lehengo ilusio berberarekin bueltatuko gara lanera".

Anezka arropa dendako Asun eta Ana Parrak ere mezu posi-

HERRITARREI EUREN "NEGOZIO KUTUNAK" BALORATZEKO DEI EGIN DIE UDALAK, 'GOOGLE MAPS'-EN

tiboa dakarte: "Koronabirusaren erruz berreskuratuko ez dugun oraina galdu badugu ere, etorkizun handia dugu aurretik elkarrekin. Hau guztia bukatzen denean zuekin batera jarraitu nahi dugu, azken 34 urte hauetan egin dugun moduan".

AGM Edergintzako Azahara Gonzalez ere etorkizunera begira dago jarrita: "Garai oso txarrak ari gara pasatzen, baina egoera hau bukatzen denean denon artean aurrera egingo dugu. Zuen zain egongo gara".

'Google Maps' bidez, balorazioak Horrez gain, Udalak gonbidapena luzatu nahi die herritar guztiei euren "negozio kutunak" direnei elkartasun mezuak bidaltzeko, betiere balioa emateko asmoz. Horretarako, *Google Maps* aplikazioa baliatuko da. Bertan, negozioa edo negozioak aukeratu eta *Reseñas* atalean aukera dago negozio horiei zuzen-zuzenean idazteko. "Jarri bost izarreko puntuazioa", dio Udalak.

Lubakik testigantzak jasoko ditu, "egoera errearen" berri izateko

Lekukotasunak 'lubakisarea@gmail.com'-era bidaltzea eskatu dute; aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dute

J.B. BERGARA

2019ko urriaren 19an aurkeztu zuten Lubaki Langileen Elkartasun Sarea, Irizar jauregian, eta ordutik zenbait ekimen abiatu dituzte; tartean, apustu etxeen problematika lantzeko saio bat.

Orain, COVID-19aren ondorioz egoera larriena bizi duten langileei laguntzeko, testigantzak jasotzen dihardute: "Desinformazioaren garai honetan, modu errealean bizi ditugun egoerak sozializatzeko eta analisi egoikiagoa egin ahal izateko erabiliko ditugu testigantzak. Egoera

zail honetan ere, antolakuntza eta autodefentsan berresten gara; burgesiaren ofentsiba gelditu!". Testigantzak *lubakisarea@gmail.com* helbide elektronikora bidali behar dira.

Osasun irizpideak bete beharra Langileek "zuhurtziaz eta arduraz" jokatu behar dutela uste dute Lubakikoek: "Osasun irizpideak zorrotz bete behar ditugu; osasuna, egia, askatasun politikoak eta langile antolaketza aldarrikatzen ditugu burgesiaren ofentsibaren aurrean".

OHARRAK

010 telefono zenbakia erabiltzeko dei berezia

Udaleko Gizarte Zerbitzuek gogora ekarri dute 010 telefono zenbakia erabilgarri dagoela egoera larriena bizi dutenei begira. Honako arlo hauetan zentratu dira, bereziki: hirugarren adina, mendekotasuna, indarkeria matxista, adin txikikoak, drogamenpekotasuna, elikadura edo energia beharra dutenak...

Seminarixoko ikuskizunak, sarean ikusgai

Ikuskizunetako batzuk sarera igotzen ari da Udala: *Punkowsky, Ain_1* eta *Ufadak* espektakuluak ikusgai daude, besteak beste.

Kalean jartzeko argazki erraldoien aukeraketa

Lehen argazkia Iralara ematen duen Seminarixoko fatxadan jarriko dute eta udal artxiboko 1936ko, 1943ko eta 1963ko hiru argazkiren artean aukeratu beharko dute herritarrek. Botoa www.bergara.eus-en eman behar da, hilaren 30a baino lehen.

Pentsiodunen asteleheneroko zita, balkoietan

Alarma egoera aurretik plazan elkartzen baziren ere, orain balkoia da euren aldarrikapenerako gunea, "kalitatezko osasun publiko eta unibertsal" eskatzearekin batera. Zapiak jarrita balkoira irteteko dei egin dute, astelehenero, 12:00etatik 13:00etara.

Ilea apaintzeko hainbat aholku telefonoz, egoera normaldu arte

Dendak itxita eta etxez etxeko zerbitzua debekatuta dagoenez, herriko ile-apaindegiak telefono bidezko zerbitzua ari dira eskaintzen, euren bezeroei aholkuak emateko. Irekierara begira ere badaude lanean: "Segurtasun-protokoloa ari gara diseinatzen bueltatzen garenerako; denon artean lortuko dugu!". 21 ile-apaindegi batu dira ekimenera.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

'Herrikoen' auzia, alarma egoeran gauzatzen hasia

'Herriko tabernen' auziaren barruan, 2015eko epaia gauzatzen hasi zen eguaztenean Auzitegi Nazionala, eta Debagoienean Bergarako Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste lokal batzuk daude enbargatuak izateko arriskuan; inplikatuak babesa eskatu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko tabernen auziaren barruan, 2015ean Auzitegi Gorenak emandako epaia gauzatzen hasi da azken egunotan Auzitegi Nazionala. Auzitegi Nazionalak 2014an atera zuen 35/02 sumarioko epaia, eta bertan, 107 herriko taberna konfiskatzeko agindua eman zuen, ETaren egitura finantzatzeko zutela leporatuta. Auzitegi Gorenak 2015eko ekainean berretsi zuen sententzia, eta orduan, Arrasateko Irati eta Oñatikoko Gorgo Mendi izan ziren libratu ziren bakarrak Euskal Herrian, Pasai San Pedroko Antxeta eta Harotz Toki-rekin batera. Hortaz, Debagoienean Bergarako da ixteko arriskuan dagoen bakarra; Arrano taberna, Artatse elkarte, elkarte zaharra zegoen lokala eta bi garaje dira arriskuan daudenak.

Kontuak enbargatuta daude

Arrano taberna "bahitzeko" lehen urratsa egin dutela adierazi dute: "2015ean enbargatu zuten bankuko kontu korrontea eta ezin dugu ziurtatu dirua eureganatu duten edo ez. Baina badugu sumoa mugimenduren bat egon dela". Hurrengo urratsa zein izango den galdetuta, honako hau diote: "Bankuko kontuekin



Arranoren eta Artatseren aldeko manifestazioa, 2015eko ekainaren 18an. GOIENA

egiten duen moduan, hurrengo urratsa gure ondasun higiezin guztiak lapurtzea izango litzateke. Ez dakigu noiz eta nola egingo duten, baina etorriko dira; horregatik, Bergarari eta Debagoieneko herri guztiei adi egon daitezela eskatu nahi diegu. Sare sozialetan emango dugu prozesuaren berri, baina denon laguntza ezinbestekoa izango da".

Egoera hau baliatu izana salatzen Arrano tabernako arduradunek bereziki salatu dute alarma egoeran hasi direla duela bost urte-

ko sententzia bat gauzatzen: "Arrano itxi nahi dutenek badakite zein den herritarren iritzia. Gainera, gure herriko tabernak erasotzeko momentu honetan bizitzen ari garen salbuespen egoera ari dira aprobetxatzen. Hala ere, inoiz baino gogo eta indar gehiagorekin aurkitzen gara, eta borrokan jarraituko dugu gure taberna bizirik mantentzeko".

Era berean, albistea eguaztenean zabaldu zenetik, jaso dituzten "askotariko mezuak" eskertu nahi izan dituzte.

Elikagai bankuak bonuen alde egin du, ohiko bilketarik ez

Jakiak beharrezko diru kopuru bat bideratzeko eskatu dute, ondoren behar diren erosketak eurek egin ditzaten

J.B. BERGARA

COVID-19ak eragin zuzena izan du Bergarako elikagai bankuaren funtzionamenduan. San Juan auzoko pabiloian lanean aritu ohi diren boluntario gehienak erretiratuak eta, beraz, arrisku taldekoak izanik, beste era batera dabilta lanean. Supermerkatuetako ohiko bilketak ez dira egiten kutsatzeak ekiditeko, eta maiatzean hasi ohi den Bilketa Handia ez da egingo aurten. "Alarma egoera ezarri eta lehen bi asteetan janaria behar handiena dutenei ematen dieten erakundeek bazuten stocka, baina, gutxika, agortzen joan da. Bonuak dira gure proposamena", dio Felipe Uriarte boluntarioak.

Profil berriko jendea ere bai

Zer diren bonuak? Herritarrek bideratzen duten diru kopurua gero janariarekin trukatzeko.



Jakiak sailkatzen, 2018ko abenduan. J.B.

"Metodo segurua eta egokia da eta bonu horiekin benetan behar diren elikagaiak erosiko ditugu", zehaztu du Uriartek. Bestalde, profil berriko jendea hasia dago eskaerak egiten: "Orain arte etorri izan ez den jendea hasi da gure zerbitzua eskatzen".

'COVID-19 gogoeta gunea', Telesforo Monzon laborategian

Olaso Fundazioaren ekimenez 2019ko irailaren 12an aurkeztu zuten Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiaren barruan, gogoetarako gunea bat sortu dute, COVID-19ak Euskal Herrian izango duen eraginaz hausnartzeko: "COVID-19ak eta bere garapenak ondorengo hilabete eta urteetako Euskal Herriko dinamika ekonomiko, politi-

ko eta soziala baldintzatuko du. Eta testuinguru honetan, gure asmoa etorriko denaren gaineko gogoetarako espazio ireki bat eskaintzea da. Atal honetan, Euskal Herriaren etorkizuneko erronken inguruko ekarpen kualifikatuak bilduko ditugu, gure herriak COVID-19 osteko etorkizunari aurre egiteko beharrezkoa duen herri gogoeta zabal eta sakonari laguntzeko asmoz". Webgune honetan irakur daitezke gogoetok: www.telesforomonzonlab.eus/covid-19-gogoeta-gunea.

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA
Enpresa legegaitza Nº00/025

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Emeterio Ortiz de Lejarazu –ezkerrean lehena–, Lannemezana-en, Bergarako kideekin batera. INTXORTA 1937 KULTURA ELKARTEA

Errepublika ezarri zenekoa

1931n Bigarren Errepublika Antzuolan aldarrikatu zeneko bizipena jaso du GOIENAK protagonista izan zirenen senitartekoen testigantzen bitartez. Intxorta 1937 Kultura Elkartek urrian omenaldia egingo die 1936ko gerrako haur debagoiendarrei

Maidar Arregi ANTZUOLA

Emeterio Ortiz de Lejarazu eta Juana Saez senar-emazteak Errepublikaren sustatzaile aktibo izan ziren Antzuolan. 1931n Errepublika aldarrikatu zuteneko pasarte eta errefuxiatu gisa bizitako istorioa jaso du GOIENAK. Begoña eta Marina Aguayo Ortiz de Lejarazu biloben testigantzak batu ditu Intxorta 1937 Kultura Elkartearen laguntzarekin.

Antzuola bizitoki

"1889an Barakaldon jaio zen Emeterio; 1890ean Juana, Bilbon. Abentura-zaleak ziren eta Argentinara bidaiatu zuten; 1917ean Santa Fen ezkontza zibila ospatu zuten", gogoratzen dute bilobek. "Emeterio oso aktiboa zen, frantsesa bazekien eta *El Liberal* egunkarian idazten zuen. Kontrolpean bizitzea ez zuten atse-

gin, eta, horregatik, Antzuolara bizitzera joan ziren". Hogeigarren hamarkada amaieran, Olan enpresan kontu-hartzaile gisa lanean hasi zen Ortiz de Lejarazu; emaztea, aldiz, jostun lanetan etxean. "Berriro ezkondu ziren Arantzazun, Argentinakoa ez zelako balekoa. 1930ean jaio zen, gure izeba, Rosa".

Bigarren Errepublika

Udal hauteskundeak ezkertiarek irabazita, 1931ko apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu zen Espainian. Ortiz de Lejarazuk Antzuolan Errepublika ezartzeko asmoz behin-behineko gobernuaren ordezkaria izan zen. Udal artxiboan jasoa dago pasarte: "1931ko apirilaren 15ean, udaletxeko bakoitik Emeterio Ortiz de Lejarazu jaunak Errepublika ezarri zuen. Herritarren aldarrikapenen aurrean hiru

koloreko bandera altxatu zuen". Hartara, bizileku zuten Lapatza-Etxebarri baserria errepublikanoen bilgune bilakatu zen.

Bigarren alaba Azucena Bilbon jaio zen, 1933an. "Amonari baserrian erditzea baino segurua goa irudituz zitzaien Bilbon erditzea". Bien bitartean, Ortiz de Lejarazu Errepublikaren defentsarako komitean errepublikano ezkertiaren presidente izendatu zuten. Bere alboan izan zituen UGTko Ciriaco Uriarte, EAJko alkate Donato Lamariano, euskal langileen elkartasuneko (STV) Avelino San Sebastian; baita Ventura Jauregi, Felipe Elorza, Meltxor Gabilondo eta Antonio Jauregi euskal nazionalistak. Lehen neurrietako bat kolpe militarrekin bat egin zuten herriko karlistak espetxeratzea izan zen. "Baina garai hartan matxinatuak Antzuolara sartu

aurretik, senar-emazteak alabekin Bilbora ihes egin zuten, senitartekoen etxera. Bilboko bonbardaketan, Artxandako tuneletan babestu ziren".

Kolpe militarren erresistentziak iraun zuen bitartean, Bizkaitik, finantza arduradun lanak bete zituen, Antzuolako Fronte Popularreko kide baitzen. Gipuzkoako errepublikano ezkertiaren batzorde kide ere jardun zuen, Victoriano Telleriarte bergararrarekin.

Errefuxiatu Mexikon

Iñigo Ramirez de Okariz historialariaren *Irimodo* blogak jasotzen duenez, 1937an, Antzuolan atxilotutako epaiketan testigu gisa deklaratu zuen Ortiz de Lejarazuk, Fronte Popularreko presidentea zelako. Bilbo erori ostean, Kataluniara eta Frantziara ihes egin zuen. 1940an, Pirinioetako Lannemezana herrian hainbat bergararrarekin batu zen. "Josuren Gabilondok, Ramon Larrazek –Bergarako Ezkerra Errepublikanoko idazkaria– eta beste zenbait bergararrek Lannemezaneko kartzelaren eraikuntza lanetan ziharduten; baliteke Emeteriok horretan jardun izana ere. 1942an, Marseillako Mexikoren kontsulatuan lan egitea suertatu zitzaion, eta, horregatik, Marseillatik *Nyassa* barkuan Mexikoko Veracruzera joateko aukera izan zuen. Eta, hala, amonak alabekin *Magallanes* itsasontzian

Mexikorako bidaiari abiatzea erabaki zuen. "Aitonak enpresa bateko kontu-hartzaile lanak egiten zituen. Errefuxiatua zen, baina formakuntza zuen eta estimu handia zioten; oso eroso bizi izan ziren. Aitona, baina, 1953an gaixotu eta hil egin zen. 12 urteren ostean, etxera itzuli ziren ama-alabak: "Amona Juanak Bilbora itzuli nahi zuen eta 1954ko ekainean bueltatu ziren. Gogorra izan zen, ez zuten eta ezertxo ere. Farmazia laborategian hasi ziren amona eta izeba lanean; halaxe erosi zuten Begoñan etxea". Mexikarrak deitzen zieten diote bilobek, eta, berriro hasi beharra izan zuten arren, beti alai gogoratzen dituzte: "Gure ama oso alai zen, beti abesten zegoen eta urtebetetze egunean *Estas son las margaritas* abesten zigun".

Bailarako 55 haurri omenaldia

COVID-19a dela-eta urriaren 4ra atzeratu dute gerrako haurrei Elgetan apirilean egitekoa zen omenaldia. Tartean daude Begoña eta Marina Aguayo Ortiz de Lejarazu. "Ehunka izan ziren ihes egin behar izan zuten haurrak, beren familiarekin edo planifikatutako ebakuazioetan. Urte asko igaro dira: batzuk itzuli ziren erbestetik, beste batzuk ez. Horietako asko ez dira jada bizi, baina garaiz gaude gurekin dauden adinekoei merezi duten omenaldia egiteko", azaldu dute antolatzaileek.



Gurasoak bi alabekin, Mexikon. INTXORTA 1937 KULTURA ELKARTEA

Euskal komunitatean eroso


Veracruzko euskal komunitatean eroso bizi izan ziren, elkarri lagunduz: "Batzuek hozkailua eta garbigailua partekatzen zuten; amari eta izebari ingelesa eta mekanografia ere irakatsi zieten; lanerako gertatu zituzten", diote bilobek.

Eskolak, lasaitasun mezua herriko familiei

Oporren ostean martxan da berriz ere eskola. Egoera berrira egokitu behar izan dute irakasleek, ikasleek eta familiek. Bideokonferentzia bidezko saioak dira nagusi eta arrakala digitalari aurre egiteko SIM txartelak eta ordenagailuak banatu ditu Udalak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Gutziz ezohikoa izaten ari da 2019-2020 ikasturtea. Helburua orain lan errutina batzuk markatzea dela adierazi du Herri Eskolako zuzendari Libe Iñurriarrok, baina, batez ere, lasaitasun mezua igorri nahi die familiei. "Ari gara zehazten zer eduki falta zaizkigun emateko, eta horiei helduko diegu gutxieneko batzuetara heltzeko, baina familiek argi izan behar dute egunotan etxetik egingo den lana ez dugula kalifikatuko. Lan errutina batzuk markatzeko bidalitako lanak izango dira". Etxe bakoitzean egoera oso desberdina dela ohartarazi du zuzendariak. "Guraso batzuek gehiago eskatzen dute, baina beste batzuk lanean daude eta ezin diete umeei lagundu. LH-1eko eta LH-2ko haurrak, adibidez, oso txikiak dira eta gurasoak beraiekin egotea eskatzen dute. Eskolatik lasaitasuna transmititu nahi diegu familiei".



Seigarren mailako ikasle bat bideokonferentzia bidezko eskola jasotzen. E. E.

Inkesta familiei

Opor aurretik familiei bidalitako inkestatik jasotako erantzunak oso baliagarriak izan zaizkiela adierazi dute eskolako ordezkariak. "90 familia ditugu ikastetxean, eta, azkenean, 84k

erantzun dute inkesta. Egoera denondako da berria eta guretzako oso garrantzitsua da familiek nola bizi duten jakitea. Iradokizun asko jaso ditugu, eta horrek balio izan digu guk ere hausnarketa bat egiteko. Oro-

korrean, irakasleen presentzia handiagoa eskatu dute familiek, eta Haur Hezkuntzan ere bai. Hala, hortik etorri dira LHko ikasle guztiei Gmail kontua sortzeko erabakia, edota astean behin gutxienez HHko irakasleek bideoak grabatzea eta bidaltzea. Ipuinak, asmakizunak eta antzerakoak izango dira".

Eskolak, bideokonferentziaz

Eskola komunitate osoak ikasi behar izan du bideokonferentziak egiteko aplikazioak erabiltzen. Lehen Hezkuntzan dauden ikasleek astean behin gutxienez halako saio bat egingo dute aurrerantzean. "Tutoreak eta espezialistak adi daude eta bakoitzak detektatuko dituen beharren arabera markatuko du maiztasuna".

Irakasleendako ere ez da erronka makala. "Familiek bezala, guk ere bat batean egokitu behar izan dugu egoera berrira, eta bagoaz astiro-astiro. Bideo-dei bitartez ari gara gure batzarrak egiten. Elkarriz lagunduz eta bideo tutorialak ikusiaz joan gara ikasten. Oporrak erdi oporrak izan dira lanean, ibili garelako ikasturtea amaitzeko gelditzen diren bederatzi astei forma ematen", esan du zuzendariak.

Irakasle gehienak ere etxetik ari dira lanean, nahiz eta tarteka bateren bati ikastetxera joatea egokitzen zaion, izan dauden premiei erantzuna emateko.

Arrakala digitala leunduz

Lan modu berriek ia ikusezinak ziren egoerak jarri dituzte begi bistan; izan ere, familia guztiek ez dituzte baliabide berak eta bideo-deiak egin ahal izateko beharrezkoak dira Internetarako sarbidea eta ordenagailu bat. Arazoari aurre egiteko, Izaskom kooperatibak eskaintako SIM txartelak banatu ditu Udalak, eta horrekin batera hainbat ordenagailu eramangarri. "Eskolaren bitartez egin da premia hori eduki dezaketen familien detekzioa", adierazi du Iraitz Lazkano alkateak. Eskaera berri bat dago orain eta Udalak ez dauka ordenagailu eramangarri gehiago. Aurrerantzean, eskolak banatuko ditu Eskola 2.0 programako ordenagailu txikiak. "Tutoreak adi daude eta premia-rik sumatuko balitz aukera hori ere badago", baieztatu du zuzendariak. Mugikorretarako SIM txartelak banatu ditu Udalak. Wifia balitz bezala konpartitzen dira datuak ordenagailuarekin. "Sarbide hori bermatuta dagoen eskubide bat izan beharko litzateke ikasle guztiek izateko Internetarako sarrera", esan du Lazkanok.

**LAN ERRUTINAK
MARKATZEKO LANAK
BIDALIKO DITUZTE
ESKOLATIK ETA EZ
DIRA KALIFIKATUKO**



NIRE USTEZ

JULIA MONGE INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

Borrokatzen jarraitzen dugu

Gaur, apirilak 24, 83 urte betetzen dira Camilo Alonso Vega koronelak, milaka altxaturen buru zela, Elgeta-Intxorta-Kanpanzarri behin betiko eraso egin zionetik. Milaka gizon eta emakumeren erresistentzia eta etsaiaren etengabeko porrotak gorabehera, frontearen hausturak erabat zaildu zituen biztanleriaren bizi baldintzak, eta herri askoren aurka egindako gupidarik gabeko bonbardaketek haurren ebakuazio planifikatuak behartu zituzten, besteak beste.

Intxorta 1937 kultur elkarte eta Elgetako Udala haiekin omenaldi instituzionala egitekoak ginen, eta erbestera joan behar izan zuten haiek gogora ekartzea zen helburua. *Gerrako haurrak* izenarekin ezagutzen ditugun horiek guztiak, alegia.

Bizi dugun alarma egoera dela-eta bertan behera gelditu dira prestatuta geneuzkan jarduerak, baina frankismoaren zigorgabetasunaren aurka borrokatzen jarraitzen dugu, ziur baikaude horrek egia, justizia, erreparazioa eta errepikapenik ezaren bermerantz aurrera egiten lagunduko digula. Horixe da gure omenaldirik onena gizon eta emakume erresistenteei.

Etxean egonda ere, jarduera fisikoa egiteko proposamena

Kirol Zerbitzuko Etor Garatek zuzeneko spinning saioak eta tonifikazio ariketa proposamenak egiten dihardu

L.Z.L. ELGETA

Konfinamendu egoera dela eta, etxean egotera behartuta dago jendea. Neurriak ahalik eta eragin txikiena izan dezan, ariketa fisikoa egitea da adituen gomendioetako bat, nork bere aukerak baliatuta. Gauzak horrela, eta ahalik eta aktiboan egoteko espazioak eta aukerak mugatuak izan arren, egoera fisikoa zaintzeko baliabideak eskaintzeko ahaleginean da Udaleko Kirol Zerbitzuko Etor Garate. Zuzeneko spinning saioak egiten ari da, astean bi, eta horrekin ba-

tera luzaketak eta gorputzeko atal desberdinak lantzeko bideoak gotzen ari da.

Sare sozialen bitartez

Zuzeneko spinning saioak Instagrameko *garateelkoro* profiletik egiten ditu martitzenetan eta eguenetan, 18:30ean. Luzaketa eta tonifikazio bideoak, berriz, Youtubeko *Etor Garate* kanalera igotzen ditu. Lerrook idazterako, sei bideo ditu esku-ragarri luzaketak eta abdominalak lantzeko. Gehiago ere igoko dituela iragarri du.

Elgetan ere, Etxealditik Euskaraldira

Elgetako Euskaraldia batzordeak bat egin du astelehenean martxan den *Etxealditik Euskaraldira* ekimenarekin. Maiatzaren 3ra arte iraungo du eta bitarte horretan hainbat ariketa proposatuko dituzte etxean eta etxetik egiteko. Helburu nagusia da jendeak gertukoekin dituen harremanetan zer-nolako hizkuntza portaera duen identifikatzea eta aztertzea. Etxeko leihotetan koloredun puntuak jartzeko dei egin dute, eta, horrekin batera, ,etxeko kide bakoitzarekin zein hizkuntzatan berba egiten dugun taula batean apuntatzen joatea. Ariketa gehiago ere etorriko dira. Ekimenaren inguruko informazio gehiago, 10. orrian.



Boga tabernako pertsiana itxita eta sarrerako atean oharra koronabirusagatik itxita dagoela adierazteko. O.E.

Negozioak itxita dituzte eta zabaltzeko gogoz daude, ardurak izan arren

Martxoaren 15ean alarma egoera ezarri zenetik itxita daude herriko denda, taberna, jatetxe eta zerbitzu gehienak. Sarrerarik ez, gastuak bai, eta egoera noiz arte luzatuko den jakin barik. Baina konfiantza dute herritarrengan eta itxaropentsu daude

Oihana Elortza OÑATI

Zuhurtziaz baina era berean itxaropentsu begiratzen diote etorkizunari herriko dendariak eta ostalariak, bakoitzak bere egoeratik. Denak daude gogoz lanera bueltatu eta herritarrei betiko zerbitzua emateko.

geroari. "Esaterako, denda zabaldu arren, betiko moduan egin ahal izango dugu lana guk? Hau da, oinetakoak erostera datorrenari, probatu ahal izango dizkiogu guk, edo distantzia mantentzen jarraitu beharko dugu

eta ondorioz saltzeko modua aldatu? Oraindik ez dakigu nolakoa izango den honen osteko egoera", dio Olalde oinetako dendako Ane Zumelagak. Mauxka jatetxeko Agustin Otxoa-Aizpurua ere antzerako kezka bat

du, besteak beste: "Zabaltzeko baimena eman ahalaz bat lehen-go jende kopuru bera sartu ahal izango da jatetxera, edo edukiera txikiagoa izango da?". Alemanian, esaterako, jatetxeak itxita egon arren sukaldeak zabalik izan dituzte eta herritarren artean sentsibilizazio kanpaina egin dute sare sozialen bitartez tarteka jatetxeetan janaria eskatzeko, sektore horri laguntzeko. "Gu ere ari gara aukera hori aztertzen. Berez, prestatu dezakegu eta guk etxetara banatu. Baina inbertsio txiki bat egin behar da, eta paper asko bete. Etorkizunari nola moldatu ari gara begira, bai".

Kontzientziaziorako balio du

Herritarrek eta bertako komertzioek eta tabernekin urtetan izandako gertuko harremana "one-rako" izango dela uste dute Txanda dendarien elkarteko ordezkariak. "Egia da online erosteko ohitura baduela jendeak, eta egoera honetan oinarritzeko ez diren produktuak online ez erosteko mezua zabaldu gura izan dugu. Hori hor dago. Baina guk badugu esperantza herritarrek ondo erantzun dutela eta egoera hau amaitzen denean berriro bueltatuko direla guregana, gure negozioetara; badugu konfiantza", dio Aranburu bitxi dendako eta egungo Txandako presidentek, Mari Paz Mance-rasek. Gainera, negozioak itxita dauden sasoi honetan beste itxura bat du herriak, "hutsagoak daude kaleak, jendearen joan-etorriaz gain bada faltan igartzen den elementu bat", eta horretaz konturatuko direla oñatiarrak uste du Mance-rasek: "Agian, herritarrengan kontzientziazio hori sortzeko balio izango du konfinamendu eta itxialdi honek".

Ardura handia dute

Baina etorkizuna nolakoa izango den jakin barik, egungo egoerari aurre egiten dute lan orain zerbitzuetan diharduten herritarrek. Sasoi hau ez dute denek berdin bizi. Denden kasuan, adibidez, herritarrek eskatu dituzte produktuak, etxeko zapatila batzuk oinetako denda edo ilerako tindagaia ile-apaindegian, esaterako, baina taberna eta jatetxeetako jarduna etenda dago erabat.

Negozio bakoitzaren egoera desberdina da, baina kezka eta ardurak berdintsuak dituzte gehienek. Enplegu udal teknikariak, Unai Kortabarriak, dio, esaterako, orokorrean beraien ardurak transmititzen dutela, adibidez, Udalak jarri duen autonomoendako aholkularitza zerbitzuan: "Kasuan kasu, egoera desberdina bizi dute, baina gehienek aipatzen digute gastu mota ezberdinei aurre egin behar dietela -alokairuak, maileguak, hornitzaileak, langileen soldatak, argindarra, tasak eta zergak...- eta diru sarrerak etenda daudela edo asko gutxitu zaizkiela". Egoera honi aurre egiteko dirulaguntzei buruzko informazioa eskatzen dute, bereziki: "Udalak COVID-19arekin lotutako dirulaguntza eta neurri ekonomikoak biltzen dituen informazio buletin bat sortu du autonomo eta enpresa txikiei zuzenduta, eta hori bidaltzen diegu", dio Enplegu teknikariak.

Ez dute egoera samurra bizi sektore honetako langileek, baina herritarrei berriz ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko prestatzen ari dira. Eta egoerari onena atera guran, etxekoekin egoteko, behintzat, aprobeztatu dutela diote, duten egutegiarekin zaila izaten zaie eta hori.

Nolakoa izango den geroa

Garbi dute hori herriko merkataria eta ostalariak. Euren negozioak noiz zabalduko zain daude, gogoa dute lanera bueltatzeko eta herritarrei ohiko zerbitzua eskaintzeko, "betiko moduan, orain arte bezala".

Eta lanerako duten konfiantzari batzen diote; itxaropentsu daude. Hala ere, galdera asko eta kezka handiak dituzte, bai egun bizi duten egoerari lotuta, baita etorkizunari begira ere. Eta zuhurtziaz begiratzen diote



AXIBAR PALACIN

BOGA TABERNA

"Ziurgabetasuna. Hitz horrekin definituko genuke bizi dugun egoera. Ez dakigu noiz zabaldu ahal izango dugun taberna ezta nola ere, mugarik izango dugun... Lan barik eta arduratuta gaude, taberna zabaltzeko gogoz, herritarrekin berriz egoteko. Badugu esperantza lehengo girora bueltatzeko. Goraintziak herritar guztiei".



ISABEL NEGREIRA

LUAR JANTZI DENDA

"Martxoaren 14an ireki genuen azken aldiz. Udaberriko denboraldia galdutzat ematen dut. Martxoko eskaera jaso nuen, baina apirilekoa ez, eta ez dakit zer gertatuko den; jantziak hornitzen dizkidaten enpresek eskaerak bertan behera uzteko asmoa badute, baina ez dakit. Denda itxita eta fakturak ordaintzeko; gogorra da egoera".



AGUSTIN OTXOA-AIZPURUA

MAUXKA JATETXEA

"Martxoaren 13tik dugu itxita jatetxea eta ez dakigu noiz arte luzatuko den egoera. Aste honetan onartu digute langileendako ERTEa, baina ez dakigu alarma egoera amaitzean zer gertatuko den. Zabaltzen dugunean ere ez dakigu zenbateko edukiera izango duen gero jangelak. Galdera asko eta erantzun gutxi ditugu".



IZASKUN OLABE

IO ILE APAINDEGIA

"Lehen astea gogorra egin zitzaidan, baina erabaki nuen jarreraz aldatzea, eta baikor nago orain. Sare sozialak inoiz baino gehiago erabiltzen ditut: orrazkera edo makillaje tutorialak igotzen ditut, adibidez. Astean hiru bat formakuntza-saio jasotzen ditut *online*, eta prestatzen ari naiz zabalduko dugunerako".

500.000 euroko diru poltsa Udalak

Oñatiko Udalak 500.000 euroko diru poltsa bat sortu du koronabirusaren krisiak herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduetan eragindako kalteak "leundu" guran. "Eusko Jaurlaritzak herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduak laguntzeko behar moduko neurririk hartzen ez duela ikusita, inizatiba hartu eta horiendako laguntzak bermatzeko diru poltsa sortu dugu", dio Ibarra Elorza alkateak. Hala, "Eusko Jaurlaritzatik laguntzarik ez baletor, edo, etorritakoak, aski ez balira, laguntzak ziurtatzeko poltsa" sortu du Udalak. Hain zuzen ere, Neurri Ekonomikoen Mahaia sortu zuten alderdi bietako ordezkariak egoera honetan eta sektore horietako herritarrei laguntzeko, eta mahai horrek hartu duen erabakia da diru poltsa hori sortzea. Poltsa horri esker, konfinamendu neurrien ondorioz euren jarduera etenda dutenak, hamar langile baino gutxiago dituztenak eta pertsonen zuzenduriko zerbitzu edo produktuak eskaintzen dituzten negozioak lagunduko lituzke. Hauek dira Udalak martxan jarriko lituzkeen laguntzak:

- Argiaren faktura ordaintzen laguntzea: 68.000 euro.
- Uraren faktura ordaintzen laguntzea: 29.000 euro.
- Zabor tasak ordaintzea: 25.000 euro.
- Herriko komertzioen aldeko sentsibilizazio kanpaina abiaraztea: 8.000 euro.
- Bestelako kostu finkoen aurre egiten laguntzea: 220.000 euro.
- Erosketa bonuen sistema indartzea: 150.000 eurotara igoko da laguntza poltsa, eta, horri esker, 750.000 euroko fakturazioa bermatuko da Oñatiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko negozioetan.

62.500 euro 'Kuttuna.org' egitasmoan

Bestalde, Kuttuna izeneko zerbitzua jarri du martxan Magnet kooperatibak; merkataritza eta zerbitzu txikietan erabiltzeko bonu txartelak erosteko web plataformak bat da. Apirilko lehen asteburuan egin zuten publiko aplikazioa. Eta Udalak bat egin du plataformak horrekin. Hasiera batean, 20.000 euro bideratuko ditu egitasmo horretara, herriko komertzio txikiak laguntzeko helburuarekin. Hau da, herritarrek erosiko dituzten bonuen zenbatekoaren %20 diruz lagunduko du Udalak. Baldintza batzuk ezarri dituzte; adibidez, bonua 200 eurora artekoa izatea. Hori horrela, erosleak 40 euroan eskuratuko luke 50 euroko bonua; eta, 160 euroan 200eko. Bestalde, laguntza erosketa ezberdinetan banatu eta ahalik eta establezimendu kopuru handienera hel dadin, pertsonako 400 euroko muga ezarri da bonuak erosteko.

Udalak adierazi duen moduan, oso harrera ona izan du egitasmo horrek. Apirilaren 15ean batu zen Udala proiektura, eta, orduetik, eguazten iluntzean emandako datuen arabera, 62.500 euro eman dira bonutan.

"Hau luze joango da eta edonork izan dezake laguntza beharra"

BERTA ETXEGOIEN OÑATIKO CARITAS ELKARTEKO KIDEA
Diru kutxa sortu gura dute beharrei aurre egiteko

O.E. OÑATI

Osasun krisiak eragindako ondorioek kaltetutako pertsonen laguntzeko diru bilketa jarri du martxan Oñatiko Caritasak. ES26 3035 0005 3500 5110 4667 eta ES45 2095 5057 4210 60041984 kontu zenbakietan egin daitezke diru ekarpenak.

Nola ari zarete lanean orain?

Ezin dugu bulegora joan, ezta asteroko harrera saioak egin, baina jarraitzen dugu lanean, beharrei erantzuten; telefonoz eta telematikoki dihardugu.

Lan handiko egunak dira hauek?

Bai. Eskerak gehitu egin dira azken hilabeteetan. Oinarritzko beharrak dira eskatzen dituztenak, jatekoa, adibidez, baina egunero jasotzen dugu deiren bat ekonomikoki ez direla heltzen esateko. Lehengoek jarraitzen dute eskaerak egiten, baina berriak ere sortu dira.

Jende berriak jo du zuengana?

Lan barik gelditu dira asko, eta laguntza eske etorri dira herritar asko, bai. Gainera, kontuan hartu behar dugu elikagaien bankuak ez duela ohi moduan funtzionatzen. Banaketa berezi bat egin da, baina ez da asteroko banaketa. Eskolako jangelak ere itxita daude eta etxe askotan dena elkartzen da eta egoera larria bizi dute.

Egoera okertu egingo dela uste duzu?

Uste dut baietz. Egoera honek luze joko du eta behar berriak sortuko dira; horiei aurre egiteko pentsatu dugu komeniga-



Berta Etxegoien. J.M.

ria izango zela diru kutxa bat sortzea.

Ze profiletako jendea da Caritasak erabiltzailea?

Egia da hurbiltzen diren gehienak etorkinak direla, baina herriko beste edozein familari tokatu ahal zaio. 2008ko krisialdian ere ikusi genuen, bertako familia asko etorri ziren guregana; orain ere edozeini sortu ahal zaio laguntza beharra.

Nori bideratuta dago diru ekarpenak jasotzeko kanpaina hau?

Oñatiko herritarrei, bereziki. Orain arte ere euren ekarpenekin egin dugu aurrera, eta espero dugu orain ere euren elkartasuna jasotzea eta ekarpen horiekin erresistentzia kutxa sortzea. Enpresetatik edo erakundeetatik etorritako diru ekarpenak ere ongi etorriak izango dira, noski.



NIRE USTEZ

HORAZIO
ARGARATE

Gora bihotzak!

Zama bihurtzen ari den aldi tamalgarri honetan, "bertan behera" gelditu dira ekintza, gonbidapen eta eginbehar asko. Bizitza guztiz programatua daramagu: efikazia eta nagusitasunaren ordainean. Oporraldiak amaitu bezain pronto, hurrengoak amestu eta antolatzen hasten gara. Gure etorkizunaren jaun eta jabe garelakoan bizi gara. Baina errealitatearen aldakortasunak gure kontra egiten duenean, gure asmoak, egitarauak, ohitura eta, oraingoan bezala, bizimodua bera ere bertan behera doaz. Lurra jo arte? Lur jota gelditu arte? Ezta pentsatu ere. Etorkizuna bada.

Askotan, ez da izango guk nahi, desiratu eta antolatuko genukeen bezalakoa, alderantziz, burua makurtu beharko dugu eta pertsona, familia eta herri bezala osatzen gaituzten balioetara berriro bueltatu eta haiek bertan behera inoiz utzi gabe, modu berrian antolatuko gara. Horrelakoetan, gizakion aldatzeko ahalmena miresgarria da. Jesusen Pazkoa hor dago: gurutziltzatua, maitasunaren eraginez, bizidunen lehen Seme bihurtu da.

Bai, momentua da bihotzak goraino altxatzeko.



ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA
ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Mila Modu proiektu musikaleko kideak. MILA MODU

"Zirrikitia" izan nahi duen musika proiektua

Mila Modu musika taldea Gaztearen Maketa Lehiaketara aurkeztu da, hiru kantuz osatutako maketa batekin, eta finalisten artean dago. Oñatiarrekin batera beste 18 talde daude finalisten zerrendan eta apirilaren 28a da botoa emateko azken eguna

Maialen Regueiro OÑATI

Xabier Yanizek jarri zuen abian, 2019an, Mila Modu izeneko musika proiektua; hasierako helburua emozioaren bidez gogoea egitea zen. Taldekideen esanetan, proiektuak zirrikitu bat izan nahi du, kezka musikal eta intelektualen multzoa azalera-tuko duena, alegia, elkarlanean bide zabal eta askotarikoa egingo duena. Talde oñatiarrak *Boza free* izeneko kanta eta bideoklipa aurkeztu zituen 2019ko apirilean. Izan ere, Yanizek Oskar Arlanzonekin eta Andoni Camposekin batera osatu zuen taldea, lehendik hasitako bideari jarraipena emateko. Gauzak horrela, taldearen esentzia 90eko hamarkadako rocka da, eta hori da gaur egun taldearen proposamena: letra sozialak eta latzak, baina baikorrak.

Gaztearen maketa lehiaketa

Yanizek eta bere taldekideek Mila Modu proiektua aurkeztu dute Gaztearen 29. Maketa Lehiaketa

ketara. Yanizek azaldu duenez, proiektua osatzen duten taldekideak adinez hain gazteak ez diren arren, proba gisa aurkeztu dira lehiaketara: "Hiru kantuz osatutako maketa bat aurkeztu dugu, eta kante badute denbora bat. Gehienbat, jendearen harrera zein zen ikusi nahi genuen, baina ez geneukan esperantzarik".

Izan ere, taldekideek duela egun batzuk jakin dute beste hemezortzi taldeekin batera Mila Modu proiektua aurtengo Maketa Lehiaketako finalisten artean dagoela. Albiste, gainera, "sorpresaz" hartu dutela aitortu du Yanizek: "Finalisten artean geundela jakin aurretik, aurkeztutako abestiak entzuten aritu nintzen, eta taldekideei maila ona zegoela adierazi nien". Hala ere, albiste poztasunez hartu dutela aitortu du: "Talde moduan ez dugu aspaldian ezer kaleratu, eta gure lana hor dagoela ikustea pozgarria da".

"PROBA MODUAN AURKEZTU GARA LEHIAKETARA, ETA POZIK HARTU DUGU FINALISTAK IZATEA"

Finalistak diren taldeei botoa emateko aukera eskuragarri dago dagoeneko, Gaztearen Maketa Lehiaketaren atarian, eta botoa emateko azken eguna apirilaren 28a izango da. Yanizek, gainera, botoa ematearen xehetasun gehiago eman ditu: "Herriarrek emandako botoen artean talde bakarra aukeratuko da, baina final handian beste bi talde arituko dira, eta horiek epaimahai batek aukeratuko ditu".

Gauzak horrela, Yanizek lehiaketako irabazle izateak ekarriko lukeen azaldu du: "Sari ekonomiko bat izango genuke, baina gure antzera hazten dagoen proiektu bat ezagutzera emateko aukera eta plataforma ona izango litzateke".

'Herrixa kantuan' balkoitik balkoira egingo dute bihar

13 kantuz osatutako saioa Oñati Irratian entzun ahal izango da eta letrak udal atarian daude eskuragarri

M.R. OÑATI

Martxoko azken zapatuan egin zen bezala, bihar ere, 12:30ean hasita, *Herrixa kantuan* balkoitik balkoira egingo da. Oraingoan, Musika Eskolak 13 kantuko zerrenda osatu du eta horiek udal atarian daude ikusgai – *Aberriaren mugak*, *Aitormena*, *Erribera* eta *Euskal Herrian euskaraz*, besteak beste–.

Musika Eskolak hileroko ekimenarekin jarraitzea erabaki du, azken hitzorduak arrakasta izan zuelako eta ekimenak harrera positiboa izan zuelako

herriarren artean. Hala, bihar-ko saioko musika zuzenean entzuteko aukera izango dute herriarrek Oñati Irratiari esker, eta hitzezko euskarria, berriz, Udalaren atarian dago eskuragarri. Honen helburua da musikaririk inguruan ez duten oñatiarrek oinarri hori izatea eta kantuan aritzeko aukerarik ez galtzea.

Gauzak horrela, *Herrixa kantuan* ekimena antolatzen dihardutenek balkoi edo leihoetara kantuan egitera irteteko gonbidapena egin diete herriarrei.



PEÑA TXINBERA (EIBAR)

Datorren urtera atzeratu dute

Ritxi Mendiguren lagunarteak 25 urte betetzen dituela eta ekainaren 6an zen ospatzekoa Oñatin, Gipuzkoako Zuri-gorrien Eguna. Egoerak behartuta, baina, datorren urtera atzeratu dute ospakizuna antolatzaileek.

Egun osoko egitaraua zuten prestatuta antolatzaileek. Hala, hurrengo urtean egun hori Oñatin ospatuko dute, nahiz eta data zehazteko dagoen.

Raid proba bertan behera gelditu da, "segurtasunagatik"

Uztailaren 4an zen jokatzekoa Oñatiko IV. raida, baina antolatzaileek proba bertan behera uztea erabaki dute, baina udazkenerako herri barruko orientazio proba bat antolatuko dutela aurreratu dute.

"Ez dakigu egoera hau noiz arte luzatuko den, baina parte-hartzaileen segurtasunagatik, eta baita guregatik, lagunenga-

tik eta herriko kideengatik, aurtengo raida ez egitea erabaki dugu", adierazi du probaren antolatzaile Aier Olasagastik. Gauzak horrela, hurrengo raid proba 2021ean izango da.

Udazkenerako antolatzen diharduten Herri Rogaine proba herri barruan egingo da eta antolatzaileen asmoa da umeendako zein nagusiendako proba bat izatea, denak balizen bila ibiltzeko. Proba honen data, berriz, aurrerago jakinaraziko dutela adierazi du Olasagastik.



'GOIENA' ETA 'PUNTUA' ALDIZKARIAK, BAITA KORONABIRUS GARAIAN ERE

Goiena Klubeko bazkideok jasoko dituzue bi aldizkariak etxean.



Goiena Klubeko bazkide ez zaretenok, honako leku hauetan izango duzue Goiena aldizkaria eskuratzeko aukera:

ANTZUOLA

AIXA FRUTA DENDA (Buztinzuri kalea)
AMAIA JANARI DENDA (Aiherra kalea)
EROSKI (Dondarra plaza)
FARMAZIA (Kalebarren kalea)
ITZAR ESTANKOA (Kalebarren kalea)
IZARRA ARRAINDEGIA (Kalebarren kalea)
KLIKATU INFORMATIKA DENDA (Kalebarren kalea)
KOXXOR (Buztinzuri kalea)
M. KRUZ IPARRAGIRRE (Kalebarren kalea)
MARTIN OKINDEGIA (Kalebarren kalea)
MUJIKA HARATEGIA (Kalebarren kalea)

ARAMAIO

BIXENTE LOPEZ HARATEGIA (Bixente Goikoetxea plaza)
KINTELENA (Nardeaga kalea)
IBARRA OKINDEGIA (Nardeaga kalea)
FARMAZIA (Nardeaga kalea)

ARETXABALETA

ALIPROX (Aralar)
BOLINTXO (Durana kalea)
DANDONA OKINDEGIA (Durana kalea)
EROSKI (Basabe industrialdea)
IBARRA ESTANKOA (Bizkalo kalea)
IOSU HARATEGIA (Mitarte kalea)
JON HARATEGIA (Durana kalea)
KIOSKOA (Durana kalea)
LORAMENDI OKINDEGIA (Loramendi kalea)
BERDA OKINDEGIA (Basabe industrialdea)
OBEKI (Erreka-barren kalea)
OGIBERRI (Mitarte kalea)

ARRASATE

AGIRRE-ETXE (Zarugalde kalea)
ALEGRIA ESTANKOA (Zerkaosteta kalea)
ARANA EZKURRA ESTANKOA (Kontzezino kalea)
AZPILIKUETA (Doctor Bañez kalea)
AZPILIKUETA M. (Erguin kalea)
BALANZATEGI KIOSKOA 'TIBURON' (Biteri plaza)
BEROGI (Maisu Aronbarri)
BERTIZ (Kontzezino kalea)
BIRIBIL (Zarugalde kalea)
BOLINTXO (Arrasate pasealekua)
BOLINTXO (Otalora kalea)
CENTRO MEDICO UDALAITZ (Euskal Herria plaza)
DIA (Olarte kalea)
DONDEJON KIOSKOA (Erdiko kalea)
EREIN DA JAN (Araba etorbidea)
EROSKI CENTER (Zerrajera kalea)
EROSKIKO PRENTSA KIOSKOA (Eroski Merkatal Gunea)
FELI JANARI DENDA (Okendo kalea)
FRUTAS PEREZ (Maisu Guridi kalea)
FRUTAS PILAR E HIJOS (Seber altube plaza)
GARAI GARAI ESTANKOA (Araba etorbidea)
IRATZEDER OKINDEGIA (Nafarroa etorbidea)
IZAGIRRE HARATEGIA (Kurtzetxiki plaza)
J. RAMON OTAMENDI (Olarte kalea)
JOSE MARI SALEGI (Olarte kalea)
KORTABERRI (Antso Abarika kalea)
KUXKUR (Lapurdikalea)
LANDALUZE HARATEGIA (Iturriotz kalea)
LIDL (Gipuzkoa etorbidea)
MALLALDE (Zarugalde kalea)
MENDIZABAL OKINDEGIA (Seber altube plaza)
MUSAKOLA ESTANKOA (Antso Abarika kalea)
OGI BERRI (Deba etorbidea kalea)
OGI BERRI (Erdiko kalea)
OGI BERRI (Leintzibar kalea)
OSPITALA (Nafarroa etorbidea)
RITA (Errebuella kalea)
SABURDI HARATEGIA (Otalora kalea)
SAGASTA JULDAIN ESTANKOA (Olarte kalea)
SUPER BM (Araba etorbidea)
SUPER BM (Gipuzkoa etorbidea)
SUSTRAI (Olarte kalea)
USUE KIOSKOA (Uribe auzoa)

BERGARA

ANTIA HARATEGIA (Matxiategi kalea)
ARTESAN OKINDEGIA (Barrenkalea)
BIXAIN (Oxirondo azoka)
CRISTINA ESTANKOA (San Antonio kalea)
CRUZ HERMANOS (Ibargorai hiribidea)
EROSKI CENTER (Kruz Gallestegi kalea)
EROSKI CENTER (Leizeaga kalea)
ESPOLDIA (Espolzia)
ETXEBERRIA ESTANKOA (A. Fleming kalea)
GISELA AUTOZERBITZUA (Aranerrika kalea)
GOXO-TOKI (Matxiategi kalea)
IGARZA HARATEGIA (Irizar pasealekua)
SEBASTIAN IMAZ HARATEGIA (Aranerrika kalea)
JOSEFINA ESTANKOA (Barrenkalea)
PANADEROKUA OKINDEGIA (Tokieder plaza eta Burdinata)
LARRAÑAGA GOZOTEGIA (San Pedro kalea)
LETURIA HARATEGIA (San Pedro kalea)
MIZPILDI OKINDEGIA (Mizpildi kalea)
MUJIKA GOZOTEGIA (Artekalea)
OGI BERRI ELKOARTI OKINDEGIA (Ibargorai hiribidea)
OGIZUN OKINDEGIA (Ibargorai hiribidea)
BIDEKURUTZETAKO FRUTA DENDA (Bidekurutzeta kalea)
MATXATEGI KO FRUTA DENDA (Matxiategi kalea)
RUZABAL GOZOTEGIA (Artekalea)
SAN PEDROKO ESTANKOA (San Pedro kalea)
SUPER AMARA (Amillaga kalea)
TRIPONTZI-OGIBERRI OKINDEGIA (Matxiategi kalea)
UDAREA FRUTA DENDA (Oxirondo plaza)
URCELAY HARATEGIA (Ibargorai hiribidea)
URRIATEGI ESTANKOA (Lizario kalea)
FRAISKOZURIKO KIOSKOA (Fraiskozuri kalea)
ZANGITU ESTANKOA (Irizar pasealekua)
ZARE FRUTA DENDA (Irizar pasealekua eta Matxiategi)

ELGETA

ELKORO BOTIKA (Salbador kalea)
GOIKOETXE HARATEGIA (Salbador kalea)
JULIAN KIOSKOA (11:30ak arte plazan; ostean San Roken)
UGARI DENDA (Andra Mari plaza)

ESKORITZA

ALOÑA FRUTA DENDA (Gaztanadui kalea)
ALTUNA ANAJAK HARATEGIA (Arama kalea)
AZKAGA ESTANKOA (Gaztanadui kalea)
BOLINTXO (Jose Arana kalea)
COVIRAN (Aranburuzabala kalea)
IRAZABAL JANARI DENDA (Aranburuzabala kalea)
MARTIN FRUTA DENDA (San Juan kalea)
OGIBERRI (Gaztanadui kalea)
PAGALDAI (Gaztanadui kalea)
SANTA ANA (Santa Ana auzoa)

LEINTZ GATZAGA

LABIDEA (San Miguel plaza)

OÑATI

AIASTUI OKINDEGIA (Olebarrieta auzoa)
ALTUNA ESTANKOA (Kale barria kalea)
ANTXON HARATEGIA (San Lorentzo auzoa)
BIZIFÓZ (Portu kalea)
BM SUPERMÉRKATUA (Olekua auzoa)
DIA (Bidebarrieta kalea)
EROSKI (Aranzazuko ama kalea)
EROSKI (Errekalde auzoa)
ERREKALDE AUTOZERBITZUA (Errekalde auzoa)
ESKOLATXO OKINDEGIA (Atzeka kalea)
GARAI HARATEGIA (Mendiko kalea)
HARITZA LIBURU DENDA (Kale Zaharra)
IBARRONDO LIBURU DENDA (Foruen Enparantza)
IRAZOLA (Larrea auzoa)
IRIZAR ESTANKOA (Foruen enparantza)
IRIZAR OKINDEGIA (Atzeka kalea)
SAN LORENTZO FRUTA DENDA (San Lorentzo auzoa)
SAN MIGUEL KOOPERATIBA (Kale barria)
SUSTRAI (Kale barria)
URZELAI ESTANKOA (Lazerraga auzoa)

Informazio gehiago:

☎ 943 25 05 05

📞 688 60 00 07

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Baliabide publikoak zein pribatuak beharko dira hondoratzea saihesteko

Ekonomialari askoren ustez, II. Mundu Gerratik munduak jasan duen krisi ekonomikorik larriena izango da COVID-19 gaitzak eragindakoa. Mundu globalizatu honetan, gutxi izango dira kolpe hori saihestu ahal izango duten merkatuak

Miren Arregi ARRASATE

COVID-19 gaitzak sortutako mundu mailako krisiak ekonomian eragin zuzena izan du eta dagoneko asko dira merkatuetan eragindako kalteak, bai eta galdutako lanpostuak ere. Krisi honek izango duen inpaktua zenbatzeko lanetan dihardute ekonomiako indikatzaileek, eta egoera honetatik irteteko epeen eta moduen gaineko aurreikuspenak egiten ere bai. Nazio Batuen Erakundeak, besteak beste, II. Mundu Gerratik munduak jasan duen ekonomia krisirik handiena izango dela aurreratu du, eta hiru hilabeteetan munduan 230 milioi langabe utziko dituela iragarri. BBVA Reserch-en ikerketa batek, bestetik, Espainian 2020an 1,3 milioi lanpostu galduko direla aurreratu du, eta gobernuek neurriak hartu ezean Barne Produktu Gordinaren erorketa %8 eta %11,5 artekoa izango dela. Espainiako Gobernuaren arabera, jaitziera %6,6 eta %13,6 artean egon daiteke. Tarte oso zabala da, une honetako ziurgabetasunaren adibide. Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko dekanok Lander Belokiren ustez, krisiaren eragina murrizketen iraupenaren arabera izango da: "Koronabirusaren pandemiaren eragin ekonomikoak oso sakonak izaten ari dira, jarduera ekonomikoa ia erabat gelditu baitu munduko herrialde guztietan. Gaur egungo ekonomia globalizatu da, ekoizpena, bezeroak, salmentak, erosketak... denerako eta denekin harremana izateko erabateko mugikortasunera ohi-tuta gaude. Honek guztiak sor dezakeen krisi ekonomikoaren sakontasuna ezarritako murrizketen iraupenen menpe dago. Epe laburrean bueltatzen bagara

aurreko egoerara eragina ez da larria izango, baina murrizketek irauten badute eragina oso handia izan daiteke. Baliabide publiko eta pribatu guztiak mobilizatzea derrigorrezkoa izango da ekonomia bultzatzeko".

Errekuperazioa, ziurgabea

BBVA Reserchen azterketaren arabera, gizarteak ez du COVID-19aren aurreko langabezia tasa errekeratuko 2023. urtera arte. "Oso zaila da aurreikuspenak egitea", dio horretaz galdetuta

Mondragon Unibertsitateko Lander Belokik. "Badirudi osasun krisiaren zatirik okerrera Europako herrialde gehienetan ia pasatu dugula, baina inork ezin du ziurtatu atzerapausorik egongo ez denik. Txertoa iristeko oraindik hilabeteak falta dira, eta egoerari aurre egiteko erabakiak hartzeari ekin behar zaio", gehitu du.

Sektore kaltetuak, gehienak

Krisiak lan sektore gehienetan izango du eragina, nahiz eta ba-

tzuek kolpe handiagoa jasango duten. Ostalaritzaren, turismoaren eta kulturaren sektoreak dira zailtasun handienak izan ditza-ketenak, kontuan izanda azkenak izango direla normaltasunera bueltatzen. Industriaren alorrean ere kalteak handiak izan daitezke eta gorriak ikusiko dituzten bi sektore dira autogintzarena eta makina-erremintarena. Azken honek, adibidez, egungo lan erritmoarekin ezingo duela biziraun iragarri du, eskaerak %20 jaitzi baitira urteko lehen hiruhilekoan. "Makina-erremintaren sektorearen oinarritzko bezero diren sektore aeronautikoa eta petrolioarena hondoratu egin dira eta horrek eragin itzela izango du gurean", dio Soraluze S. Coop kooperatibako zuzendari nagusi Rafa Idigorasek. Gaineratu du autogintzaren sektorea krisiaren aurretik ere bizitzen ari zen geldialdia okertu duela honek eta bi sektoreen arteko lotura kontuan izanda egoera zailtzea ekarri duela. Hain zuzen ere, autogintzaren sektoreko patronalek kezka handiz bizi dute momentua; haiek 300 milioi euroko ekarpena egiteko eskatu diote Espainia-

ko Gobernuari. Lander Belokik bat egiten du Soraluze kooperatibako zuzendariaren esanekin: "Automozioa aurretik ere arazoekin zebilen eta oraingoan erabat erori dira bere salmentak. Makina-erreminta oraindik lanean ari da, aurretik zituen eskariei erantzuna ematen, baina egoera honetan eskari berririk ez du izango. Makina berriak erosteko asmotan ez daude orain enpresak eta horrek eragina du. Hurrengo hilabeteetan zailtasunak izango dituzten jarduerak dira bi hauek. Eta zailtasun hauek beren hornitzaile diren inguruko hainbat enpresa txikitarraino ere iritsiko dira. Jardun hauek mantentzeko laguntza eta neurrien bitartezko ahalegin guztiak egitea beharrezkoa izango da", azaldu du.

Euskal Herriko merkatu ekonomikoak baditu berezitasunak, esaterako, Espainiakoarekin alderatuta, baina, hala ere, biak ala biak oso lotuta daude. "Aurrez aurre egiten den jardun ekonomikoan erabateko eragina du krisiak; turismoa eta ostalaritza, kasu. Eta Espainiako ekonomian jarduera horiek erabateko garrantzia daukate. Euskal Herriko




Aitziber Plazaola, Bergarako Ereindajan dendan. A.P.

"Tokiko eta sasoiko elikagaiek garrantzia hartu dute krisialdian"

AITZIBER PLAZAOLA EREINDAJAN

"Denon egunerokoa aldatu da, eta horrek eragin du gurean ere. Orain, otordu guztiak etxean egiten dira, eta gehiago kontsumitzea dakar. Oinarritzko gauzak, barazkiak, frutak, arrautzak, irinak, lekaleak... kontsumitzen dira gehien. Bestetik, tokiko eta sasoiko elikagaiek garrantzia handia hartu dute, krisiak argi utzi baitu jendarte bezala ez gabiltzala ondo. Oinarrietara joan behar dugu, gure lurra eta buruak zaindu behar ditugu, eta horrek zuzenean du eragina elikaduran. Ekoizleekin berdin dihardugu lanean, euren onena ematen ari dira, erantzukizunez, kalitatezko produktuak herritarren eskura ipiniz. Etorkizuna iragartzen ez da erraza, baina eredu agroekologikoa indartzeko erabili beharko genuke".



Inazio Etxabari bergararra tabernaren aurrean. I.E.

"Jende kopuru txikiekin ez dakigu negozioa errentagarri izango den"

INAZIO ETXABARRI ETXAGI ETA EUXEBIO TABERNEN JABEA

"Sekulako kolpea eman digu krisiak. Diru-sarrerarik gabe ez dakit zenbat aguantatuko dugun. Bi taberna ditugu, eta bat alokatuta. Lokalaren jabea oso ondo portatu da, eta eskerrak eman gura nizkioke. Hala ere, ordaindu beharreko gastuei aurre egin ahal izateko mailegua eskatu behar izan dugu; ea ematen diguten. Zabaltzen dugunean, gainera, jende kopuru mugatuarekin, ez dakigu negozioak errentagarri izango ote diren ala ez; jendea masan ezin atera ahal izateak beldur handia ematen digu. Egoera hori izanik, laguntzak erradikalak izan behar lirateke, eta laguntza zuzenak ere ezinbestekoak izango dira; kontuan izan behar da gu izango garela hemendik irteten azkenak, kulturgintzarekin batera".



Bergarako Soralue S. Coop lantegian langileak lanean, atzo. RAFA IDIGORAS

"ESFORTZU EKONOMIKOAK ZOR PUBLIKOA HANDITU BEHARKO DU, EZ DAGO BESTE BIDERIK"

"KRISIAREN SAKONTASUNA MURRIZKETEN IRAUPENEN MENPE EGONGO DA"

LANDER BELOKI, EKONOMIALARIA

ekonomian industriak pisu erlatibo handiagoa duen arren, Euskal Herriko enpresentzat Espainiako merkatuaren garrantzia handia da; beraz, Espainiaren bilakaera ekonomikoak eragin zuzena dauka gurean", dio Lander Belokik.

Laguntzak, bizirauteko giltza

Egoera ekonomiko tamalgarri honek inoizko dirulaguntzarik handienak beharko ditu, kalteak ahalik eta txikienak izango badira. Hala, erakundeek nagusiki enpresei likidezia errazteko eta ordainketak atzeratzeko neurriak hartu dituzte, Belokiren esanetan, "inoiz hartu diren laguntza planik handienak". Laguntza horiek zor publikoa handituko dute, "baina ez dago beste biderik", azaldu du. "Daukagun arazo ekonomikoa ezinezkoa zaigu aurtengo urteko esfortzu ekonomikoekin ordaintzea; esfortzua datorren urteetara luzatu behar da, egingarria izan dadin. Horixe da zorpetze maila handitzea. Horren harira, 2008ko krisi ekonomikoan ikasitakoak balioko digu", azpimarratu du Belokik. Ildo horretatik, COVID-19aren krisia hasi zenetik adostasunetara iristeko Europak erakutsitako ezintasunak agerian jarri du Europako Batasunaren gobernantzen konplexutasuna, dekanoren ustez: "Halere, estatu guztiak dira kontziente Europa mailako laguntza planak aktibatzea derrigorrezkoa izango dela krisi sakon baten eror ez gaitzen. Krisi hori ez litzateke batzuenak bakarrik izango, guztiena baizik. Ondorioz, Europa kontziente da hartutako neurriak ez direla Espainiaren eta Italiaren mesedetan bakarrik, baizik eta denen mesederako izango direla".



Rafa Idigoras, Soralue S. Coop lantegi kanpoaldean. R.I.

"COVID-19aren krisia hasi denetik bi eskaera baino ez ditugu jaso"

RAFA IDIGORAS SORALUCE KOOPERATIBAKO ZUZENDARIA

"Kontuan izan behar da mundu mailako ekonomiak bazituela dezelerazio sintomak 2019an, eta horrek 2020ko lehen hiru hilabeteetan eragin du; izan ere, eskaera berriak asko gutxitu dira tarte horretan makina-erremintaren sektorean. Horri gehitu behar zaio COVID-19ak eragin duena; hala, bi izan dira krisi hau hasi denetik jaso ditugun eskaera berriak. Horri erantsi behar zaizkio beste bi aldagai. Entrega epeetan atzerapenak eta baita bezero batek edo bestek eskariak bertan behera uztea. Ez da erraza aurreikuspenak egitea, baina argi dago gobernua eta enpresak zorpetu egin beharko garela eta sarrerak asko jaitsiko direla zerbitzuen eta industriaren sektoreak errekeratzen hasi bitartean".



Jose Arana eta Jose Luis Elexpuru. J.A.

"Etxebizitzaren salmenta eremuan aldaketak egongo dira"

JOSE LUIS ELEXPURU ETA JOSE ARANA SAMPRU AGENTZIA

"Itxita dago agentzia. Gure jardura oinarritzakoa ez izanik eta, gainera, pertsonen arteko bi metroko segurtasun distantzia errespetatzea zaila denez, geldirik gaude. Epe motzera, sektorearendako galerak ekarriko ditu; hainbat ikerketaren arabera, ez da urteko azken hiru hilabete arte errekeratuko. Ikerketa horiek esaten dutenez, etxebizitzaren prezioak jaitsi egingo dira, baina, hala ere, gomendatuko genuke hilabete batzuk itxarotzea etxebizitza erostea erabaki aurretik. Bestetik, negozio eremuan aldaketak egongo direla aurreikusten dugu. Bisita birtualak gehitu egingo dira eta bezeroak aukeraketa bat egin ondoren, bizpahiru pisu bisitatuko ditu. Horrek agentzien aldetik egokitzapena eskatuko du".

Etxean ariketa fisikoak egiten dihardute askok; zentzuz egin behar dira

Konfinamenduan, sare sozialetara jo dute herritar askok etxean egiteko ariketa bila, baina denak ez dira egokiak, edo jakin egin behar da horiek ondo egiten, lesioak ager daitezke eta. GOIENAK hainbat adituren gomendioak jaso ditu

Xabier Urzelai ARRASATE

Gorputza ez dago geldituta egoteko diseinatuta, eta geldituta egote horrek kalte handiak eragin ditzake, gainera. Horri aurre egiteko, konfinamendua hastearekin batera herritar asko hasi dira sare sozialetan ariketa bila, eta ondo aukeratu ez duenari eta norberaren maila zein den garbi ez duenari, berehala azaldu zaizkio minak eta lesioak. Hain zuzen, sare sozialen bidez ariketa mota ezberdinak proposatzen dabilizan –euretako batzuk *Goiena.eus* atarian daude– Mondrako jokalaria Mikel Gonzalezekin, Athlon bizkar klinikako kide Miren Larrañagarekin eta Aike zentroko fisioterapeuta Ibai Agirreurretarekin izan da GOIENA.



MONDRA FT

MIKEL GONZALEZ

MONDRA FUTBOL TALDEA

"Ariketak egiteko orduan, arreta handia jarri behar zaie gorputzeko posturei"

Mondrako futbol jokalaria da Mikel Gonzalez, eta klubetik abian jarritako *Mondragym* ekimeneko protagonista da, berak egiten ditu-eta monitore lanak: "Ander Romero kirol zuzendariaren ideia izen zen. Ni taldeko jokalaria naiz, baina *Rome*-k badaki, horrez gain, gimnasio batean egiten dudala lan. Geldialdi une honetan proposo jo

zuen taldekideentzako bideo bat egitearena, eta nigan pentsatu zuen horretarako. Halaxe hasi ginen bideoekin".

Hasiera batean, bideo bakarra igo zuten Youtuben Mondra futbol taldeak duen kanalera, hainbat ariketa batzen zituena, baina orain, lan-saioak zatikatzen dabilizta, gorputzeko atal ezberdinak lantzeko. "Oraingo, bideoak igotzen jarraitzeko asmoa dugu. Egia da ariketak egitea ona dela; betiere, ondo egiten baditugu. Eta egia da, baita ere, halako ariketak inoiz egin ez dituenarendako ez dela erraza posturak zaintzea, eta hori oso garrantzitsua da. Alde horretatik, Youtuben bilaketa bat eginez gero eskaintza oso zabala izango dugu, baina minik ez hartzeko jendeak jakin behar du zein den bere maila, zer-nolako ariketekin hasi behar duen eta zelan egiten diren ariketa horiek ondo. Horrenbestez, nire gomendioa da oso-oso garrantzitsua dela ariketak egiteko orduan posturei arreta handia jartzea, hor egoten dira-eta akats handiak, eta poliki hasi behar dugu, lehenengo egunean ezin ditugu errepikapen mordoa egin, min hartu genezake eta".

Minik ez hartzeko, bestalde, ariketak egiten hasi aurretik beroketa egokia egin behar da: "Gorputza aktibatu egin behar dugu lehenago, horretarako ere bideo mordoa dago Interneten. Azken batean, guk ariketa posturalak proposatzen ditugu, eta egia da jendeari kosta egiten zaiola horiek ondo egiteko beroketa modu egokian egitea. Eta oso garrantzitsua da ondo bertotzea. Alde horretatik, hobe da egunero apur bat egitea, egun batean gorputzari egurra eman eta astebete giharretako mina-

rekin egotea baino. Garrantzitsua da gure mugak non dauden jakitea".



ATHLON

MIREN LARRAÑAGA

ATHLON BIZKAR KLINIKA

"Egin beharreko ariketak ondo aukeratu behar dira, gure mailaren arabera"

Miren Larrañagak Athlonek Aretxabaletako Ibarra kiroldegian duen bizkar klinikian egiten du lan. Zerbitzuko ateak itxita dituzte konfinamendu egoeran, baina zuzeneko saioak egiten dihardute bazkideekin, eta saio horiei esker monitoreek ariketak zuzentzeko aukera dute: "Guk ikuspuntu terapeutiko batetik egiten dugu lan, eta orain eskaintzen ari garen zerbitzua ere horrela oinarrituta dago".

Hala, *Hangouts* aplikazioari esker zuzeneko saioak egiten dabilizta, eta, horrela, monitoreak aukera dauka saioa gehiago pertsonalizatzeko: "Sasoi betean dagoenari ariketa gogorragoa proposatzeko eta horren ondo ez dagoenari lasaiago joateko esateko". Hala, bereziki bizkarra lantzeko ariketak egiten dituzte: "Hori da bereziki gure lan-esparrua, baina egin izan ditugu saio batzuk ariketa aerobikoetan oinarrituta, esaterako".

Horren ildora, Larrañagaren proposamena da sare sozialetan ariketak egiten dituzten kanalak



Goiena.eus atariko Kirol proposamenak izeneko kanala. GOIENA

bilatzeko orduan "ondo filtratzea": "Izan ere, sare sozialetan denetik ikus genezake, eta guk jakin beharko genuke ze ariketa diren guk egiteko modukoak eta zeintzuk ez. Hau da, ondo aukeratzea oso garrantzitsua da; izan ere, ariketa guztiak ez dira guztiok egiteko modukoak, edo gorputzeko atal hori lantzeko alternatiba egokiak bilatu genitzake. Oso garrantzitsua da ondo bertotzea eta zentzuz jokatzeta".

Izan ere, Larrañagak aitorzen du aste hauetan denetik ikusi duela sare sozialetan: "Inoiz kiroltik egin ez duen jendea hasi da bat-batean *crossfit*-eko ariketak egiten. Edo inoiz bizikletan ibili ez direnak astakeriak egiten dabilizta arrabol gainean. Egiten dugun hori osasuntsua izan dadin kontuz egitea komeni da, eta zentzuz jokatzeta".



I.A.

IBAI AGIRREURRETA

AIKE ZENTROA

"Fundamentalak da ariketak egiten hasi aurretik jakitea zein den gure helburua"

Ibai Agirreurretak zalantzak izan zituen bere bideoak Instagramera igotzeko erabakia hartu zuenean: "Aitortu behar dut gai horrekin nire buruarekin borroka izan dudala. Izan ere, ariketak proposatuz bideoak Internetera igotzea ondo dago, baina ez dago jakiterik jendeak ariketa horiek zelan egingo dituen, posturak ondo zainduko dituen... Alde horretatik, jakin beharko genuke ariketaren batean ez bagara ondo moldatzen hobe dela bertan behera uztea".

Hala, Agirreurretak garbi du gauzak ondo egiteko oso garrantzitsua dela helburuak garbi izatea: "Ez da gauza bera pisua galdu gura izatea, mantentze ariketak egitea ala gorputza indartu nahi izatea, esaterako. Hori da, besteak beste, gure egunerokoan bezeroei esaten dieguna. Hala, galdetegia pasa genien gure bezeroei, eta jasotako erantzunetatik abiatuta egin ditugu bideoak".

Amaitzeko, Agirreurretak dio aste hauek oso aproposak direla kirolariek izan ditzaketen hutsuneak indartzeko: "Aukera ezin hobea dugu gure ahulguneak indartzeko. Esaterako, mendi lasterketetan dabilen batek artikulazioetan defizita baldin badauka mugikortasuna landu dezake, eta orkatilen egoera hobetuko du, belaunena, alda-karena... Ohi baino denbora gehiago dugu normalean lantzen ez dugun hori lantzeko, gure defizitak txikitzeko".



Gurutze Gorriko kide bat, Elgean, mendi lasterkari bat artatzen. GOIENA

Probak pilatzeko arriskua dago

Uda ostean koronabirusak arnas apur bat ematen badu ere, zailtasun handiak egongo dira antolatu gura den guztia egin ahal izateko. Antolatzaileek arazoak izan ditzakete osasun zerbitzuak kontratatzeke, eta derrigorrezkoak dira

Xabier Urzelai ARRASATE

Oraingoz, zaila da aurreratzea udazkenean zein izango den koronabirusaren pandemiak utziko duen egoera, jende pila-etak onartuko dituzten ala ez, eta, horrenbestez, lasterketak egitea baimenduta egongo den ala ez. Baina, kasurik onenean ere, posible da koronabirusa ez izatea arazoa, eta bai osasun zerbitzuak antolatzeko ezintasuna. Izan ere, gaur egun, edozein kirol ekitaldi antolatzeko derrigorra da Gurutze Gorriko lagun- edo DYAKoen laguntza, eta horiek ere baliabide mugatuak dituzte: "Berez, udazkeneko hila- beteak oso beteak izaten dira, astebururo 4-5 hitzordu ezberdin izaten ditugu, eta, gehiago egongo balira, nekez iritsiko ginatke denetara", dio Ibon Yarzak.

Gurutze Gorriko boluntarioa da Yarza, eta ondo baino hobea

to ezagutzen ditu bailarako lasterketak: "Gustura etortzen gara ibarreko probetara, guretako ere erakusleho ona dira, eta boluntario berriak trebatzeko oso hitzordu aproposak. Horrekin batera, guretako finantzaketa-iturri oso garrantzitsuak dira lasterketak, langileak boluntarioak bagara ere Gurutze Gorriak zerbitzu horiek kobratu egiten ditu eta".

Ezintasuna denera iristeko

Hala, Zegama-Aizkorri eta Ehun Miliak lasterketak zuzenean 2021era atzeratu dituzte, baina

KIROL HITZORDUAK ANTOLATZEKO OSASUN ZERBITZUEN LAGUNTZA BEHAR DA DERRIGOR

beste lasterketa batzuk udazkenera pasatu dituzte: "Lasterketa handi horien aurrean, txikiek zailtasun handiagoak izaten dituzte, eta pena izango litzateke horiek ez antolatzea. Esaterako, Aloñako Igoera udazkenera atzeratu dute, eta Gurutze Gorrikook izugarri gozaten dugu bertan. Egun horretarako, Arabatik boluntarioak etortzen dira laguntzera, mendiko ibilgailuak ere behar izaten ditugu... Hau da, laguntza behar izaten dugu. Horregatik diot askok udazkenera atzeratzea erabakitzen badute gu ezingo garela denera iritsi. Esaterako, mendi bizikletako martxak ere sasoi horretan egiten dituzte, hitzordu asko pilatu daitezke. Egia da urte batean ez antolatzeagatik ere ez dela ezer gertatzen. Baina seguru egon gu ahal dugun guztietara joaten saiatuko garela".

Antolatzaileen iritzia:



ASIER OSINAGA
ANTXINTXIKETAN TALDEKO KIDEA

"Oñatiko 10 Kilometroak lasterketa ezingo dugu aurten egin; izan ere, Corpus jaien bueltan antolatzen ditugu, eta orain, pentsaezina da halako hitzordu bat egin ahal izatea. Gure hurrengo proba abenduaren 31n izango da, San Silvestre lasterketa; ea ordurako egoera konpondu samar dagoen".



PATXI TORRES ANTXINTXIKA TALDEKO PRESIDENTEA

"Behobia-Donostia lasterketa baino astebete lehenago izaten da gurea, denboraz gabiltza, baina maiatz erdirako erabaki bat hartu beharko genuke. Triatloi txikia bertan behera utzi dugu. Akaso, Antxintxika krosa aurrekontu txikiagoarekin antolatu beharko dugu, babesleen egoera ere ez da-eta samurra".



SUSANA ARRESE ABIXARAN TALDEKO KIDEA

"Berez, ekainaren 28rako antolatu behar genuen Torreazoko krosa, eta miraria izango litzateke antolatu ahal izatea. Garbi daukagu sasoi horretan ezin bada egin ez dugula proba atzeratuko; izan ere, Torreazoko jaien bueltan antolatzen den lasterketa da gurea. Maiatz erdialdean hartuko dugu erabakia".



ITXARO ARTOLA AED-KO ORDEZKARIA

"Oñati-Arrasate lasterketaren hirugarren edizioa izango da aurtengoa, eta, oraingoz, lasterketa antolatzeko ideia dugu buruan [urrian egiten dute]. Normalean, izen-ematea uztailean zabaldu izan dugu, eta ekainerako pentsatu gura dut egoera zein den ikusi ahal izango dugula. Oraingoz, ezin dugu askorik aurreratu".

Jendearen beharrak asetzen

Kirol hitzorduak antolatzeko –beste hitzordu asko moduan– ezinbestekoa da osasun zerbitzuak kontratatzea, eta Debagoienean DYAKo eta Gurutze Gorriko lagunekin egiten da hori. Konfinamendu egoera dela-eta orain momentuan ez dabilta halako zerbitzuak eskaintzen, ez dago lasterketarik, baina bestela ere oso lanpetuta dabilta konfinamenduetan sortu dituen beharrak asetzen. "Gure boluntarioak, besteak beste, Arrasaten eta Eskoriatzan dabilta kalera irten ezin direnei erosketak egiten, janaria banatzen edo zaborra ateratzen. Bi furgoneta bideratu ditugu lan horietara", dio Ibon Yarzak. "Eta DYAKo boluntarioak ere zeregin horietan ikusi ditut Bergaran; izan ere, badago jendea halako beharrekina".

Bibliotekak itxita, baina bibliotekariak lanean

Formatu fisikoko maileguak ezin direnez egin, gora egin dute Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen liburutegiek eskaintzen duten eLiburutegia plataformako mailegu digitaletik; 6.400 erabiltzaile berri izan ziren martxoan; milioi bat erabiltzaile ditu orain

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Martxoaren 13a geroztik liburutegiak itxita dauden arren, Debagoieneko udal bibliotekariak lanean ari dira erabiltzaileei *online* zerbitzua eskaintzen, udan argitaratuko duten *Biblioporrak* gida prestatzen eta eguneroko ohiko martxak uzten ez dien lanetan ere bai; hau da, liburutegietako funtsak garbitzen, osatzen eta antolatzen.

Mailegu digitalean laguntzen

Lau langile ditu Bergarako liburutegiak, batzuk etxetik ari dira eta beste batzuk liburutegian. "Mailegu digitalarekin lotutako deiak egunero jasotzen ditugu eta *Bergara.eus* atarian jarri ditugu argibideak", dio Mila Agirrezabal bibliotekariak.

Zortzi langile dira Arrasatekoan, eta etxetik ari dira guztiak. "Hasieran, hara joaten ginen bildumarekin lotutako zereginak egiteko, eta orain, telelanean ari gara: bibliografiak eta gomendio gidak osatzen, katalogoa orrazten, sare sozialak dinamizatzen... eta literatura solasaldiak ere *online* dira. Maileguetarako dei asko ari gara jasotzen gurean ere", dio Ane Berasategik.

Aretxabaletan bi liburuzain daude eta, bereziki, "inbentarioa eta antolaketa lanetan" ari di-



Liburuak kalera atera izan dituzte Liburuaren Nazioarteko Egunean. OIHANA ELORTZA

rela azaldu du Joseba Lopez de Armentiak; eta Eskoriatzan ere bi langile dira, baina asteen bera bakarrik izan dela lanean gaineratu du Iñaki Agirianok, bera ere telelanean. Elgetan, Antzuolan, Leintz Gatzagan eta Aramaion bibliotekari bana dute eta ezaugarri bereko lanekin ari dira; horiek ere, etxetik.

Oñatiko bibliotekan lau lagun direla kontatu du Arantzazu Ibarrondok, baina asteotan hiru ari direla, telelanean: "*Online* saioak antolatzen, mezuei erantzuten, bibliografiak idazten, katalogazioa, *online* bilerak... Kontrakoa dirudien arren, liburutegietan barruko lanek pisu handiagoa dute mostradore-lanek

baino. Jendeak uste duen baino lan gehiago egiten da atzean".

Liburuaren Eguna, atzo

Guztietan ziren apirilaren 23aren bueltan ekitaldiak egitekoak, baina bertan behera geratu edo atzeratu egin dira gehienak; hala dio Bergarakoak: "Urrian, Bibliotekaren Egunaren bueltan, formatu txikiko ipuin kontaketa telematikoak egingo ditugu

ESKORIATZAN, OÑATIN ETA ARRASATEN 'ONLINE' DIRA LITERATURA SOLASALDIK

ikastetxeekin elkarlanean", eta zera gaineratu du Elgetako Geaxi Ezpeleta liburuzainak: "*Artista liburuak* sormen lehiaketa abian dugu eta baita marrazki lehiaketa bat ere".

Euskarazko literatura taldea atzo bildu zela kontatu du Agirianok, *Miñan* (Amets Arzallus eta Ibrahim Balde) liburuari buruz *online* jarduteko. "Solasaldi itxia izan zen, ohiko ki-deentzako bakarrik. Liburuaren Egunaren egitarauaren barruan, *Ezagutuz ulertu, ulertuz maitatu* ekitaldia egitekoak ginen gaur, baina atzeratu egin dugu, eta gure asmoa da maiatzean egitea; horrez gain, astelehenean hasita, bi liburu gomendio -bideo formatuan- igoko ditugu astero, *Eskoriatzakoagenda.eus* atarira eta Eskoriatzako bibliotekaren Youtubeko kanalera".

Oñatikoek, hitzaldia gaur

Yurre Ugarte eta Ivan Repila irakurketa klub dinamikizaitzeen hitzaldiak antolatu dituzte Oñatikoek aurtengoa ospatzeko. Atzo, Ugartek *Joana Maiz* bere eleberririk grafikoaz jardun zuen, eta gaurko, Repilaren *Autores y personajes en cuarentena: una mirada lúdica al confinamiento en la literatura* proposatu dute: "18:00etan, *Meet.jitsi.si/Onatiko-liburutegiaHitzaldia* estekan klik egin eta hitzaldiaz gozatu. *Online* egin ezin diren ekitaldiak aurrerago egingo ditugu".

Arrasatekoek, OstegunERO

Atzo hasita, udaberriko eguenetan, haur zein helduentzako askotariko jarduerak eskainiko dituzte *Arrasate.eus/biblioteka* atarian, eguenetan, 16:00etatik 00:00etara -ipuin kontaketa, musika eta magia saioak, zientzia esperimenduak...-

Liburutegiko martxoko datuak

ARAMAIO

- Erabiltzaile berriak 3
- Maileguak 11

ANTZUOLA

- Erabiltzaile berriak 5
- Maileguak 9

ARETXABALETA

- Erabiltzaile berriak 16
- Maileguak 60

ARRASATE

- Erabiltzaile berriak 88
- Maileguak 247

BERGARA

- Erabiltzaile berriak 40
- Maileguak 107

ELGETA

- Erabiltzaile berriak 5
- Maileguak 13

ESKORIATZA

- Erabiltzaile berriak 11
- Maileguak 16

LEINTZ GATZAGA

- Erabiltzaile berriak 1
- Maileguak 2

OÑATI

- Erabiltzaile berriak 59
- Maileguak 175

HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90EKO HAMARKADAKO KIROLA (3. ATALA)
APIRILAREN 24AN, EGUBAKOITZEAN, 11:30EAN ETA 21:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.



Pareta zurien artean sormena koloreztatzen

Konfinamendua eramangarriago egiteko hamaika lehiaketa jarri dira martxan Debagoiengan. Lehiaketa gehienak egoera berrira moldatu egin behar izan dira, eta oinarriak aldatu dituzte, parte hartzaileak etxetik lehiatu daitezzen

Narrea Urien Berrio ARRASATE

Hainbat dira konfinamendu garaian sortzen ari diren ekimen zein lehiaketak. Eta aurretik sortuak zirenak moldatu egin behar izan dira egoera berri honetara. Debagoiengan mota askotako txapelketak abian dira momentu honetan.

Memegintza sustatu guran

Ibai-arte merkatarien elkartearekin lankidetzan, *Memegileak*, meme lehiaketa jarri dute martxan eta dagoeneko 60 lanetik gora jaso dituzte. "Sare sozialetan etengabea ari da izaten meme jarria, baina 10etik 9,9 erdaratan iristen zaizkigu, eta erdaratan partekatzen ditugu, horrenbestez. Ekin, bada, memegintzari: memelokeriak ere euskaraz askoz hobeto!", diote antolakuntzatik.

Literatura-zaleen lanen zain

Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak aurkezteko epea apirilaren 30era arte luzatu dute. Ipuin idatzia, poesia, komikia, ipuin-kontaketa, antzerkia, txistea edo umorezko pasadizoa... aurkeztu daitezke. Bestalde, 33. Arrasate literatur lehiaketetako oinarrietan aldaketa batzuk egin behar izan dituzte, baina abian dira. Antolatzaileak pozik daude momentura arte lortutako harrearekin: "Lan paregabeak jasozten gabiltza, eta oraindik bi aste geratzen dira bidalketa epea bukatzeko, animatu!".

Erraldoiak marrazkietan

20 urte bete ditu aurten Bergarako Erraldoi Taldeak, eta, hain zuzen ere, herritarrekin ospatu gura dute; hori horrela, erraldoiei buruzko haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu dute. Erraldoiak protagonista diren marrazkiak egitea proposatu dute. "Etxeko egonaldi behartuan haurrentzako eta horien gurasoendako lagunga-



Euspot 2020 lehiaketaren aurkezpena, otsailean. M.U.

KONFINAMENDUAN, SORMENA LANTZEKO MOTA GUZTIETAKO LEHIAKETAK MARTXAN DIRA

rri izateko asmoarekin" abiatu dute sariketa.

Euspot: moda azkarra

Aretxabaletako Udalak, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Arteman Komunikazioak sortutako Euspot euskarazko spot lehiaketa martxan da. Aurten, kontzientziario kanpaina baterako spota sortu beharko da, moda azkarrak eragiten dituen ondorio negatiboak ikusarazteko, *Zer dago janzten dugunaren atzean?* lelopean.

Irudimena argazkietan

Urtero bezala, aurten ere argitaratuko du Bergarako Udalak hurrengo urteko egutegia, herriko argazkilarien argazki ederez hornitua. Antolatzaileek herritarrak animatzen dituzte, besteak beste, konfinamendu

egoerarekin lotutako argazkiak bidaltzera, etorkizunean egoera honen lekukotasuna ere jasota gelditu dadin. Epea irailaren 25era luzatu dute. Bestalde, Armaion *Etxean eta euskaraz argazki lehiaketa* antolatu dute. "Badira aukerak, egun hauetan inoiz baino gehiago, euskaraz irakurtzeko, euskaraz jolasteko... Beraz, animatu eta zauden tokian zaudela, parte hartu! Entregatzeko epea maiatzaren 4an itxi-koda", diote antolakuntzatik.

Lehiaketen oinarriak haien webguneetan aurki daitezke.

Aurkezteko azken egunak

Meme lehiaketa: apirilak 25.
Literatur lehiaketak: apirilak 30 eta maiatzak 8.
Marrazki lehiaketa: maiatzak 1.
Euspot lehiaketa: maiatzak 13.
Argazki lehiaketak: irailak 25 eta maiatzak 4.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko apirileko sariak!

Parte hartzeko sariaren izena: **EROSKI** TABLETA



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GASTROLOGIA



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.berriaknaberiak.org
Klubeko txokoa txokoa

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarren laguntza LOPD 15/11/2010 legearen arabera, jakinarazten dugu zuei datu pertsonalari Goiena Klubeko Zerbitzuen bitartez automatikoki biltzen ari garenak. Datu horiek honen helburu bakarra da indarren datuaren sustapenean. Eskubidea eragoz dezakezue, baina zuzentzeko edo ezarritzeko, helbide beretara idatzita kluba@goiena.eus.

Irabazi bi lagunendako otordua

ERREKI JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkideztza: 56€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserría Oñatin. Baserri bat erosiko nuke Oñatin. Harremanetarako zenbaki honetara idatzi edo deitu: 653 01 71 65

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Neska euskaldun gaztea naiz eta etxebizitzaz aldatzea gustatuko litzaidake Bergaran. Norbait etxebizitzaren baten berri badu, mesedez jarri nirekin harremanetan. Eskerrik asko. Telefonoa: 684 14 95 54

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Klinika laguntzailea behar da berehalaz hasteko.
podologoerdiko@gmail.com

402. ESKAERAK

Bergara. Soziosanitario titulua daukan emakumea arratsaldetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Legezko agiriak eta lanerako titulazioa daukat. 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri gutzietan. 685 22 54 01

Debagoiena. Nikaragua-ko mutila gertu nagusiak zaintzen, nekazaritzan edota frutategian lan egiteko. 631 79 31 92

Erizain laguntzailea. Erizain laguntzailea orduka lan egiteko prest. Adineko pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egingo lituzke. 620 23 58 15

Nagusiak zaindu. Pertsona nagusiak zaintzea

nahi dut. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 19 71 33 (Mariela)

Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, arratsaldetan, aste bukarratzen edo jai egunetan. Badut autoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 15 50

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserriarako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, makurata, kolpearekin. Telefonoa: 623 17 95 37

8. DENETARIK

808. BESTELAKOAK

Lursaila errentan hartu. Gutxienez hektarea erdiko lursaila errentan hartuko nuke urtebetez, animaliak izateko, Arrasate, Arexabaleta, Eskoriatza edo Aramaio inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 66 19 80

ESKER ONA

M. Luisa Barandiaran Balanzategi



2020ko apirilaren 9an hil zen, 101 urte zituela.

Ilobek jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizute. Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzan dugunean zehaztuko dira.

Iturbide egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Arrasaten, 2020ko apirilaren 24an.

ESKER ONA

Emilio Acebo Cañizo



2020ko apirilaren 14an hil zen, 88 urte zituela.

Larrialdi egoera gainditzan dugunean zehaztuko dira hileta eguna eta ordua.

Pertsonalki ezinezkoa zaigunez, familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

Bergaran, 2020ko apirilaren 24an.

ESKER ONA

Jesus Garitano Macazaga



2020ko apirilaren 14an hil zen, 89 urte zituela.

Bere emaztea: Julia Elgarresta; seme-alabak: Igone eta Iñaki Agirre, Karmele eta Javi Elorza; bilobak: Joseba, Andoni eta Iñigo.

Eskerrik asko Mizpirualde egoitzako langileei gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik. Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue.

Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzan zehaztuko dira.

Bergaran, 2020ko apirilaren 24an

ESKER ONA

Gloria Uribe-Etxebarria Osinaga



Justo Etxebarriaren alarguna

2020ko apirilaren 18an hil zen, 98 urte zituela.

*Atzo gure ondoan,
gaur gure oroimenean,
betirako gure bihotzetan.
Zure ilobak.*

Ilobek jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizute. Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzan dugunean zehaztuko dira.

Oharra: Arexabaletako GSR egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Arrasaten, 2020ko apirilaren 24an.

ESKER ONA

Felix Antonio Altube Leibar



2020ko apirilaren 14an hil zen, 73 urte zituela.

Bere emaztea: Rosa Lasagabaster; seme-alabak: Andoni eta Lide Barbarias, Jon eta Lide Arenaza; biloba: Oxel; arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Beti gurekin egon zara, beti gurekin egongo zara.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue.

Arexabaletan, 2020ko apirilaren 24an.

ESKELA

Paulina Errasti Irasuegi



Mariano Retolazaren alarguna

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 100 urte zituela.

Larrialdi egoera gainditzan dugunean zehaztuko dira hileta eguna eta ordua.

*Bere seme-alaben, biloben eta birbiloben partetik,
etxeko bizipoza izan denari.*

Bergaran (Angiozar), apirilaren 24an.

ESKELA

M. Aranzazu Arzamendi Saez de Ibarra



-Goian bego-

2020ko apirilaren 18 hil zen, Donostian, 73 urte zituela.

Gurasoak: David (†) y Dolores (†); anai-arrebak: M. Natividad eta Jesus Saez, Jesus, Txomin eta Marisabel Mujika, M. Estibaliz eta Zoran Juric, M. Jose eta Gabriel Sanchez, Miren eta Iñaki Ansoategi; ilobak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue. Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzan dugunean zehaztuko dira.

Donostian, 2020ko apirilaren 24an.



Ibargorri 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Lizana, 62 m², 3 logela, igogailua, berrituta, bihotzera sartuta. 165.000 €.
- Bolu, 103 m², 3 logela, igogailua, berrituta, bi gaurer, bihotzera sartuta. 346.000 €.
- Sanzotenchubut, 75 m², 2 logela, parkinga, traxekoa, bihotzera sartuta. 175.000 €.
- Zubizarne, 63 m², 2 logela, berrituta, igogailua, bihotzera sartuta. 95.000 €.
- Ibarra (Luzagabaster) 59 m², 3 logela, berrituta. 65.000 € PREZIO JETTSERA.
- Oñatin, 72 m², 3 logela, berrituta, bihotzera sartuta. 100.000 €.
- Lizana (San Lorenzo), 63 m², 2 logela, berrituta. 151.000 € PREZIO JETTSERA.
- A. Fleming (Iparrigorri) 40 m², 2 logela, berrituta egokituta 30,71m². 140.000 €.
- Alzamenegi Etxea, 360 m², traxekoa, berrituta, gaurer. Bihotzera sartuta. 350.000 €.
- Bonerri, 70 m², 3 logela, bihotzera sartuta. Gaurer okerren. 129.500 €.
- Zubizarne, 70 m², 2 logela, berrituta, berrikonkain, bihotzera sartuta. 150.253 €.
- Artekale, 180 m² diploia. 4 logela, igogailua. Bihotzera sartuta. 371.500 €.
- Bolu, 65 m², berrituta, igogailua, bihotzera sartuta. 139.000 € PREZIO JETTSERA.
- San Antonio, 76 m², berrituta, igogailua jabearen kontara. 99.000 € PREZIO JETTSERA.
- Iñigo pasadela, 93 m², igogailua, berrikonkain, berrituta. 140.000 € PREZIO JETTSERA.
- Zubizarne, 60 m², 2 logela, berrikonkain, mairaderarain. 75.000 €.
- Zabalategi, 80 m², 2 logela, igogailua, berrituta, bihotzera sartuta. 130.000 €.
- Mestemika, 75 m², 2 logela, bihotzera sartuta. 149.000 €.
- Marteko, 40m², 2 logela, igogailua, bihotzera sartuta. 130.000 €.
- Ibargorri, 54m², 2 logela, igogailua, bihotzera sartuta. Gaurer okerren. 216.000 €.
- Adarruntz, 40m², 2 logela, berrituta, bihotzera sartuta. 100.000 €.
- Zubizarne, 70m², 3 logela, bihotzera sartuta, egokitua. 114.192 €.
- Zabalategi, 54m², 3 logela, 2 berrikonkain, bihotzera sartuta. 90.000 €.
- Oñatin, 79 m², 3 logela, igogailua, berrikonkain. Aukera on. 70.000 €.
- Oñatin, 75 m², 3 logela, berrikonkain berrikonkain. 63.000 €. Aukera on.
- Mestemika, 86 m², 3 logela, altxerik berri. Berrituta, bihotzera sartuta. 150.000 €.
- Fraizkazarri, 100 m², 3 logela, igogailua. 198.000 €.
- Matxitegi, 96 m², 4 logela, berrikonkain, igogailua. 139.500 € PREZIO JETTSERA.
- Fraizkazarri, 100 m², 4 logela, berrikonkain, igogailua. 180.000 €.
- Bihotzera sartuta, 130 m², 4 logela, igogailua, berrikonkain. 270.000 € PREZIO JETTSERA.
- Zubizarne, 60 m², 2 logela, bihotzera sartuta. 65.000 €.
- Mestemika, 80 m², berrikonkain, aukera on. 40.000 €.

UBERA:

- Bonerri eta 15 hektoreko larria (pinok, zelak) 340.000 € PREZIO JETTSERA

ANTZUOLA:

- Errekale, 90m², 3 logela, igogailua, bihotzera sartuta. 135.000 € PREZIO JETTSERA
- Bolu osoa, 40 m², 2 logela, berrituta. Bihotzera sartuta. 120.000 €.
- Errekale, 70 m², 2-3 logela, igogailua, bihotzera sartuta. 125.000 €.
- Kolabarren, 79 m² - 77m². Berrikonkain. 61.000 € - 51.000 €.
- Kolaga, 80 m², 2 logela, 40.000 €. - 2 pisua + garbiera 70.000 €. Berrikonkain
- Errekale, 61 m², 3 logela, igogailua, berrikonkain. 105.000 €.

ELGETA:

- San Roke, Duplaxa, 83 m², berrikonkain, bihotzera sartuta. 190.000 €.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 24 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 25 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 26 M. FCA. AZKOAGA: Ituriz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 27 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 28 IRIZAR: Eguin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 29 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 30 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 24 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 25 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 26 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 27 ESTELLA: Matxitegi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 28 MOZOS: Iparrigorri 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 29 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 24 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 25 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 26 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 27 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 28 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 29 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 20 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNEZ

(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abuztuaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNEZ

(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
ESTELLA: Matxitegi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA


Yon Armendia 

*Entzun gure irrintziak,
zure irribarrearekin
jolasten ari dira.*

*Ezin maisu hoberik sortu!
Ezin lagun hoberik amestu!*


Arrasaten, 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA

Yon Armendia Martinez 

2020ko apirilaren 17an hil zen, 51 urte zituela.

*Arrasatetik Mendarora heldu zinen,
Deba ibaiaren uraren antzera,
Mendaro Ikastolan azaldu diguzu
zure lana eta izaera,
jaso ezazu hemendik
Mendaro herriaren oroimena!*



Mendaro Ikastolako lankide, guraso eta ikasleak.
Arrasaten, 2020ko apirilaren 24an.


OROIGARRIA

Ana Usabiaga Gisasola

Jesus Zubiaren emaztea


2020ko apirilaren 11n hil zen, Bergaran.

*Estacion de Servicio Arrasateko lankideek
bat egiten dugu familiaren saminarekin.*



Arrasaten, 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA


Felix Antonio Altube Leibar 

2020ko apirilaren 14an hil zen, 73 urte zituela.

*Alboan zaindu duzuen bezala,
izan dadila maitasunez zuen gogoan.*

Andonioren lagunak.
Aretxabaletan, 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA

Felix Altube Leibar 

2020ko apirilaren 14an hil zen.

*Atzo gure ondoan,
gaur gure oroimenean,
betirako gure bihotzean.*

Altube eta Lasagabaster familiak.
Aretxabaletan, 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA

Ascension Saez De Jauregi Pipaon 

2020ko apirilaren 10ean hil zen.

Milesker, garena zugatik gara eta.

Betiko gugan. Maitxe zaitxugu.

Bixente, Enrike, Miren, Ane, Komin, Haitza, Maitte, Seti, Ilargi eta Zuhaitz.
Bergaran, 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA

Juan Mari Ibabe Zubizarreta 

2020ko apirilaren 16an hil zen, 82 urte zituela.

*Guretako beti egongo zara
Apotzako zelaixetan makillie eskuen dozule.*

Zure ilobek maitasunez.
Eskoriatzan (Apotzaga), 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA


Juan Mari Ibabe Zubizarreta
'Altuna'

2020ko apirilaren 16an hil zen.

*Eman eta erakusten
Zu beti hain ona
Arrastua utzi dozu
Bizitzan sakona
Zu betiko gogoan
Juan Mari 'Altuna'
Ez da samur ahazten
Holako laguna.*

Llodio familia.
Eskoriatzan, 2020ko apirilaren 24an.

OROIGARRIA

Isabel Diego Ortiz  **Jose Ignacio Uribarri Jausoro** 

Beti nirekin.

Eskoriatzan, 2020ko apirilaren 24an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otorala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publicitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

BABESLEA **OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Momentu zail hauetan,
lankideok, Jonak, Ibanek, Mariok eta Maribik,
sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu
Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu
Beti izan dugun lan egiteko eran.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

ASTEAGOIENA TELEBISTAN



HERRITARREK BIDALITAKO KONTAKIZUNAK

'Etzetik plazara' Egubakoitza, 21:30



LIDE HERNANDORI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Eguaztana, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 24	ZAPATUA, 25	DOMEKA, 26
08:00 Txanbariak	09:00 Kantari Oñati 1	08:00 Etzetik plazara
08:30 Kantari Arrasate 8	09:30 Kantari Arrasate 10	08:30 Txanbariak
09:00 Kantari Arrasate 9	10:00 Kantari Oñati 2	09:00 Zirikatzen 5
09:30 Kantari Arexabaleta 7	10:30 Zirikatzen 5	09:30 Kantari Arrasate 10
10:00 Hemen Debagoiena	11:00 Osasun ariketak	10:00 Kantari Oñati 1
11:00 Osasun ariketak	11:30 Etzetik plazara	10:30 Kantari Oñati 2
11:30 Hala Bazan: Kirola 3	12:00 Hemen Debagoiena	11:00 Osasun ariketak
12:00 Hemen Debagoiena	13:00 Galdegazte: Ainara Uribarri	11:30 Harri salda
13:00 Kantari Arexabaleta 8	13:30 Zirikatzen 5	12:00 Elkarrizketa: Iker Vicente
13:30 Kantari Arrasate 7	14:00 Hemen Debagoiena	13:00 Etzetik plazara
14:00 Hemen Debagoiena	15:00 Elkarrizketa: Iker Vicente	13:30 Hala Bazan: Kirola 3
15:00 Astearren errepasoa	15:30 Elkarrizketa: Iker Vicente	14:00 Elkarrizketa: Iker Vicente
15:30 Kantari Arrasate 8	16:30 Elikatu 2	14:30 Galdegazte: Ainara Uribarri
16:00 Astearren errepasoa	16:30 Kooltur: Capaces	15:00 Hemen Debagoiena
16:30 Zirikatzen 5	17:30 Osasun ariketak	16:00 Kooltur: Capaces
17:00 Astearren errepasoa	18:00 Harri salda	17:00 Kantari Oñati 2
17:30 Osasun ariketak	19:00 Zirikatzen 5	17:30 Osasun ariketak
18:00 Hemen Debagoiena	19:30 Etzetik plazara	18:00 Kantari Arrasate 10
19:00 Kantari Arrasate 9	20:00 Hemen Debagoiena	18:30 Elkarrizketa: Iker Vicente
19:30 Elkarrizketa: Iker Vicente	21:00 Harri salda	19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Hemen Debagoiena	21:30 Astearren errepasoa	20:00 Etzetik plazara
21:00 Hala Bazan: Kirola 3	22:30 Galdegazte: Ainara Uribarri	20:30 Kooltur: Capaces
21:30 Etzetik plazara	23:00 Kooltur: Capaces	21:30 Hala Bazan: Kirola 3
22:00 Hemen Debagoiena		22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Kooltur: Capaces		23:00 Zirikatzen 5

EGUBAKOITZA, 24

THE CAPACES TALDEAREN KONTZERTUA

'Kooltur Ostegunak' 23:00

EGUNERO


ELKARRIZKETAK ETA ALBISTEAK

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ASTELEHENA, 27



GALDERA-ERANTZUNEN LEHIAKETA

'Zirikatzen' 21:30/23:30

EGUNERO

ALBISTE GARRANTZITSUENAK

'Albistegia' 15:00/16:00/17:00

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA Izaro Aperribai
Apirilaren 28an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat, etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA Larzabano Gorostiza
Apirilaren 28an, 11 urte. Zorionak, Zaraitzu! Ondo pasatu eguna! Elkarrekin lortuko dugu!



OÑATI Maia Igartua Zubia
Apirilaren 28an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Allau da hainbeste desio zeben eguna! Maitte zaitugu!



OÑATI Haizea Idigoras Ugarte
Apirilaren 28an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat eta bost belarri tirakada birtual zure familiaren eta lagun danen partetik!



ARAMAIO Libe Reguero Osinaga
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak, maitea! Disfrutatu zure eguna eta jarraitu orain moduko neska alaia eta dibertigarria izaten. Maite zaitugu!



OÑATI Goitz Marton Camino
Apirilaren 27an, 2 urte. Zorionak, guapetona! Kriston festarekin ospatuko dugu zure eguna. Patxo erraldoi bat, txikitina!



BERGARA Aiora Unamuno Lete
Apirilaren 23an, 7 urte. Zorionak, *prexioxi!* Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo-potolo bat danon partetik!



ARETXABALETA Aimar Azpitarte Zubizarreta
Apirilaren 23an, 12 urte. Zorionak, Aimar! 12 urte, txapeldun! Beste urtebete besterik ez da, baina, aurrera zoaz. Ondo-ondo ospatu eta disfrutatu.



ARETXABALETA Pedro Barbero
Apirilaren 23an. Zorionak! Oso-oso ondo pasatu zure eguna! Eta, hau pasatu eta gero, berrito ospatuko dugu familia osoarekin!



ARRASATE Unax Andres Lopez
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak, txikitxu! Eman bostekoa, txapeldun! Besarkada eta muxu handi-handi bat. zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu!



ARETXABALETA Ihintza, Itoitz eta Ekhi Louvelli Urrutia
hintzak apirilaren 11n 7 urte eta, Itoitz eta Ekhi, 23an, 12 urte. Hau guzti hau pasatzen denean denok elkarrekin ederto ospatuko dogu. Aupa zueki! Itzelak zarie, segi holaxe, beti aurrera!



ARRASATE Danel Arizmendiarieta Zabaleta
Apirilaren 20an, 4 urte. Zorionak, Danel! Jarraitxu holako mutiko ona izaten, etxekuan partetik!




OÑATI Luka Regueiro Madina
Apirilaren 20an, 2 urte. Zorionak, pottotto! Jada bi urte gurekin. Patxo potolo bat eta atxutxi bat, Nikoren partetik. Muak!




ARRASATE Juanjo Iturbe Berezibar
Apirilaren 20an. Zorionak, langile! Ondo pasatu zeure egune. Muxo handi bana Araitzek eta Nagorek. Laster Saturrana pasiarri emongu.



OÑATI Joseba Jorda Castaños
Apirilaren 20an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, Josebatxo! Jada 12 urtetxo! Ondo zelebratu eguna! Besarkada handi bat, Xabierren partetik!



OÑATI Martin Esparza
Apirilaren 19an, 7 urte. Zorionak, Martin! Ederki ospatu eta egun ederra pasatu. Muxu pila bat, etxekoen partetik.




OÑATI Aiala Velasco Juan
Apirilaren 19an, urtebete. Zorionak, Aiala, zure lehen urtebetetzan. Ondo-ondo pasatu eguna eta besarkada handi bat Oñatitik!



ARETXABALETA Maren Axpe
Apirilaren 17an, 7 urte. Zorionak, *guapa!* Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



ARAMAIO Uxue Ezkurra Errasti
Apirilaren 16an, 6 urte. Zorionak, politt hori! Sei urte egoera berezixen bete dittuzu, baina, merezi dozun moruen ospatuko! Patxo handi bat, familia osuaren partetik!



BERGARA Nahuel Mendiaraz Higuera
Apirilaren 16an, 6 urte. Zorionak etxeko danon eta aitaita-amamaren partetik. Ondo pasatu Osintxuko balloi festan. Besarkada handi bat. Asko maite zaitugu.



OÑATI Julen Isasti
Apirilaren 16an, 7 urte. Zorionak, pottoko! Urte askotarako! Segi beti horren alai eta zoriontsu izaten. Muxu potolo bat etxekoen partetik!



ARETXABALETA Maider Berasaluze Garzia-Etxabe
Apirilaren 14an, 47 urte. Zorionak Arkazoko ederrenari! Besarkada handi bat emateko desiatzen gauz. Ondo pasatu, Arkazotarren partetik!



OÑATI Ainhoa Azkarate Azkona
Apirilaren 14an, 16 urte. Zorionak eta urte askotarako, Ainhoa! Hau dana bukatutakuan danok batera ospatuko! Patxo potolo bat, familiaren partetik!




ARRASATE Felix Eraña
Apirilaren 13an, 65 urte. Zorionak eta urte askotarako, Felix! Oso ondo ospatu eguna eta patxo bat familia danaren partetik!



ARRASATE Izadi Bragado Alvarez
Apirilaren 12an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Egun zoragarria opa dizuegu maite zaitugun guztiok. Muxu handi bat!



ARRASATE Laia Ezkurra Iturbe
Apirilaren 12an, 8 urte. Zorionak, maitia! Aurten zortzi urte beteko dittuzu etxekuan artian. Laster ospatuko behar dan moduan. Muxu erraldoi!



ARRASATE Garazi, Irupe eta Amets
Apirilaren 12an, 13an eta 14an, 23 urte. *Zatoz, laguna zaitugu!* Kuadrilakuen partetik, zorionak! 2021eko Santamasetan ospatuko dugu elkarrekin, sagardo eta dantza artean. Urte berri on!



BERGARA Irati Inza
Apirilaren 12an, 8 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu eguna, familia guztixaren partetik. Patxo potolo bat!



OÑATI
Ihabar Agirrezabal Maiztegi
Apirilaren 27an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat, etxekuen partetik.



ARRASATE
Garazi Martinez Ugarte
Apirilaren 27an, urtebetetzea. Nire popopolintxo maitia. Zorionak, bihotza!



OTXANDIO
Aimar Arejolaleiba Carrasco
Apirilaren 26an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat Atxabaltatik.



ARETXABALETA
Ekhi Arrese Blanco
Apirilaren 26an, 4 urte. Zorionak, Ekhi! Lau udaberri gure artien. Ondo pasatu eguna eta jaso patxo handi bat familia osuaren partetik.



OÑATI
Itsasne Lizarralde
Apirilaren 26an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Egun berezi hau ahalik eta ondoen pasa dezazula. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Etxahunen partetik.



BERGARA
Irati Urigoitia
Apirilaren 26an, 12 urte. Zorionak, Irati! Aita Lander, ama Ana, anaia Endika, lehengusu Luzia eta Eder, Karlos eta Luis aitteitek, amama Enkarna eta beste senideak.



OÑATI
Eneritz Gereñu Arregi
Apirilaren 24an, 12 urte. Zorionak, Eneritz! Ondo ospatu zure eguna eta besarkada handi bat, familia danaren partetik!



ARETXABALETA
Peru Ansa Okarantza
Apirilaren 24an, 7 urte. Zorionak, Peru! Ondo-ondo ospatu eguna eta argi sorpresekini! Jaso laztan handi bat!



OÑATI
Maddi Aurrekoetxea Elorza
Apirilaren 24an, 7 urte. Maddi, poliit hori; gure udaberri, lora eta eguzki. Zorionak zuri! Eta egin putz tartari!



BERGARA
Unai Barquero Romero
Apirilaren 23an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, Unai! 10 belarri tirakada, 20 besarkada eta milioika kilo zorion laugarren mailakoen partetik!



ANTZUOLA
Miren Zubikaray
Apirilaren 22an, 25 urte. Zorionak, artista! Zazpitan telepotean ibxointzen dotzugu! Patxo handi bat, zure laguneren partetik.



OÑATI
Uxuri Olalde
Apirilaren 21ean, 8 urte. Geure printzesari, zorionak, poliitta!



ARRASATE
Laia Perez de Villarreal Perez
Apirilaren 21ean, 8 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat aitaborenen, amaxorenen eta, bereziki, Oihanen partetik!



BERGARA
Iban Da Silva
Apirilaren 21ean, 41 urte. Zorionak, aitatxo! Aurtengoa desberdina izango da baina ederki ospatuko dugu laurok batera. Pila bat maite zaitugu! Besarkada potolo bat Kenarren eta Alaineren partetik.



ARRASATE
Juanjo Marquez
Apirilaren 21ean, 43 urte. Zorionak, Juanjete! Ondo pasatu zure eguna! Laster elkartuko gara zure urtebetetzea ospatzeko!



ARRASATE
Jimmy eta Irati Jimenez Aldama
Apirilaren 13an eta 20an, urtebetetzeak. Zorionak, bikote. Ondo pasatu zure egunetan. Muxu erraldoi bat familiaren eta, batez ere, lbaireren eta Goizaneren partetik.



ARRASATE
Hugo Carmona Iglesias
Apirilaren 19an, 8 urte. Zorionak, *guapo!* Aurten diferente izango da baina topera ospatuko dugu! Askok maite zaitugu!



ARETXABALETA
Oier Otxoa Diaz de Guereñu
Apirilaren 19an, 8 urte. Egun zoragarri, barreguraz eta algaraz bete, izan dezazula. Muxuak familiaren eta amamen eta aitaitaren partetik bereziki.



BERGARA
Laia Azkarate-Askasua Baleztena
Apirilaren 18an, 11 urte. Zorionak, *guapisima!* Muxu handi bat, etxekoen partetik. Ondo pasatu zure eguna, txapeldun!



ARETXABALETA
Josu Idigoras Merchan
Apirilaren 18an, 21 urte. Zorionak, Josu! Urriak aurrera doiaz... patxo potolo bat zure kuadrillaren eta pelukeraren partetik!



ARETXABALETA
Pau Gonzalez Errasti
Apirilaren 17an, 2 urte. Zorionak, urtebete. Zorionak, potxolo. Muxu erraldoia familia osoaren, eta bereziki, Noahren partetik.



ARRASATE
Aner Arostegi Landa
Apirilaren 17an, 2 urte. Zorionak, Aner! Bi urte handi! Patxo erraldoi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Julen Unamuno Marzan
Apirilaren 17an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Egun berezi hau ahalik eta ondoen pasatu. Muxu bat etxekoen, eta bereziki, Ekaitzen partetik.



ARRASATE
Eneko Saiz Horrillo
Apirilaren 17an, urtebete. Zorionak, maitia! Amaxorenen eta familia osoaren partetik, muxu handi bat.



OÑATI
Maren Oleaga Mugarza
Apirilaren 17an, 7 urte. Zorionak, Maren! Egun espeziala izan daixela zuretzat, sorpresaz betia! Eta holaxe segi, alai eta zoriontsu! Patxo handi bat.



OÑATI
Magali Igartua Ugarte
Apirilaren 14an, 6 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ESKORITATZA
Beñat Arana Romero
Apirilaren 13an, 7 urte. Mila kilo zorion, txapeldun! Besarkada handi bat etxeko guztien partetik eta muxu bana!



ARRASATE
Maialen Velez de Mendizabal Otero
Apirilaren 13an, 12 urte. Ze azkar pasatzen dan denbora zurekin gaudenian. Musu asko familiako guztien partetik.



ARRASATE
Leire Garro Beitia
Apirilaren 13an, Zorionak, Leire! Ondo ospatu zure eguna eta eskerrik asko zaren moduko alaba izateagatik. Patxo handi bat danon partetik!




ARETXABALETA
Libe Zubillaga Olabe
Apirilaren 13an, 5 urte. Zorionak, Libe eta ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat etxeko guztien partetik eta, bereziki, Danel eta Oxelengandik!



OÑATI
Rakel Santos Conde
Apirilaren 13an, 36 urte. Zorionak, Rakel! Zorionak, amab! Ondo ospatu eguna eta urte askotarako familiako danon partetik. Batez ere Peru, Natale, Martxel eta aitatxo. Patxo handi bat!




BERGARA
Ane Gartzia Perez
Apirilaren 11n, 13 urte. Zorionak urte askotarako, Ane! Besarkada bat eta 13 tirakada belarritik, familia osoaren partetik.




ARRASATE
Eider Rubio Bidaburu
Apirilaren 11n, 5 urte. Zorionak, Eider! Ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Unai Gutierrez Garcia
Apirilaren 10ean, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna. Askok maite zaitugu! Familiako guztien partetik.



OÑATI
Ani Idigoras Garcia
Apirilaren 10ean, 2 urte. Zorionak, Ani! Dagoeneko bi urtetxo. Jarraitu gure bizitzak alaitzen! Mila muxu, aitaxorenen, amaxorenen eta Liberen partetik. Maite zaitugu!




ARRASATE
Ion Ferreira Barrutiabengoa
Apirilaren 10ean, 6 urte. Zorionak, txapelduna! Muxu potolo bat, familiakoen partetik. Askok maite zaitugu.



OÑATI
Eneritz Etxebarria Zubizarreta
Apirilaren 9an, 33 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekuen partetik! Ahal danien danok batera ospatukou.



BERGARA
Beñat Diaz Bouzon
Apirilaren 7an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Xabier Santa Cristina Milan
Martxoak 26an, 9 urte. Zorionak, Xabier, onena zara!



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Eskerrak konfinamenduari

Eskerrak eman behar dizkiot konfinamenduari. Bai. Eskerrak, geratu egin nauelako. Etxera ekarri nauelako. Barrura begiratzen lagundu didalako. Presaka bizi nintzen.

Zurrumbilo batean. Beti topera. Eta egun batetik bestera, stop. Nora hoya hi? Hemen geldil!

Lehenengo egunetan, erresistentzia. Itsasoa bertan, eta ezin ikustera joan? Txakurrak kalean eta gu ez? Hau gustu txarreko broma bat da. Errebeldia! Lehenengo egunetan, beldurra. Ezinegona. Barre, negar ez egiteagatik. Honek pelikula kutre bat dirudi. Drama surrealista bat.

Baina gero, kanpora begiratzeari utzi nion. Albiste katastrofistak irakurtzeari, ulertu nahi izateari. Epaitzeari, borroka egiteari utzi nion. Zorionez, ingurukoak osasuntsu daude. Alferrik *pre-okupatuko* naiz gerta daitekeenaz: ez dago nire esku.

Momentua bizitzen hasi nintzen: arreta niregan jartzen. Gauza txikietan. Orain eta hemen. Eta bakea sentitzen dut. Bizkar gainetik pisu astun bat kendu banu bezala. Konturatu naiz ez dudala ezer asko behar, pozik egoteko. Kanpoan bilatzen ari nintzena barruan neukan.

BUKATZEKO

Andia mendilerrera, amets handi baten bila

Mikel Etxebeste arrasatearra Nafarroako Lezaun herrira bizi izatera joan zen orain dela hemeretzi urte. Gaur egun, hango alkatea da, eta, egoera berezi honetan, herritarrei ahalik eta gehien laguntzea du helburu nagusi

Naroa Urien Berrio ARRASATE

Mikel Etxebeste arrasatearra Lezaunera, Nafarroako herri txiki batera, bizi izatera joan zen 2001. urtean. Ama Lezaungoa da eta txikitatik asko maite izan ditu animaliak. Beraz, nekazari eskolan ikasi eta gero, amaren herrira joan zen bere ametsa egia bihurtzera: nekazaritzaren munduan murgiltzera. Bertan, udal eta ardi lanak egin ditu tarteka, eta, gaur egun, Lezaungo alkatea da.

Nekazaritzatik alkatetzara

Udaleko alkatea bozketa bidez aukeratzeko garaia heltzearen eta herritar batek Etxebeste hautagai izatera bultzatu zuen. Talde bat bildu, alkatetzara aurkeztu eta Lezaungo alkate bihurtu zen 2019ko abenduan. Hasi bezain laster, mundua hankaz gora jarri duen krisia etorri zitzaion gainera. Hasi berri eta hainbat zalantza buruan izanda, "azkar ikastea" tokatu zaiola dio Etxebestek. Edozelan ere, pozik agertu da herriak emandako erantzunagatik. "Denak etxean geratzen dira eta momentu honetan ez dugu koronabirus kasurik herrian", dio.



Mikel Etxebeste, Lezaungo udaletxe aurrean. M.E.



Etxebeste, herritarrei erosketak eramaten. M.E.

Erosketak, irri baten truke

Lezaunen nagusi asko bizi dira, eta Udaletik zerbaitekin behar zutela pentsatu zuen Etxebestek. Herritarrek deitu zituen laguntza eskaintzera, eta, momentu honetan, ostiralero erosketak egiten dizkie hainbat nagusiri. "Askok eskertzen dute; batez ere, urrunetik bada ere norbaitekin hitz egitea asko laguntzen die, eta haien garrantzitsua dela ikusita asko pozten naiz". Udalak, gehienbat, basozaintza, abeltzaintzaren kudeaketa, egurraren kudeaketa... eramaten ditu urtean zehar. Baina orain, herritarrei laguntzea da Lezaungo Udalaren eginkizun nagusia.

Koronabirus kasurik ez

Momentu honetan, Lezaunen dago koronabirus kasurik. "Hasi gero, Txinan zegoenean, jendea lasai samar zebilen, baina, Lizarrako egoitza batean kasuak agertu zirenean, jendeak serioago hartu zuen egoera hau. Gaur egun, oso ondo daramate eta ez dugu kasurik", dio Etxebestek.

Jaioterriaren xarma

Nahiz eta oso gustura egon, Arrasate oso berezia da haren zat: "Arrasatek dituen aukerak faltan igartzen ditut batzuetan: gurasoak, ostiraleko poteoa, errugbia... Beraz, sarritan joaten naiz bisita egitera". Modu berean, Debagoieneko herritar guztiak egoerari buelta eman eta gogotsu jarraitzera bultzatu nahi ditu: "Poliki-poliki, hobetzen joango dira gauzak, eta, udan jende asko dagoen lekuetara ez baduzue joan nahi, etorri Lezaunera bisitan, ongi etorriak izango zarete".

'ELKANO' ETA 'GARTXOT'

GOIENA TELEBISTA, EUSKARAZKO FILMAK ETXEAN

'ELKANO', APIRILAREN 29AN, EGUAZTENEAN, 18:00ETAN

'GARTXOT', APIRILAREN 29AN, EGUAZTENEAN, 21:00ETAN



goiena
Zu hemen zaude.

